



EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA 2024



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Edizioa: 1.a, 2024ko azaroa

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena:

IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala – Servicio Oficial de Traductores)

ISSN: 3020-9633

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Bienestar, Juventud y Reto demográfico



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

AURKIBIDEA

SARRERA.....	11
1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA.....	12
1.1. Gazteen indizea, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, biztanle guztiekin erkatuta, % 14,6 da, EBko batezbestekoa baino txikiagoa.....	12
1.2. 2023an gazte atzerritarrek EAEko gazteen % 15,4 osatzen dute, orain arte jaso den ehunekorik handiena	17
1.3. 2022ko migrazio-saldoa positiboa da, eta 15 eta 29 urte bitarteko 9.685 pertsona gehiago etorri dira, joan direnak baino. Migrazio gehienak atzerrian jaiotakoek osatu dituzte	19
1.4. Lehen seme-alaba izateko emakumeen batez besteko adina 32 urtetik gorakoa da EAEn, eta gero eta emakume gutxiagok izan dute seme-alabaren bat 35 urte bete aurretik.....	20
1.5. Hamar gaztetik zazpik guraso izan nahi dute etorkizunean, baina haietako erdiek baino gehixeagok bakarrik uste dute nahi luketen adinean izango dituztela seme-alabak ..	23
1.6. Gazte eta jaiotze gutxiko testuinguru demografiko baten ondorioak.....	25
2. HEZKUNTZA.....	26
2.1. Eskola-uzte goiztiarraren EAEko tasa txikia da, EBko batezbestekoa baino txikiagoa....	26
2.2. Hogeita hamar eta hogeita hamalau urte bitarteko hiru pertsonatik bik goi-mailako ikasketa-tituluak dituzte, EBko emaitza baino hogeit puntutik gora	29
2.3. Unibertsitatean gizon baino emakume gehiago daude, baina Zientzia eta Teknologiako graduren bat osatu dutenen % 33,1 baino ez dira emakumeak.....	31
2.4. Unibertsitateko ikasketak edota Lanbide-heziketako ikasketak bukatu ondorengo 2023ko laneratze-tasak inoizko handienak izan dira 2010etik	33
2.5. Hiru gaztetik bik ondo hitz egiten dute ingelesez	34
2.6. Gazteen erdiak baino gehiago joan dira atzerrira ikasketak egitera, hizkuntzak ikastera edo ikertzera	35
2.7. Euskal hezkuntza-sistemari buruzko iritzi positiboak behera egin du	36
2.8. Gazteen hezkuntza-ibilbidearen ondorioak.....	37
3. ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA	38
3.1. 2023an 16 eta 29 urte arteko pertsonen erdiak inguru daude lanean edo lan egiteko prest	38
3.2. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasa 2023an igo da; eta handiena da 2012tik	40
3.3. Langabezia-tasak behera egiten jarraitzen du, eta 2008ra joan beharra dago halako tasa txikia aurkitzeko.....	43
3.4. Behin-behinekotasunaren tasa nabarmen jaitsi da, baina 2023an oraindik ere 30 urtetik beherako soldatapeko gazteen ia erdiei eragiten die	45
3.5. Lanaldi partzialeko enplegu-tasa % 30etik gorakoa da, eta emakumeena gizonena baino askoz ere handiagoa da.....	47

3.6. Hamasei eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazte gehienek zerbitzu-sektorean jarduten dute	50
3.7. Hogeita eta hogeita bederatzi urte arteko gazte gutxi dira langile autonomoak edo enpresaburuak, nahiz eta adin-tarte horretako gazteen erdiek negozio bati ekitea pentsatu izan duten	51
3.8. Unibertsitateko edo lanbideko ikasketa-titulua duten 16 eta 29 urte bitarteko hamar landun gaztetik zazpik beren prestakuntza erabiltzen dute lan-jardueran	54
3.9. Batez besteko hileko soldata 1.500 eurotik gorakoa da, lehen aldiz, 2023an, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean	56
3.10. Lan-istripuek askoz gehiago eragiten diete gizonei, emakumeei baino	57
3.11. Gazte landunek erdi mailako gogobetetasuna dute beren lanarekin, 10etik 6,5 da 2023ko emaitza	58
3.12. Hamasei eta hogeita bederatzi urte bitarteko landunen % 39k uste du 2024an lana gal dezakeela edo lan-baldintzek okerrera egin dezaketela	58
3.13. Eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen % 72k espero du 2024an lana topatzea	59
3.14. EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,9k atzerrira migratuko lukete, lan interesgarria eskainiko baliete; % 9k soilik uste dute atzerrira joan behar izango dutela lan egitera, nahi izan ez arren	63
3.15. 2020tik 2024ra gora egin du funtzionario izateko oposizioak egitea pentsatu duten gazteen ehunekoak	64
3.16. Lan idealari buruzko ezaugarriei galdetuta, gazteek soldata ona izatea aipatu dute, nagusiki	65
3.17. Hogeita bost urte bete arte, gazte gehienak gurasoen mende daude ekonomikoki ...	66
3.18. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazteen herenak baino zertxobait gehiagok (% 36,9k) 600 euro baino ez ditu erabilgarri hilean	68
3.19. Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak behera egin du , eta 2009ko krisi ekonomikoaren aurretiko mailetan dago	69
3.20. EAEko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 2,9k Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen du	71
3.21. Gazteen lan- eta ekonomia-egoeren ondorioak	73
4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA	74
4.1. EAEko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen herenak baino ez daude emantzipaturik (% 33,5)	74
4.2. Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak, batez beste, 29 urte bete eta gero emantzipatzen dira, lehenago emantzipatzea gustatuko litzaiekeen arren	77
4.3. Hogeita bost eta hogeita bederatzi urte bitarteko hiru gaztetik batek uste du ezin izango dela bere kabuz bizi 2024. urtean, nahi izan arren	80
4.4. Oraindik gurasoekin bizi diren 25 eta 29 urte bitarteko gazteek gehien aipatu duten zailtasuna etxebizitzaren prezio handia da	81
4.5. Higiezinaren merkatuko batez besteko prezioak eta gazteen batez besteko soldatak kontuan hartuta, hipoteka-kuota edo alokairu-errenta bakarrik ordaintzeak, teoriarik,	

gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran jartzen ditu 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteak	82
4.6. 82.000 gazte inguruk etxebizitza bat behar dute Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gehienei beren udalerrian bizitzen jarraitzea gustatuko litzaieke	85
4.7. Etxebizitza bat behar duten gazte gehienek ez dute diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik, EAEn etxebizitza bat eskuratzeko	86
4.8. Diru erabilgarri gutxien duten gazteek aukeratzen dute alokatzea, baina ez da aukerarik onena diru aldetik, ezta gogokoena ere	89
4.9. Gazteek bigarren eskuko eta merkatuko batezbestekoa baino etxebizitza txikiagoak aukeratzen dituzte eta gutxi dira bakarrik emantzipatzen diren gazteak	94
4.10. Emantzipatu ez diren eta etxebizitza behar duten gazteek uste dute irtenbide nagusietako batzuk etxebizitza babestu gehiago egitea (batez ere, alokairu-erregimenean) eta errenta txikiagoko alokairua sustatzea izan daitezkeela	95
4.11. Etxebiden izena ematen duten gazte gehienek alokatzeko erregimeneko etxebizitza eskatzen dute, baina Etxebideren eskaintza urrun dago eskaera osoa betetzetik.....	96
4.12. Ia 8.000 gaztek Gaztelagun programako laguntza kobratu zuten 2023an	98
4.13. Emantzipa diru-laguntzen programan 5.496 eskaera jaso ziren lehen hiru hilabeteetan	100
4.14. Emantzipazio berantiarraren ondorioak.....	103
5. OSASUNA	105
5.1. Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela, baina gazteenen artean, hots, 15 eta 19 urte arteko taldean, beren osasunari buruzko pertzepzio txarrak gora egin du	105
5.2. Gazteen obesitate-tasa % 5etik behera dago	107
5.3. Jarduera fisikoak gora egin du; hamar gizon eta emakume gaztetik bederatzik jarduera fisiko osasungarriren bat egiten dute.....	108
5.4. Tabakoaren kontsumoak behera egin du gazteen artean, eta 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren batezbestekoaren azpitik jarraitzen du	108
5.5. Alkohol-kontsumo arriskutsuak behera egin du	109
5.6. Kalamuaren kontsumoak ere behera egin du, nahiz eta hamar gizon gaztetik batek kontsumo arriskutsua egiten duen	111
5.7. Substantzia psikoaktiboak hartzeagatik hasitako tratamenduek behera egin dute. 2022an hasi diren tratamenduen % 43,7an kalamua da substantzia nagusia.....	112
5.8. Hamabost eta hogeita bederatzik urte arteko gizonen % 2,2k jokoarekiko joera arriskutsuak dituzte.....	114
5.9. Hamabost eta hogeita bederatzik urte bitarteko gazteen % 16,3k Interneten erabilera problematikoa egiten du. Emakumeen eta gazteenen artean handiagoa da ehuneko hori	115
5.10. Sare sozialetako jazarpenak hamar gaztetik hiruri eragiten die, eta, bereziki, emakumeei.....	117
5.11. Haurdunaldia borondatez eteteko tasak gora egin du 2023an eta 2012tik izandako altuena da	117

5.12. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazteen artean Giza immunoeskasiaren birusak (GIBak) eragindako infekzio berrien kopuruak egonkor jarraitu du, baina sexuaren bidez transmititzen diren infekzioek gora egin dute.....	119
5.13. Antsietatearen eta depresioaren prebalentziak gora egin du, batez ere, emakume gazteen artean	121
5.14. Gazteen hamar ospitaleratzetik bat nahasmendu mentalaren ondoriozkoa da	122
5.15. Suizidioa da gazteen lehen heriotza-kausa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen suizidio-kasuek EAEan 2022an izandako guztien % 8 osatzen dute	123
5.16. EAEko gazteen osasunaren ondorioak.....	127
6. AISIA, KULTURA ETA KIROLA.....	128
6.1. Lau gaztetik hiruk egiten dute jarduera artistikoren bat	128
6.2. Kultura-ekitaldietara joateko joera ere igo da	130
6.3. Gazteen % 58,1ek adierazi du inkestaren aurreko hilabeteen libururen bat irakurri duela entretenitzeko, batez ere, eleberriak	131
6.4. Gazteen % 74,9k egunero edo ia egunero erabiltzen dituzte musika entzuteko aplikazioak.....	133
6.5. EAEko gazteen erdiek baino gehiagok erregulartasunez kirola egiten dute, astean hiru egunetan edo gehiagotan (% 52,9).....	134
6.6. Hamar gaztetik zazpik hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzte egunero. Instagram da EAEko gazteek gehien erabiltzen duten sare soziala	138
6.7. EAEko gazteek garrantzi handia ematen diote aisialdiari (10etik 8,1 puntu)	144
6.8. EAEko gazteek dituzten kultura- eta aisialdi-ereduen ondorioak.....	144
7. EUSKARA	146
7.1. EAEko gazteen % 18,7ren lehen hizkuntza euskara da	146
7.2. Gora jarraitu du euskara komunikazio-hizkuntza duten unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoak.....	148
7.3. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko hamar gaztetik ia zortzik euskaraz ondo hitz egiten dute	149
7.4. Lagunekin euskara erabiltzen duten gazteen ehunekoa handitu da	150
7.5. Hamar gaztetik lauk euskara erabiltzen dute sare sozialetan	151
7.6. Euskaraz irakurtzeko ohitura egonkor mantendu da azken urteetan	152
7.7. Gazte landunen erdiek euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen dute lanean.....	153
7.8. Gazte gehienak euskararen erabilera sustatzearen alde daude eta arlo guztietan euskararen presentzia bermatzeko urrats gehiago eman behar direla uste dute	154
7.9. Euskararen ezagutzaren eta erabileraren ondorioak	155
8. BALIOAK ETA JARRERAK	156
8.1. Gazte gehienak ez daude politikan interesaturik, baina bozkatzera joaten dira	156
8.2. Gazteen erdiek baino gehiagok uste dute gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela, eta modu aktiboagoan parte hartu nahi dute gai publikoetan	159

8.3. Gazteen % 44,7 elkarte bateko kide da, eta % 13,8k boluntario-lanak egiten ditu.....	161
8.4. Unibertsitatea eta EAEko erakunde politikoak dira Euskadiko gazteen artean konfiantzarik handiena sortzen duten erakundeak	162
8.5. Hiru gaztetik batek ulertzen ditu Europar Batasunaren egitura eta zereginak, eta hori Europako gazteen batezbestekoaren azpitik dago.....	163
8.6. Lau gaztetik bat ez da eroso sentitzen bestelako ideia, sinesmen edo balioak dituzten pertsonekin.....	165
8.7. Haurdunaldia borondatez eta modu askean etetearen, eutanasiaren eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen aldeko jarrerak ehuneko handiak osatzen jarraitzen dute	166
8.8. EAEko gazte gehienek adierazi dute ez direla fededunak edo ateak direla	170
8.9. Lau gaztetik batek uste du atzeritar gehiegi bizi direla Euskal Autonomia Erkidegoan	172
8.10. Gazte gehienek ekologistak direla diote, baina erdiak baino gutxiagok adierazi dute kontsumo-ohitura osasungarriak dituztela	175
8.11. Gazteen balioen eta jarrenen ondorio sozialak.....	178
9. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERTINTASUNA	179
9.1. EAEko gazte gehienek, emakumeek zein gizonak, adierazi dute feministak direla.....	179
9.2. Prestakuntza eta esperientzia berberak izanda, lanpostu bat lortzeko, gizonak emakumeek baino aukera gehiago dituztela uste duten emakumeen ehunekoak gora egin du azken urteetan	180
9.3. Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala 175 eurokoa da 2023an	181
9.4. Hiru emakume gaztetik bi diskriminatuta sentitu dira egoeraren batean emakume izateagatik	181
9.5. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko hamar emakume gaztetik zazpik adierazi dute beldur direla herrian edo auzoan gaez bakarrik ibiltzen direnean	182
9.6. Gazte gehienek uste dute bikotekidearen aurkako tratu txar guztiak oso larriak direla	184
9.7. Lau emakumetik ia batek sexu-jazarpena jasan du sare sozialetan	186
9.8. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko 1.000 emakumetik 9,8k jarri dute genero-indarkeriari buruzko salaketa bat 2023an.....	187
9.9. Emakumeen aurkako egoera desorekatuaren ondorioak	188
10. NORBERAREN EGOERARI, GAZTE GUZTIEN EGOERARI ETA EUSKADIKO EGOERARI BURUZKO BALORAZIOAK.....	190
10.1. Gazteek 7,2ko balorazioa ematen diote beren egungo egoera pertsonalari	190
10.2. Gazteek gazteriaren egoera orokorra norberarena baino okerrago baloratzen dute eta ezkor daude bilakaerari dagokionez	191
10.3. Lan-merkatuari lotutako arazoez, oraindik ere, pertsona gazteen kezka nagusia izaten jarraitzen dute	192
10.4. Gazteen % 51,8k uste dute gurasoak baino hobeto daudela, gurasoek adin berean zuten egoerarekin alderatuta	194

10.5. Handitu egin da Eusko Jaurlaritzaren jarduna ona dela uste duten gazteen ehunekoa	196
10.6. Orainari buruzko balorazioa eta etorkizunarekiko konfiantza berreskuratzen hasi dira	197
10.7. Orainaren balorazioa eta horrek etorkizunarekiko konfiantzan izaten duen eragina	199

SARRERA

Txosten honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek 2024an duten egoerari buruzko diagnostikoa jaso du Gazteen Euskal Behatokiak. Diagnostiko honen helburua Euskadin bizi diren gazteen errealitatearen alderdiak sakonago ezagutzea da. Horretarako, txostena hamar ataletan banatu da: testuinguru demografikoa, hezkuntza, enplegua eta egoera ekonomikoa, emantzipazioa eta etxebizitza, osasuna, aisia, kultura eta kirola, euskara, balioak eta jarrerak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta, horiekin batera, azken kapituluan gazteek beren egoerari buruz egiten duten balorazioa jaso da.

Txosten hau egiteko, hainbat iturri erabili dira: alde batetik, kontuan hartu dira Gazteen Euskal Behatokiak azken urteotan egin dituen zenbait ikerketa, gazteen egoera deskribatzeko; beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako institutuek edo sailek egindako ikerlanak edo estatistikak ere erabili ditugu; hori dira, besteak beste, EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea; Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea; Lan eta Enplegu Saila; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila; Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Osasun Saila; Hezkuntza Saila, etab. Halaber, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) estatistikak ere erabili ditugu, eta, bestetik, adierazle jakin batzuk aztertzeke, egokia eta posiblea izan denean, beste eremu geografiko batzuekin —hala nola Espainiarekin eta Europar Batasunarekin (EB-27)— alderatzeko datuak ere erabili ditugu. Kasu horietan, datu-iturri nagusiak Estatistikako Institutu Nazionala (EIN) eta Europako Estatistika Bulegoa (Eurostat) izan dira.

Kasu guztietan, eskuragarri dauden datu berrienak eman dira, estatistika batzuk eta besteak maiztasun desberdinez egiten baitira. Era berean, datu horiek azken urteotan izan dituzten bilakaera ere eskaini dugu, aurreko joera ezagutzeko eta etorkizuneko egoerak aurreikusi ahal izateko.

Gazteak aipatzen ditugunean, oro har, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonei buruzko datuak ematen ditugu, baina ez da beti horrela izaten; gaia dela edo datu-iturriak eskaintzen duen aukera bakarra dela, azterketa-eremu batzuetan erreferentzia-taldea bestelakoa da. Adibidez, enplegua aztergaitzat hartzen denean, 16 eta 29 urte bitarteko taldea aztertu da, lan egiteko legezko adina 16 urtetik gorakoa delako; emantzipazioari buruzko azterketan, ordea, 18 eta 34 urte bitarteko taldea aztertu da, 30 urte baino lehenago emantzipatzen diren gazteak oso gutxi direlako; eskola-uzte goiztiarra jorratzen denean, aldiz, 18 eta 24 urte bitarteko taldea aztertu da, Europako herrialde guztietarako estandarra baita.

Diagnostiko honetan jasotako informazioa zabaltzeko egin daiteke Gazteen Euskal Behatokiaren webgunera joz. Webgune horretan, lineako adierazle-sistema bat dago, bai eta Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketa guztien serie osoak ere, besteak beste, *Gazteen adierazleak. Euskadiko gazteen panorama*. Estatistika-eragiketa ofizial horretan 115 adierazle kontsulta daitezke gazteen errealitateari buruz.

1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA


Kapitulu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko gazte egoiliarrei buruzko datuak emango ditugu, besteak beste, ezaugarri soziodemografikoak eta biztanlerian hartzen duten pisua.

1.1. Gazteen indizea, hau da, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, biztanle guztiekin erkatuta, % 14,6 da, EBko batezbestekoa baino txikiagoa

1975ean, Euskadik 2.000.000 biztanleen muga gainditu zuen lehen aldiz, eta ordutik hona biztanleriaren hazkundea txikia izan da. Gazteen kopuruak, ordea, behera egin zuen modu jarraituan eta bizian, 2017. urtera arte. Urte horretan, 15 eta 29 urte bitarteko biztanle kopuruak behera jo zuen, eta 284.184 izan zen. Harrezkero, pixkanaka hasi da igotzen, eta 2023an gazteen kopurua 319.744 zen, 2011ko zifraren antzekoa.

1.1. grafikoa

15-29 urteko gazteen eta Euskadiko biztanleria osoaren bilakaera (absolutuak)




Iturria: Eustat (Biztanleen udal-estatistika)

15 eta 29 urte bitarteko kolektiboaren barne-egiturak, bost urtekako adin taldetan banatuta, banaketa homogeneo samarra erakusten du, nahiz eta talde handiena 15 eta 19 urte bitartekoena den: gazte guztien % 34,9 (111.517); jarraian, 20 eta 24 urte bitartekoak daude, gazteen % 33,1 (105.876); eta, azkenik, 25 eta 29 urte bitartekoak, gazteen % 32,0 (102.351). Hiru adin-talde horietan emakume baino gizon gehiago daude.

1.2. grafikoa

15-29 urteko gazteak, bost urteko adin-taldean eta sexuaren arabera, 2023an (absolutuak)




Iturria: Eustat (Biztanleen udal-estatistika)

Lurralde historikoen arabera, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 50,9 Bizkaian bizi dira (162.592 gazte, hain zuzen ere, 2023an), % 34,4 Gipuzkoan (109.984 gazte) eta gainerako % 14,8 Araban (47.168).

1.3. grafikoa

15-29 urteko gazteen bilakaera, lurralde historikoaren arabera (absolutuak)



Iturria: Eustat (Biztanleen udal-estatistika)


2021etik 2023ra gazteen kopuruaren igoera handixeagoa izan da Araban eta Gipuzkoan (5,4 eta 5,2 ehuneko puntuak, hurrenez hurren), Bizkaiko datuekin erkatuta (4,4 puntuko igoera).

Hala eta guztiz ere, termino absolutuetan, azken 20 urteotan (2003tik 2023ra) Arabako gazte kopuruan 15.268 gazte gutxiago daude; Gipuzkoan, 25.710 gutxiago; eta Bizkaian, 65.053 gutxiago.

Bilakaera negatibo horren ondorioz, gazteen indizea edo gazteen ehunekoa, biztanleria osoarekin erkatuta, gutxituz joan da eta 2017an kopururik txikiena osatu zen, % 13,1; harrezkero, pixkanaka igotzen joan da, eta 2023an % 14,6 izan da.

1.4. grafikoa

Euskadiko gazteen indizearen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuetatik abiatuta (Biztanleen Udal Estatistika)


Euskadiko gazteen indizea 1,3 puntu beherago dago, Espainiako batez besteko indizearen aldera (% 15,9). Honako hauen gainetik baino ez dago: Asturias (% 12,0), Galizia (% 12,9), Gaztela eta Leon (13,4 %) eta Kantabria (% 13,8).

Izan ere, Euskadiko biztanleen adina zaharrenetako bat da EB-27ko eremuan, non gazteen indizea % 16,2 baita, batez beste. Hala eta guztiz ere, EBko batezbestekoarekiko aldea gutxitzen ari da; 2023koa 1,6 da, eta 2010ean 3,2 izan zen. Gazte kopuruak, gainerako biztanle kopuruarekin erkatuta, 2010etik 2023ra behera egin du EBko herrialde guztietan, Herbehereetan izan ezik (han 0,5 puntu egin du gora).

2023ko datuei erreparatuz gero, EBko herrialde batean ere ez da lortzen biztanle guztien % 20 gazte izatea.

1.5. grafikoa

Euskadiko gazteen indizearen eta EBkoaren arteko alderaketa 2023an, herrialdeka (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eurostaten datuetatik abiatuta


Bestalde, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 64 urtetik gorakoen artean erlazio bat ezartzen badugu, datuek berriro ere erakusten digute gazteek pisu espezifikoak galdu dutela biztanleria osoan. 2017-2021 aldiarekin erkatuta zertxobait igo arren, 64 urtetik gorako 100 pertsonako 15-29 urteko gazteen ratioa hogeitaz lehenagokoa baino askoz ere txikiagoa da 2023an. 2003an 110,9 gazte zeuden 64tik gorako 100 pertsonako, baina 2023an 62,0 daude.

Gazteen indizearekin gertatzen den bezala, gazteen ratioa, 64 urtetik gorako 100 pertsonako, askoz ere txikiagoa da EAEn, Espainiako batezbestekoaren aldera (78,9). Honako hauek dira EAEko ratioa baino txikiagoa osatu duten autonomia erkidegoak: Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon eta Galizia. Horrek agerian uzten du Kantauri itsasoko ertzeko biztanleria Espainiako zaharrena dela.

2023an, 15 eta 29 urte bitartekoen ratioa, 64 urtetik gorakoekin erkatuta, 76,1 da, batez beste, EB-27ko eremuko herrialde taldean. Bulgariako ratioa soilik da EAEkoa baino txikiagoa.

1.6. grafikoa

Euskadiko 64 urtetik gorako 100 pertsonako 15-29 urteko pertsonen ratioaren eta EBkoaren arteko alderaketa 2023an, herrialdeka (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eurostaten datuetatik abiatuta

Emakumeen bizitza luzeagoa izaten denez, Euskadin 64 urtetik gorako 100 emakumeko, emakume gazteen ratioa (52,5) gizonen dagokiena baino txikiagoa da; 64 urtetik gorako 100 gizoneko 74,6 gizon gazte baitago.

1.7. grafikoa

64 urtetik gorako 100 pertsonako 15-29 urteko gazteen kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera (ratioa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuetatik abiatuta (Biztanleen Udal-Estatistika)

1.2. 2023an gazte atzerritarrek EAEko gazteen % 15,4 osatzen dute, orain arte jaso den ehunekorik handiena

2023an EAEn bizi diren gazte atzerritarrak ia 50.000 dira; zehazki, 15 eta 29 urte bitarteko 49.389 gaztek atzerriko nazionalitatea dute, egun arte osatu den zifrarik handiena.

Atzerriko nazionalitatea duten gazteek EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztien % 15,4 osatzen dute, serieko zifrarik handiena.


EAEn bizi diren atzerritarren artean, emakumeen eta gizonen proportzioa oso antzekoa da. Zenbaki absolutuetan 25.714 gizon eta 23.675 emakume daude 2023an.

Adin-taldeen arabera aldeak handiagoak dira; izan ere, EAEn bizi diren atzeritar gazteen erdiak (% 46,2) 25 eta 29 urte bitartekoak dira (22.831 gazte); gazteen % 32,9 (16.267 gazte) 20 eta 24 urte artekoa da eta gainerako % 20,8 (10.291) 15 eta 19 urte artekoa.

Bestalde, 15 eta 29 urte bitarteko atzeritar gazte horien erdiak baino gehiago (% 51,3) Bizkaian bizi dira (25.347), % 32,7 Gipuzkoan bizi dira (16.138) eta % 16,0 Araban bizi dira (7.904). Lurralde historikoen arabera banaketa eta EAEko gazte guztiena oso antzekoak dira.

1.8. grafikoa

Euskadin bizi diren 15-29 urteko biztanle atzerritarren bilakaera, sexuaren arabera
(absolutuak)




Iturria: Eustat (Biztanleen udal-estatistika)

Amerika da atzerriko gazte gehieneko jatorriko kontinentea; 2023an gazte atzerritar guztien % 52,7 osatu dute (26.026 pertsona); atzetik, Afrikakoek % 24,3 osatzen dute (11.988); Europarrek, % 15,9 (7.837); eta, azkenik, Asiakoek eta Ozeaniakoek % 7,2 osatzen dute (3.538).

1.9. grafikoa

Euskadin bizi diren 15-29 urteko biztanle atzerritarren bilakaera, jatorrizko kontinentearen arabera (absolutuak)




Iturria: Eustat (Biztanleen udal-estatistika)

Amerikatik etorritako gazteen ehunekoa gainerako jatorriko gazteena baino handiagoa izan da beti, baina 2023an serieko zifrarik handiena osatu da. Euskadin bizi diren gazte atzerritarren kopurua igo da 2023an, batez ere Amerikatik gazte gehiago etorri direlako.

Bestalde, atzerriko biztanleriaren gazteen indizeak erakusten du 15 eta 29 urte bitarteko gazteek atzerritar nazionalitateko pertsonen taldean osatzen duten ehunekoa. Indize hori, EAEko biztanle guztiena bezala, txikitu da 2010az geroztik. 2010ean EAEn bizi ziren atzerritarren % 32,0 gazteak ziren; eta 2023an, indize hori % 24,3 da. Edonola ere, EAEn bizi diren atzerritarren gazteen indizea ia 10 puntu handiagoa da, indize orokorrarekin erkatuta.

1.10. grafikoa

Euskadiko gazteen indize orokorraren eta atzerriko nazionalitatea dutenen gazteen indizearen bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuetatik abiatuta (Biztanleen Udal-Estatistika)

1.3. 2022ko migrazio-saldoa positiboa da, eta 15 eta 29 urte bitarteko 9.685 pertsona gehiago etorri dira, joan direnak baino. Migrazio gehienak atzerrian jaiotakoek osatu dituzte

2022ko immigrazioak eta emigrazioak aztertzen baditugu –hori baita azken datu erabilgarria–, behatzen dugu 15 eta 29 urte bitarteko gazteen migrazio-saldoa positiboa izan dela, eta igoera handia erakusten duela, 2020ko eta 2021eko datuekin erkatuta. Garai hartan bidaiatzeko aukerak mugatuta zeuden, COVID-19aren ondoriozko pandemiarengatik; hortaz, emigrazioek eta immigrazioek behera egin zuten. 2022an beste autonomia erkidego batzuetatik edo atzeritik 9.685 gazte gehiago heldu ziren EAera, EAetik emigratu zuten gazteekin erkatuta. Horrela, 2019ko datua gainditu da, eta egun arte hori izan da serieko daturik handiena.

1.11. grafikoa
15-29 urteko gazteen migrazio-saldoaren bilakaera (absolutuak)



Iturria: Eustat (Migrazio Mugimenduen Estatistika)

2022an zenbatutako 19.741 etorkin gazteen jatorri geografiko ohikoena atzerria izan zen: beste herrialde batzuetatik 15 eta 29 urte bitarteko 13.896 gazte heldu ziren EAera; horrek gazteen etorreraren % 70,4 osatzen du; eta gainerako % 29,6 beste herrialde batzuetatik etorri ziren.

Gazteen immigrazio guztien % 81,1 atzerrian jaiotakoek osatu dute, atzerritik zein beste autonomia erkidegoetatik etorritako gazteak kontuan hartuta. Zehatzago esanda, atzerrian jaiotako 15 eta 29 urte bitarteko 16.017 gazte izan dira.

Beste autonomia erkidego batzuetara emigratu dutenen ehunekoak 2022an gainditu ditu atzerriera egindakoak. Emigratu zutenen % 54,9 beste autonomia erkidego batzuetara joan ziren (8.150 gazte), eta % 45,1 atzerriera joan ziren (6.696).

Emigratu zutenen jaioterriari dagokionez, atzerritarrek emigrazioen % 59,4 egin zuten; EAEn jaiotakoek % 27,5 egin zuten; eta Espainiako beste autonomia erkidegoetan jaiotakoek % 16,4 egin zuten.

2022an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen migrazio-saldoa positiboa izan zen, bai Espainiako beste autonomia-erkidegoekin izandakoa (323 gazte), bai atzerriarekin izandakoa (9.362 gazte).


1.4. Lehen seme-alaba izateko emakumeen batez besteko adina 32 urtetik gorakoa da EAEn, eta gero eta emakume gutxiagok izan dute seme-alabaren bat 35 urte bete aurretik

EAEn, ia 20 urtez (2005etik orain arte), ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa izan da, eta 2022an, 32,4 urte izatera iritsi da.

EAEEn bizi diren ama atzerritarrek lehen seme-alaba izaten dute zertxobait gazteagoak direnean (27,5 urterekin, batez beste, 2022an), Espainiako nazionalitatea dutenekin erkatuta. Hala ere, emakume atzerritarrak ama izaten diren batez besteko adin hori ere urte bat geroratu da, 2005ean izaten zuten batez besteko adinarekin erkatuta.

1.12. grafikoa

Emakumeek lehen semea edo alaba izateko batez besteko adinaren bilakaera, amaren nazionalitatearen arabera (urteak)



Iturria: INE (Oinarrizko Adierazle Demografikoak)

Espainian ama lehen aldiz izateko emakumeen adina txikixeagoa da (31,6 urte). Galizian soilik da Euskadikoa baino handixeagoa (32,5 urte).

EB-27ko eremuan ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 29,7 urtekoa da, EAEkoa baino txikiagoa. Ama lehen aldiz izateko adin txikiena Errumanian jaso da: 27,0 urtekoa; eta handiena Italian (31,7 urtekoa). EAEEn ama lehen aldiz izaten direnean emakumeek duten batez besteko adina Italiakoa baino atzeratuagoa da.


Seme-alabak izateko adina geroratu, seme-alaba gutxiago jaiotzen dira. Ugalkortasun-tasa globalaren indizeak adierazten du zenbat haur jaiotzen diren urtean haurrak izateko adinean (15-49 urte) dauden 1.000 emakumeko. EAEEn, 2022an, ugalkortasun-tasa hauxe izan zen: 30,6 haur jaio ziren, 1.000 emakumeko. Balio hori nekez interpreta daiteke bera bakarrik ikusten bada, baina behar bezala ebaluatu daiteke European erregistratu diren tasekin erkatzen bada. Urte berean EB-27ko batez besteko balioa hauxe izan zen: 41 haur jaio ziren, seme-alabak izateko adineko 1.000 emakumeko. EAErekiko aldea lau puntutik gorakoa da, baina, gainera, EAEko tasa Espainiakoa baino txikiagoa da, eta Espainiako tasa txikiena da European, Espainian 31,7 haur jaio baitziren 15 eta 49 urte bitarteko 1.000 emakumeko urte horretan.

EAEEn emakume atzerritarrek Espainiako nazionalitateko emakumeek baino ugalkortasun-tasa askoz handiagoa izaten dute: 49,4 haur 1.000 emakumeko, eta 27,4 haur 1.000 emakumeko, hurrenez hurren, 2022an. Baina kasu bietan beherakada nabaria osatu da 2010etik aurrera.

Espainiako emakumeen kasuan, beherakada hori pixkanaka gertatu da, eta atzerritar emakumeen kasuan nabarmen areagotu zen 2010etik 2016ra; geroago, behera egiten jarraitu zuen, eta 2020tik 2021era beherakada handiena osatu da. Oro har, ugalkortasun-tasa globalak hamar puntu baino gehiago egin du behera EAEn 2010etik 2022ra.

1.13. grafikoa

Ugalkortasun-tasa globalaren bilakaera Euskadin, amaren nazionalitatearen arabera
(1.000 emakumeko tasa)



Iturria: INE (Biztanleriaren Berezko Mugimenduaren Estatistika)


Bestalde, 35 urtetik beherako emakumeek izan dituzten seme-alabei erreparatzen badiogu, ikus dezakegu azken 12 urteotan kopurua ia erdira murriztu dela: 12.157 izatetik 6.812 izatera aldatu da.

Beherakada handiena Espainiako nazionalitatea duten amen artean gertatu da; hala ere, 2022an Espainiako nazionalitateko emakumeen seme-alabek 35 urtetik beherako amek izandako jaiotze guztien % 60 osatu dute.

2022an, 35 urtetik beherako emakumeek izan dituzten seme-alabek urte horretako jaiotze guztien % 50,0 osatzen dute. Amaren nazionalitateari erreparatzen badiogu, 35 urtetik beherako espainiar emakumeen seme-alabek Espainiako nazionalitatea duten adin guztietako amek izandako jaiotzeen erdia baino gutxiago (% 42,9) osatzen dute. Horrek esan nahi du espainiar emakume gehienek 35 urte baino gehiago dituztenean erditzen dutela (lehenengo, bigarren edo ondorengo seme-alabak). Atzerritar nazionalitateko emakumeen kasuan, 35 urtetik beherako emakumeen seme-alaben jaiotzeek % 66,6 osatzen dute, atzerritar emakumeen seme-alaben jaiotze guztiekin erkatuta. Ehuneko horrek ere beherakada nabaria izan du, aurreko urteekiko.

1.14. grafikoa

35 urtetik beherako amen seme-alaben kopuruaren bilakaera, amaren nazionalitatearen arabera (absolutuak)




Iturria: Eustat (Jaiotzen estatistika)

1.5. Hamar gaztetik zazpik guraso izan nahi dute etorkizunean, baina haietako erdiek baino gehixeagok bakarrik uste dute nahi luketen adinean izango dituztela seme-alabak

2023an, EAEn bizi diren eta seme-alabarik ez duten 30 urtetik beherako gazteen % 68,6k adierazi du etorkizunean seme-alabak izan nahi dituztela (% 34,1ek gogo handia dute; % 34,5ek gogo handi samarra dute). Emakumeen eta gizonen artean ez da alderik behatu: gizonen % 64,8k eta emakumeen % 68,7k seme-alabak izan nahi dituzte etorkizunean.

1.15. grafikoa

Seme-alabarik ez duten baina etorkizunean izatea asko edo samar gustatuko litzaiekeen Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Seme-alabak eduki nahi dituzten gazteen ehunekoak 2015etik pixkanaka egin du behera, baina azken bi urteotan behera egiteko joera amaitu da, eta zertxobait igo da.

Inoiz seme-alabak izan nahi dituzten gazteek horretarako adin egokiena 30,2 urte dela esan dute. Emakumeek uste dute, batez beste, seme-alabak izateko adin egokiena 29,7 urte dela; gizonak, aldiz, uste dute 30,6 urte dela.

Adin hori geroratzen da adinak gora egiten duen heinean. Izan ere, 15 eta 19 urte arteko gazteek adierazi dute 29,3 urte betetzean seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeela; 20 eta 24 urte arteko gazteek adierazi dute 29,8 urterekin izan nahi dituztela; eta 25 eta 29 urte artekoek adierazi dute 31,6 urterekin izan nahi dituztela.


Ikus bezala, gustuko adin hori EAEn lehen seme-alaba izaten duten emakumeen benetako adinaren azpitik dago (32,4 urte, 2022an); hau da, emakumeek, batez beste, ama izateko egokientzat jotzen duten adina baino bi urte eta erdi geroago izaten dute beren lehen seme-alaba.

Seme-alabarik ez duten baina etorkizunean izan nahi duten gazteei galdetu zaie uste duten seme-alabarik izango duten gustatuko litzaiekeen adinarekin, eta % 56,0k baino ez du uste aukera asko edo aski daudela; % 39,6k uste du aukera gutxi daudela edo bat ere ez dagoela.

Lehen semea edo alaba nahi den adinarekin izango delako ustea ia 10 puntu jaitsi da 2017tik. 2017an, gazteen % 66,5ek uste zuen aukera asko edo aski zeudela; 2023an, aldiz, portzentaje hori % 56,0ra jaitsi da.

1.16. grafikoa

Seme-alabarik ez duten baina etorkizunean eduki nahi dituzten Euskadiko 15-29 urteko gazteen artean, beren lehen semea edo alaba egokien jotzen duten adinean izango dutela uste dutenen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

1.6. Gazte eta jaiotze gutxiko testuinguru demografiko baten ondorioak

EAEko biztanle gazteek osatzen duten ehuneko txikiaren ondorioak askotarikoak dira: lan-arloan, ekoizpen-ehunean, asistentzia-sisteman, gizarte-babesean, baita haien aldarrikapenak sustatzeko pisu politikoari dagokionez ere, besteak beste.

Gainera, joerak erakutsi digu jaiotzeen kopuruak behera egin duela, gazteek ez dutelako seme-alabarik izan nahi edo proiektu hori geroratzen delako eta, horrekin lotuta, seme-alaba gutxiago izaten direlako. Hala, seme-alaben kopurua jaisten ari den bitartean, emakumeen zein gizonen bizi-itxaropena 80 urtetik gorakoa izan da 2022an. Horren ondorioz, honelako etorkina aurreikusten da: biztanle gehienak adinekoak izango dira eta biztanleen piramidea alderantzizkoa izango da, eta horrek larriagotu egingo ditu gaur egungo arazo demografikoak.

Immigrazioak bultzatzen du gazteen hazkundea, EAEra atzeritik etortzen diren gazteen kopurua dela eta, baina baita ere emakume atzerritarren ugalkortasun-tasa handiagoa delako. Etorkinen pisua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ekarpen handiagoa egingo diote biztanleria gaztetzeari.

2. HEZKUNTZA

Kapitulu honetan gazteen prestakuntzari buruzko informazioa emango dugu: ikasketa-maila, hizkuntzak jakitea, gehien atsegin dituzten ikasketak, ikasketen arabera laneratzeara eta EAEko hezkuntza-sistemari buruz izaten duten iritzia.

2.1. Eskola-uzte goiztiarraren EAEko tasa txikia da, EBko batezbestekoa baino txikiagoa


Azken hamarkadan gora egin du ikasketa arautuak egiten dituzten 16 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoak. 2023an % 47,4 osatu du, 2012an hasitako serieko baliorik handiena.

20 urtetik beherako ia gazte guztiek prestakuntza arautua egiten dute (% 92,3k). 20 eta 24 urte arteko gazteen ia erdiek (% 47,6k), eta 25 eta 29 urte artekoen % 7,9k soilik.

Datu horiek EUSTATEN Jardueraren Araberako Inkestatik hartu dira, eta prestakuntza arautuko ikastaroak egiten dituzten gazteen ehunekoa adierazten dute. Gazte horiek ez dute lanik egiten, edo astean 20 orduz baino gutxiagoz lan egiten dute; beraz, ikastea dute okupazio nagusi.

2.1. grafikoa

Araututako ikasketak egiten ari diren 16-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Eustat, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BJA)


Biztanleen prestakuntza-mailari buruzko oinarritzko adierazleetako bat eskola-uzte goiztiarraren tasa da; tasa horrek hauxe adierazten du: 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen zer ehunekok bukatu duen gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta inkestaren aurreko lau asteetan ez duen inolako ikasketarik edo prestakuntzarik egin.

Eskola-uzte goiztiarraren EAEko tasa % 6,7 izan da 2023an. Tasa horren bilakaera oso positiboa izan da, 2010eko datuekin erkatuta (% 13,1); hala ere, 2023an, tasa hori zertxobait igo da, 2021eko eta 2022ko datuekin alderatuta.

2021. urtea alde batera utzita (urte horretako datuak ezohikoak izan baitziren), serie osoan gizonen tasa emakumeena baino handixeagoa izan da, hau da, gizon gehiagok behar baino lehenago uzten dute eskola, emakumeen datuekin erkatuta.

2.2. grafikoa

Eskola-uzte goiztiarraren tasaren bilakaera 18 eta 24 urte bitarteko populazioan, sexuaren arabera (%)




Iturria: Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestako (HHE) datuetan oinarrituta

Espanian EAEk eta Nafarroak dituzte eskola-uzte goiztiarraren tasarik txikienak: % 6,7 eta % 6,5, hurrenez hurren. Espainiako batezbestekoa % 13,7 da.

Eskola-uzte goiztiarraren EAEko tasa EB-27ko eremuko batezbestekoaren azpitik dago (azken hori % 9,5 da).

2.3. grafikoa

Euskadiko 18-24 urteko biztanleriaren eskola-uzte goiztiarraren tasaren eta EBkoaren arteko alderaketa 2023an, herrialdeka (%)



Iturria: Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestako (HHE) eta Eurostaten (Youth data) datuetan oinarrituta

Bestalde, PISA probaren emaitzek erakusten dute EAEko bilakaera negatiboa izan dela (ELGAK mundu osoan egiten du proba hori, 15 urteko gazteek irakurmenean, matematiketan eta zientzietan dituzten konpetentziak eta ezagutza aplikatuak neurtzeko). Izan ere, 2022ko emaitzak inoizko baxuenak izan dira, 2003az geroztik.


Beherakada handiena matematikako konpetentzian gertatu da. Hala ere, ELGAKo batezbestekoa baino 10 puntu handiagoa da, Espainiako batezbestekoa baino 9 puntu handiagoa; eta EBko batezbestekoa baino 8 puntu handiagoa.

Zientzietako konpetentziako beherakada ez da hain handia izan, 2018ko emaitzekin erkatuta (urte horretan izan zen aurreko neurketa), baina EAEko emaitza Espainiakoa baino 5 puntu beherago dago, eta EBkoa baino 4 puntu beherago.

Azkenean, irakurmeneko konpetentziak 9 puntu egin du behera, 2018ko puntuazioarekin erkatuta. Emaitza baxuena eskuratu da konpetentzia horretan, aztertu diren hiru eskumenen artean. Euskadiko emaitza ELGAko batez bestekoa baino 10 puntu txikiagoa da, EBko emaitza baino 9 puntu txikiagoa eta Espainiako emaitza baino 8 puntu beherago dago.

2.4. grafikoa

PISA probetan Euskadin erregistratutako balioen bilakaera zientziarako, irakurketarako eta matematiketarako gaitasunetan (puntuak)



Iturria: PISA txostena 2022

2.2. Hogeita hamar eta hogeita hamalau urte bitarteko hiru pertsonatik bik goi-mailako ikasketa-tituluak dituzte, EBko emaitza baino hogeit puntutik gora


EAEko gazteen prestakuntza-maila altua da. Unibertsitate-ikasketak edo Lanbide Heziketako goi-mailako zikloko ikasketak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa % 64,8 izan da 2023an.

Goi-mailako prestakuntza-tasa askoz ere handiagoa da EAEn, Espainiako batezbestekoarekin erkatuta (% 50,6 da). Izan ere, hiru autonomia-erkidegotan baino ez da osatu % 60tik gorako tasa: Euskal Autonomia Erkidegoa lehenengo postuan dago, % 64,8rekin, ondoren, Kantabria dator (% 64,6), eta gero, Madril (% 61,0).

EAEko tasa EB-27ko eremuko batezbestekoa (% 43,9) baino altuagoa da, eta Zipreko 30 eta 34 urte arteko goi-mailako tituludun tasak soilik gaingitu du EAEko tasa (Ziprekoa % 66,1 baita).

2.5. grafikoa

Euskadiko 30-34 urteko biztanleriaren goi-mailako prestakuntza-tasaren eta EBkoaren arteko alderaketa 2023an, herrialdeka (%)




Iturria: Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestako (HHE) eta Eurostaten (Youth data) datuetan oinarrituta

Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako ikasketa-tituluak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehuneko handienak 2022an eta 2023an izan dira.

30 eta 34 urte bitarteko emakumeen ehunekoak beti izaten dira gizonenak baino handiagoak, hirugarren mailako tituluei dagokienez. Gainera, emakume gazteen ildoak gizonena baino egonkorragoa izaten da beti.

2.6. grafikoa

30-34 urteko pertsonen goi-mailako prestakuntza-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestako (HHE) datuetan oinarrituta

2.3. Unibertsitatean gizon baino emakume gehiago daude, baina Zientzia eta Teknologiako graduren bat osatu dutenen % 33,1 baino ez dira emakumeak

Goi-mailako prestakuntzan sartzen dira, bai goi-mailako Lanbide Heziketa, baita unibertsitateko ikasketak ere. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitate- gradu-ko edo masterreko ikasketetan matrikula egiten duten ikasleen ehunekoa lanbide-heziketako goi-mailako gradu-ko edo espezializazio-ikastaroetan matrikula egiten dutenena baino askoz ere handiagoa da. 2021-2022 ikasturtean 65.807 ikaslek egin zuten matrikula EAEko unibertsitateetan, 58.998k gradu batean eta 6.809k master ofizial batean, eta 23.859k lanbide-heziketako goi-mailako gradu-ko edo espezializazio-ikastaro batean.


EAEko unibertsitate publikoetan zein pribatuetan emakume gehiago daude gizon baino. 2021-2022 ikasturtean EAEko unibertsitate bateko gradu-ko edo master-ikasketetan matrikula egin zutenen ehunekoari erreparatuta, ziurta dezakegu ikasketa-adar guztietan emakume gehiago daudela gizon baino, ingeniartzan eta arkitekturan izan ezik. Gradu- eta master-ikasketa ofizial guztiak kontuan hartuta, emakumeek ikasleen % 54,6 hartzen dute; baina ingeniartzako eta arkitekturako gradu-ko edo master-ikasketetan emakumeen ehunekoa % 28,9 da.

Lanbide-heziketako goi-mailako gradu-ko edo espezializazio-ikastaroetan, ordea, ikasle gehienak gizonak dira, eta emakumeek % 36,2 osatu dute 2021-2022 ikasturtean EAEn. Lanbide-heziketako goi-mailako gradu-ko (edo espezializazio-ikastaroetan) honako ikasketa hauek dira matrikula kopuru handiena (1.500 baino gehiago) biltzen dutenak: fabrikazio mekanikoa, informatika eta komunikazioak, administrazioa eta kudeaketa; elektrizitatea eta elektronikoa; gizarte eta kultur zerbitzuak; osasungintza; instalatze- eta mantentze-lanak. Honako adar

hauetan emakumeak nagusitzen dira: administrazioa eta kudeaketa, osasungintza, eta gizarte eta kultur zerbitzuak. Aipatutako beste lau adarretan emakumeek ez dute ikasleen % 15a ere osatu.

2.7. grafikoa

2021/2022 ikasturtean Euskadin unibertsitatean eta goi-mailako lanbide-heziketan matrikulatu ziren gizon eta emakumeak (absolutuak)




Iturria: Eustat (Eskola-jardueraren Estatistika)

STEAM eremuan¹ unibertsitate-ikasketak amaitzen dituzten ikasleei erreparatzen badiegu, Zientzia eta Teknologiako graduak amaitzen dituzten emakumeek gutxiengoa osatzen dute.

2.8. grafikoa

Zientzia eta teknologian graduatutako emakumeen ehunekoaren bilakaera, Euskadiko graduatu guztiekiko (%)



Iturria: Eustat (Unibertsitatearen Estatistika)

¹ STEAM akronimoa ingelesetik dator eta honako arlo hauetako ikasketak biltzen ditu: Science, Technology, Engineering, Arts, and Mathematics.

Zehazki, 2022an Euskadiko unibertsitateetan Zientzia eta Teknologiako gradu-titulua lortu zuten 35 urtetik beherako ikasleen % 33,1 emakumeak izan ziren. Ehuneko hori egonkorra izan da serie osoan.

Genero-rolen lotutako estereotipoak eta aurreiritziak oraindik ere agerikoak dira emakumeek eta gizonek aukeratzen dituzten ikasketetan.

2.4. Unibertsitateko ikasketak edota Lanbide-heziketako ikasketak bukatu ondorengo 2023ko laneratze-tasak inoizko handienak izan dira 2010etik

Prestakuntza akademikoa gero eta garrantzitsuagoa da lan egiteko; hala ere, tituluek ez dute bermatzen ikasketen lotutako lanik aurkitzea.

EAEko unibertsitateetan (UPV-EHU, Deustun eta Mondragon Unibertsitatean) 2023. urtearen aurreko hiru urteetan gradu-titulua lortu eta 2023an aktibo dauden okupazio-tasa % 92 da. Serieko baliorik handiena da hori, 2018koarekin batera.

Unibertsitateko titulua lortu duten gizonen okupazio-tasa emakumeena baino handixeagoa da (% 93 eta % 91 da, hurrenez hurren).

Urte berean, 2023an, Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako titulua osatu eta 12 hilabete geroago aktibo dauden artean, lanean ari direnen ehunekoa % 85 da, 2010ean hasi zen serieko ehunetik handiena. Nabarmentzekoa da, gainera, 2017tik igoera handia izan dela Lanbide Heziketako gradu bat osatu dutenen okupazio-tasan. Izan ere, 2009ko krisi ekonomikoak industriari eta eraikuntzari eragin zien neurri handian eta, ondorioz, sektore horiei lotutako lanei ere bai; hori zela eta, Lanbide Heziketako gradu bat amaitu zutenen % 70 baino gutxiago laneratuta zeuden 2010-2015eko aldian.


Lanbide Heziketako 2022ko promozioko gizonen eta emakumeen okupazio-tasak antzekoak izan dira 2023an: gizonena, % 85; emakumeena, % 84.

Lanbide Heziketako gradua 2022an amaitu eta 2023an galdetegia erantzun duten pertsonen % 72k ikasketen lotutako lana egiten dute. 2023ko galdetegia bete duten 2020ko promozioko unibertsitate-gradudunen % 76k ikasketen lotutako lana egiten dute.²

²Unibertsitateko edo Lanbide Heziketako ikasketak egin ondorengo laneratzeari buruzko informazio gehiago jasotzeko, Lanbideren Laneratze Estatistikei buruzko informazioa kontsultatu daiteke (linean). Helbide honetan eskura daitezke: <https://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estatistikak/> [Kontsulta: 2024-06-14an]

2.9. grafikoa

Laneratzeko-tasaren bilakaera unibertsitateko ikasketak amaitu eta hiru urtera eta Lanbide
Heziketa amaitu eta urtebeterra, aktibo dauden artean (%)




Iturria: Lanbide (Laneratzeari buruzko estatistikak)

2.5. Hiru gaztetik bik ondo hitz egiten dute ingelesez

Ingelesa dakiten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoak ia 40 puntu egin du gora azken 20 urteotan. 2004an gazteen % 28,6k adierazi zuen ingelesez ondo samar edo zuzen hitz egiten zuela; ehuneko hori % 66,5 da 2024an.

2.10. grafikoa

Ingelesaren ezagutzaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, lurralde historikoaren arabera (%)




Iturria: Eustat (Bizi-baldintzen Inkesta) eta Gazteen Euskal Behatokia

2024ko datuek ez dute ia alderik erakusten emakumeen eta gizonen artean (gizonen % 65,1ek eta emakumeen % 68,0k adierazi dute ingelesez ondo samar edo zuzen hitz egiten dutela). Lurralde historikoen arteko aldeak ia nuluak dira. Adinari dagokionez, zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da ingelesez ondo hitz egiten dutenen ehunekoa: 15 eta 19 urte artekoen % 71,2 da; 20 eta 24 urte artekoen % 67,8 da; eta 25 eta 29 urte artekoen % 60,1 da.

Ingelesa ezagutzen dutenen tasa igo denez, hiru hizkuntza (euskara, gaztelania eta ingelesa) menderatzen dituzten gazteen ehunekoak ere gora egin du. Tasa hori % 56,2 da 2024an, ia berrogei puntu handiagoa, 2004ko ehunekoarekin erkatuta. Gipuzkoa batezbestekotik gora dago (% 60,6), euskara dakitenen kopurua handiagoa delako; eta Arabako ehunekoa, berriz, batezbestekotik behera dago (% 50,0).

2.11. grafikoa

15-29 urteko gazte hirueledunen ehunekoaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Eustat (Bizi-baldintzen Inkesta) eta Gazteen Euskal Behatokia

Hirueledunen tasa kalkulatzeko, ingelesa kontuan hartzen da, EAEn gehien hitz egiten den atzerriko hizkuntza delako, baina 2024an gazte batzuek beste hizkuntza batzuk ere ondo samar edo zuzen hitz egiten dituzte. Honako hauek dira ezagunenak: frantsesa (gazteen % 10,4k daki frantsesez ondo hitz egiten); alemana (% 2,9); portugaleria (% 1,7), italiera (% 1,6) eta arabiera (% 1,3). Bestalde, gazteen % 2,0k ondo hitz egiten du katalanez eta % 0,7k galizieraz.

2.6. Gazteen erdiak baino gehiago joan dira atzerrira ikasketak egitera, hizkuntzak ikastera edo ikertzera


2024an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,2k adierazi du inoiz atzerrira joan dela hizkuntzak ikastera edo hobetzera. Bestalde, % 36,0k adierazi du atzerrira joan dela ikasketak egitera edo eskolako edo unibertsitateko truke-programetan parte hartzera. Horrez gain, % 9,3k

adierazi du inoiz atzerrira joan dela ikasketa-praktikak egitera edo ikertzera, ikerketa-beka bati esker. Guztira, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen erdiek baino zertxobait gehiagok (% 53,7k) adierazi dute atzerrian egonaldiren bat egin dutela ikasketei lotutako hiru arrazoi horietatik edozeinengatik.

2024ko ehunekoak eta 2020an zein 2022an adierazitakoak oso antzekoak dira, baina nabarmen hasi dira, 2016ko emaitzen aldera, aztergaitzat hartu diren hiru arrazoi horiei dagokienez. Atzerrira joan diren gazte kopurua 2016tik 2024ra ia bikoiztu da.

2.12. grafikoa

Ikasketak egitera, hizkuntzak ikastera, ikasketa-praktikak egitera edota ikertzera atzerrira irten diren gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2024ko datuei erreparatzen badiegu, ikusten dugu emakumeen ehunekoak gizonenak baino handiagoak direla: 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 57,2k adierazi dute inoiz atzerrira joan direla hizkuntzak ikastera, ikasketak egitera, truke-programetan parte hartzera, ikasketa-praktikak egitera edo ikertzera. Adin-tarte bereko gizonen ehunekoa % 50,4 da.

2.7. Euskal hezkuntza-sistemari buruzko iritzia positiboak behera egin du


EAEko gazteen % 44,2k uste du EAEko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela. Bestalde, % 31,5ek ez du ez iritzi onik eta ez txarrik ere, eta gainerako % 21,8k uste du nahiko txarra edo oso txarra dela.

Zehatzago esanda, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek dute hezkuntza-sistemari buruzko iritzirik txarrekoa; haietatik % 37,6k baino ez diote ondo irizten. Aitzitik, 20 eta 24 urte bitarteko gazteek dute EAEko hezkuntza-sistemari buruzko baloraziorik positiboena (% 49,3k uste du ona dela).

EAEko hezkuntza-sistemari buruzko iritzi ona nabarmen areagotu zen 2000tik 2016ra, baina harrezkero beherako joera izan du. 2020ko beherakada COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioa izan liteke, aurrez aurreko eskolak eten zirelako eta lineako eskoletara moldatu behar izan zutelako, edo praktikak zein ikasketa-trukeak ezin izan zituztelako egin, baina 2024an ez da ezohiko inguruabarrik gertatu, beherakada azaltzeko. Nahiz eta hezkuntza-sistemari buruzko iritzi ona duten gazteen ehunekoa handiena izan, serieko txikiena da, 2000. urteko ehunekoarekin batera.

2.13. grafikoa

Euskadiko gazteek euskal hezkuntza-sistemari buruz duten iritziaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2.8. Gazteen hezkuntza-ibilbidearen ondorioak

EAEko gazte gehienek goi-mailako prestakuntza lortzen dute. Eskola uzte goiztiarraren tasa Europako batezbestekoa baino txikiagoa da; aitzitik, goi-mailako titulua duten gazteen ehunekoa EBko batezbestekoa baino handiagoa da Euskadin. Hezkuntza-maila altu horren ondorio bat helduagoak laneratzea da.

Goi-mailako ikasketen artean, gazte gehiagok, batez ere, emakume gehiagok aukeratzen dute unibertsitatean ikastea, Lanbide Heziketako gradu bat egitea aukeratzen dutenen aldean. Bai unibertsitatean, baita goi-mailako lanbide-heziketan ere, ezagutza-arloen arteko banaketa desorekatu samarra da. Emakumeek ez dute teknologia hainbeste atsegin, eta hobeto irizten diete osasunari, gizarte-zientzei zein zuzenbideari lotutako ikasketak egiteari. Horren ondorioz, industrian eta eraikuntzan lan egiten duten gehienak gizonak dira.

Hizkuntzen gaineko ezagutzak nabarmen handitu dira, eta hiru gaztetatik bik adierazi dute ingelesez ondo hitz egiten dutela. Horrez gain, gazteen erdiek baino gehiagok ikasketei lotutako egonaldi bat izan dute atzerrian. Hala eta guztiz ere, oraindik ere asko falta da gazte guztiak hirueledunak izateko.

3. ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

Lanari dagokionez, prestakuntza-mailak askotan baldintzatzen du gazteen enplegu-egoera. Ikasketa batzuek beste batzuek baino gehiago laguntzen dute lana aurkitzen. Horrez gain, gazteek ikasketak osatzen denbora gehiago ematen badute, geroago sartuko dira erabat lan-merkatuan.

Bestalde, enpleguaren kalitateak eta ordainsariek nabarmen baldintzatzen dituzte gazteen egoera ekonomikoa eta emantzipazio-aukerak, beste iturri ekonomiko batzuk izan ezean. Gai hori hurrengo atalean jorratuko dugu.


Enpleguari eta egoera ekonomikoari buruzko kapitulu honetan gaztarotik helduarora igarotzeari lotutako funtsezko alderdiak jorratuko ditugu. Dena den, egoera hobeto ulertze aldera, gazteen hezkuntza eta prestakuntza-maila kontuan hartzeaz gain, haien lan- eta ekonomia-egoeratik eratortzen diren ondorioak ere kontuan hartu behar dira.

3.1. 2023an 16 eta 29 urte arteko pertsonen erdiak inguru daude lanean edo lan egiteko prest

Gazteen jarduera-tasak lan egiten duten edo lan egiteko prest dauden (hau da, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egin duten) 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa neurtzen du. Tasa hori 2023an % 49,1 da, gazte guztiak kontuan hartuta. Dena den, alde nabarmena dago 25 urtetik beherakoen eta 25-29 urtekoen artean. 25 urte bete aurretik, gazte gehienak ikasten ari dira, beraz, jarduera-tasa % 30,0 da; 25 eta 29 urte bitartekoaren artean, ordea, tasa hori % 84,2 da.

3.1. grafikoa

16-29 urteko gazteen jarduera-tasa 2023an, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

Hezkuntzari buruzko atalean adierazi bezala, emakumeek maila handiagoko hezkuntza-tituluak lortzen dituzte, beraz, denbora gehiago ematen dute ikasten. Horren ondorioz, ikasi bitartean lan egiteko prestasun txikiagoa dute, beraz, emakumeen jarduera-tasa gizonena baino txikiagoa da (tasa horiek % 46,9 eta % 51,2 dira, hurrenez hurren).


Aldeak bereziki handiak dira 25 urtetik gorakoen eta beherakoen artean: 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 30,0 baino ez daude lan egiteko moduan; 25 eta 29 urte artean, ordea, % 84,2koa da jarduera-tasa.

Adierazle horren bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusten dugu gazteen jarduera-tasa % 50 baino txikiagoa izan dela 2016tik.

EAEko biztanle guztien jarduera-tasa % 56,2 izan da 2023an. Edonola ere, tasa orokor horrek egonkor samar jarraitu du aztertutako seriean, eta urte horietan guztietan % 55 eta % 58 artekoa izan da.

3.2. grafikoa

16-29 urteko gazteen eta 16 urtetik gorako biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

EAEko gazteen jarduera-tasa Espainiako gazteen batezbestekotik puntu bat beherago dago (% 50,3), eta Europako batezbestekoa baino zazpi puntu txikiagoa da (% 56,0). Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago Europako gazteen jarduera-tasa oso bestelakoa dela, herrialdea zein den. EBN 2023an tasarik handiena Herbehereetan osatu da; eta txikiena, Bulgarian eta Errumanian. Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera-tasa eta Europako ekialdeko eta hegoaldeko herrialdeetakoak antzekoak dira.

3.3 grafikoa

15-29 urteko pertsonen jarduera-tasaren alderaketa EBn 2023an, herrialdeka* (%)



*Oharra: Euskadiko jarduera-tasa 16 urtetik aurrera kalkulatzen da, hori baita lan egiteko gutxieneko adina; Eurostatek, aldiz, 15 urtetik aurrerako datuak ematen ditu.


Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA) eta Eurostat (Data: Labour Market)

3.2. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasa 2023an igo da; eta handiena da 2012tik

2023an 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,0k enplegua dute. Lan egiten zuten gazteen ehunekoa % 43tik beherakoa izan da 2011tik. Igo arren, tasa hori oraindik urrun dago 2009ko krisi ekonomiaren aurretik jaso ziren zifretatik. Gainera, 2007an eta 2008an izan ezik, gazteen okupazio-tasa askoz ere txikiagoa izan ohi da 16 urte edo gehiago dituzten biztanleena baino.

3.4 grafikoa

16-29 urteko gazteen eta 16 urtetik gorako biztanleen okupazio-tasaren bilakaera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

Jarduera-tasarekin gertatzen den bezala, gizonen okupazio-tasa emakumeena baino handixeagoa da (% 44,6 eta % 41,3, hurrenez hurren, 2023an). 25 urtetik beherako eta gorako gazteen arteko aldea, ordea, oso handia da: 16 eta 24 urte arteko gazteen laurdenek lan egiten dute (% 24,7k), eta 25 eta 29 urte artean dituztenen hiru laurdenek enplegua dute (% 76,4k).

3.5. grafikoa

16-29 urteko gazteen okupazio-tasa 2023an, sexuaren eta adinaren arabera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin erkatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan txikiagoa da enplegua duten gazteen ehunekoa. Europar batezbestekoa baino 6,7 puntu txikiagoa da, eta honako hauek dira EAEko ehunekoa baino ehuneko txikiagoa duten herrialdeak: Eslovakia, Espainia, Bulgaria, Errumania, Grezia eta Italia. Berriri ere, Herbehereak lehenengo postuan daude EBn.

3.6. grafikoa

15-29 urteko gazteen okupazio-tasaren alderaketa EBn 2023an, herrialdeka* (%)



*Oharra: Euskadiko okupazio-tasa 16 urtetik aurrera kalkulatzen da, hori baita lan egiteko gutxieneko adina; Eurostatek, aldiz, 15 urtetik aurrerako datuak ematen ditu.

Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA) eta Eurostat (Data: Labour Market)

3.3. Langabezia-tasak behera egiten jarraitzen du, eta 2008ra joan beharra dago halako tasa txikia aurkitzeko


Langabezia-tasak adierazten du zenbat pertsona, kasu honetan 16 eta 29 urte bitartekoak, dauden langabezian, adin-tarte bereko biztanle aktiboaren aldean (aktiboek lan egiten dute edo lan egiteko prest daude eta aktiboki lan bila ari dira, hau da, inkesta egin aurreko lau asteetan ekintza edo gestioaren bat egin dute lana bilatzeko). Zehazki, 16-29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa % 12,6 izan zen 2023an.

2020az geroztik, gazteen langabezia-tasak pixkanaka egin du behera, eta 2023an osatu da 2009-2023 aldiko tasarik txikiena. Hori dela eta, 2009ko krisiaren aurreko urteetara itzuli behar da gaur egungo tasa baino tasa txikiagoak aurkitzeko.

Gainera, 16 urtetik gorako biztanleria orokorra aztertuta, tasa are txikiagoa da, baina gazteekiko aldea murriztu da (2013an alderik handiena osatu zen, eta ehuneko 14 puntura iritsi zen). 2023an 5 puntuko aldea dago.

3.7. grafikoa

16-29 urteko gazteen eta biztanleria osoaren langabezia-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

EAEko gazteen 2023ko langabezia-tasa Europako batezbestekotik gora dago (puntu bat eta lau dezima gorago), baina urrun dago Espainiako eta Greziako tasetatik, azken horiek % 20tik gorakoak baitira.

2023an Alemania da gazteen langabezia-tasarik txikiena duen EBko herrialdea.

3.8. grafikoa

15-29 urteko gazteen langabezia-tasaren alderaketa EBn 2023an, herrialdeka* (%)




*Oharra: Euskadiko okupazio-tasa 16 urtetik aurrera kalkulatzen da, hori baita lan egiteko gutxieneko adina; Eurostatek, aldiz, 15 urtetik aurrerako datuak ematen ditu.

Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA) eta Eurostat (Data: Labour Market)

2023an gizon gazteen langabezia-tasa emakumeena baino handixeagoa da, nahiz eta aldea bereziki handia ez izan (% 13,0 eta % 12,0, hurrenez hurren). Bestalde, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa baino handiagoa da 16 eta 24 urte bitartekoena (% 9,3 eta % 17,5, hurrenez hurren).

3.9. grafikoa

16-29 urteko gazteen langabezia-tasa 2023an, sexuaren eta adinaren arabera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

3.4. Behin-behinekotasunaren tasa nabarmen jaitsi da, baina 2023an oraindik ere 30 urtetik beherako soldatapeko gazteen ia erdiei eragiten die

Behin-behinekotasunaren tasak erakusten du soldatapeko zenbat pertsonak duten aldi baterako kontratua, adin-tarte bereko soldatapeko guztien aldean. Hogeita hamar urtetik beherakoen artean % 46,0koa izan da tasa 2023an. 16 urte eta gehiago dituzten soldatapekoen artean % 21,4 da tasa hori.

3.10. grafikoa

16 eta 29 urte bitarteko soldatapekoen eta 16 urte eta gehiagoko soldatapekoen behin-behinekotasunaren tasaren bilakaera Euskadin (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

EAEko soldatapeko gazteen behin-behinekotasunari lotuta 2023an osatu den tasa txikiena da, 2012tik. Izan ere, 2022koa baino ia hamar puntu txikiagoa da, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua (lan-erreformarako, enplegu-egonkortasunaren bermerako eta lan-merkatuaren eraldaketarako premiazko neurriena) abenduaren 31n indarrean hasi ondoren. Dekretu horrek aldez aurretik indarrean zegoen aldi baterako kontratazioaren erregulazioa aldatzen du, eta lan-kontratuak mugagabea izan behar duelako presuntzioa indartzen du. Hala ere, EAEko gazteen behin-behinekotasunaren tasa Europar Batasuneko tasa handienetakoa da.

3.11. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko soldatapekoen behin-behinekotasunaren tasaren alderaketa EBn
2023an, herrialdeka* (%)




*Oharra: Euskadiko okupazio-tasa 16 urtetik aurrera kalkulatzen da, hori baita lan egiteko gutxieneko adina; Eurostatek, aldiz, 15 urtetik aurrerako datuak ematen ditu.

Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA) eta Eurostat (Data: Labour Market)

Euskal Autonomia Erkidegoan gizon gazteen behin-behinekotasun tasak emakumeenak baino txikiagoak dira (Europako batezbestekoan ere joera bera osatu da, nahiz eta aldea hain handia ez izan). 25 urtetik beherako soldatapekoek ere behin-behinekotasun tasa handiagoak dituzte, 25 eta 29 urte bitartekoekin erkatuta.

3.12. grafikoa

16 eta 29 urte bitarteko soldatapekoen behin-behinekotasun tasa 2023an, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)


3.5. Lanaldi partzialeko enplegu-tasa % 30etik gorakoa da, eta emakumeena gizonena baino askoz ere handiagoa da

Lanaldi partzialeko enplegu-tasak erakusten du lanaldi partzian edo lanaldi murriztuan modu jarraituan lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Tasa hori oso gutxi aldatu da azken urteotan. Gazte landunen herenek lanaldi partzialeko enplegua dute (% 32,9, zehazki, 2023an).

Lanaldi partziala duten gazteen ehunekoak bikoiztu du enplegu jarraitua duten 16 urtetik gorako biztanleen artean jasotakoa.

3.13. grafikoa

Lanaldi partzialeko enplegu-tasaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean eta enplegu jarraitua duten 16 urtetik gorako Euskadiko biztanle okupatuen artean * (%)




Oharra: ez dugu 2016a baino lehenagoko daturik

Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmena da gizon eta emakume gazteen arteko aldea. Enplegu jarraitua duten emakumeen % 42,9k du lanaldi partziala; gizonen kasuan, berriz, % 24,0k. Arrail hori sakondu egin da azken urtean. Gizon gazteen tasa txikiagotu da, baina emakume gazteen kasuan, 2023ko datua aztertutako serieko daturik handiena da. Halaber, 25 urtetik beherako gazteen artean serieko daturik handiena osatu da (% 48,0); aitzitik, 25 eta 29 urte dituztenen artean zertxobait jaitsi da (2023an, % 23,6 da). Beraz, adinaren arabera arrail handiena osatu da 2023an.

3.14. grafikoa

Enplegu jarraitua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen lanaldi partzialeko enplegu-tasa 2023an, sexuaren eta adinaren arabera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

Euskal Autonomia Erkidegoan lanaldi partziala duten gazteen 2023ko ehunekoa Espainiakoa eta Europar Batasuneko baina handiagoa da.

3.15. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko landunen lanaldi partzialeko enplegu-tasaren alderaketa EBn 2023an, herrialdeka* (%)



*Oharra: Euskadiko lanaldi partzialeko enplegu-tasa 16 urtetik aurrera kalkulatzen da, hori baita lan egiteko gutxieneko adina; Eurostatek, aldiz, 15 urtetik gorako datuak ematen ditu.

Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA) eta Eurostat (Data: Labour market)


Tamalez, ez dakigu lanaldi partzial horietatik zeintzuk modu boluntarioan eskatu diren. Herbehereetan lanaldi partziala duten gazteen ehuneko handiena osatu da, eta hor lanaldi murriztua duten gazteen % 1,7k soilik adierazi du beren borondatearen aurka egiten duela.

3.6. Hamasei eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazte gehienek zerbitzu-sektorean jarduten dute

2023an EAEko 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen % 79,4k zerbitzuen sektorean jarduten du, eta ehuneko horrek 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen batezbestekoa gainditzen du (% 73,3). Azken urteotan zerbitzu-sektorean jarduten duten gazteen ehunekoa % 75etik gorakoa izan da beti.

3.16. grafikoa

Zerbitzuen sektorean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen eta 16 urte eta gehiagoko Euskadiko biztanleria landunaren ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

Zerbitzu-sektorean emakume gehiagok lan egiten dute (% 91,4k), gizonek baino (% 68,6k). Industria-sektorean, eraikuntzan eta lehen sektorean, ordea, gizon gehiago daude.

3.17. grafikoa

Zerbitzuen sektorean lan egiten duten Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko emakume eta gizon landunen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, BJA)

3.7. Hoge eta hogeita bederatzi urte arteko gazte gutxi dira langile autonomoak edo enpresaburuak, nahiz eta adin-tarte horretako gazteen erdiek negozio bati ekitea pentsatu izan duten

20 eta 29 urte arteko gazte landunen artean, % 4,2k jarduten dute beraien kontura, hau da, langile autonomo edo enpresaburu gisa 2023an. 16 eta 64 urte bitarteko biztanle okupatu guztien ehunekoa (% 12,9) baino txikiagoa da hori.

3.18. grafikoa

20 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren eta 16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatuaren norberaren konturako enplegu-tasaren bilakaera* (%)




*Oharra: 16-64 urteko biztanleria okupatuari dagokionez, ez dugu 2013a baino lehenagoko daturik
Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Lan eta Enplegu Saileko datuetan oinarrituta (Lan Merkatuaren Errolda, LME)

20 eta 29 urte arteko gazte landunen artean, beraien kontura lan egiten dutenen tasa ez da iristen % 10era aztertutako serieko urte batean ere, ezta gizon gazteen artean ere (gizon gazteen artean langile autonomo edo enpresaburu gisa lan egiten dutenen ehunekoa emakumeena baino handiagoa izan ohi da).

3.19. grafikoa

Euskadiko 20 eta 29 urte bitarteko emakume eta gizon landunen norberaren konturako enplegu-tasaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Lan eta Enplegu Saileko datuetan oinarrituta (Lan Merkatuaren Errolda, LME)

EAEko gazteen artean norberaren konturako enplegu-tasa Espainiakoa baino txikiagoa da, eta adin-tarte bereko Europako gazteena baino are txikiagoa.

Europako ekialdeko eta hegoaldeko herrialdeetako gazteak ekintzaileenak dira. Herrialde horiek dira, besteak beste, Eslovakia, Polonia, Italia, Grezia, Txekiar Errepublika eta Lituania. Horiek guztiek % 10etik gorako tasak osatu dituzte 2023an. Aitzitik, Alemania eta Danimarka dira euren negozioa gutxien eratu duten gazteak (20 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen % 3 baino gutxiago).

3.20. grafikoa

20 eta 29 urte bitarteko landunen norberaren konturako enplegu-tasaren alderaketa EBN 2023an, herrialdeka (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Lan eta Enplegu Sailaren (Lan Merkatuaren Zentsua, LME) eta Eurostaten datuetan oinarrituta

Hala eta guztiz ere, 20 eta 29 urte bitarteko EAEko gazte ia erdiek (2024an % 48,5ek, zehatz-mehatz) adierazi dute inoiz ekiteko aukera planteatu dutela. Ehuneko horretan sartu dira jada langile autonomoak edo enpresaburuak direnak, iraganean norberaren kontura lan egin zutenak, nahiz eta gaur egun horrelakorik ez egin, eta ekintzaile izateko aukera benetan aztertu dutenak (gauzatu zein ez).


Ekiteko aukera aztertu duten 20 eta 29 urte arteko gazteen ehunekoa askoz ere handiagoa izan da 2022an edo 2024an, duela hogeitaz urteko emaitzaren aldean.

Orokorrean emakumeek baino gizon gehiagok hartzen dute kontuan beren kasa lan egiteko aukera. Alde nagusia aurten, 2024an, jaso da. Beren negozioa eratzea aztertu duten gizonen ehunekoa 10 puntu handiagoa da, emakumeen ehunekoarekin erkatuta.

Era berean, aztertutako aldi osoan zehar 25 eta 29 urte bitarteko gazteei dagokien ehunekoa handiagoa da, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoarekin erkatuta. Zehazki, ia 10 puntuko aldea osatu da 2024an (25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 53,2k eta 20 eta 24 urte bitarteko gazteen % 44,0k negozio bati ekiteko aukera aztertu dute).

3.21. grafikoa

Autoenplegua planteatu duten Euskadiko 20-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Lehentasunen harira, 2024an 20 eta 29 urte bitarteko gazteen herenek baino gutxiagok adierazi dute beren kasa lan egitea nahiago dutela (% 31,4k). Adin horretako pertsona gehienek adierazi dute, aukeratu ahal izanez gero, besteren kontura lan egingo luketela (% 60,8k). Gainerako % 7,8k ez dakite zer esan, edo ez dute iritzirik eman nahi izan. Emakumeek baino gizon gehiagok adierazi dute nahiago dutela beren kasa lan egin (% 36,7k eta % 25,7k, hurrenez hurren).

Bestalde, beren kasa lan egitea nahiago duten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak behera egin du, aurreko urtekoekin erkatuta.

3.22. grafikoa

Norberaren kontura lan egin nahi duten Euskadiko 20-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Horrenbestez, ondorioztatu dezakegu 2024an 20 eta 29 urte bitarteko gazteen % 48,5ek beren kasa lan egitea pentsatu izan dutela, baina, berez, % 31,4ri soilik gustatuko litzaioke bere kasa lan egitea; izan ere, adin-tarte horretako gazteen % 4,2k baino ez dute beren kasa lan egiten.

3.8. Unibertsitateko edo lanbideko ikasketa-titulua duten 16 eta 29 urte bitarteko hamar landun gaztetik zazpik beren prestakuntza erabiltzen dute lan-jardueran


2023an lanbideko edo unibertsitateko ikasketa-titulua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen % 71,2k adierazi du beren prestakuntza lan-jardueran erabiltzen duela. Ehuneko hori eta 2019. eta 2022. urteetakoak antzekoak dira.

Aztertu diren lau urteetan lanbideko edo goi-mailako ikasketa-titulua duten eta prestakuntza beren lan-jardunean erabiltzen duten gazteen ehunekoak handixeagoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasketa-maila bera izanda, 16 eta 64 urte bitarteko biztanle okupatu guztien ehunekoekin erkatuta.

Emakumeen eta gizon gazteen artean ez dago alde handirik, alderdi horri dagokionez. 2023an lanbideko edo unibertsitateko ikasketa-titulua duten gizon okupatuaren % 70,9k adierazi du ikasitakoa baliatzen dutela lan-jardueran. Ehuneko hori % 71,5 da emakumeen artean.

3.23. grafikoa

Lanbide-ikasketak edo unibertsitate-ikasketak dituzten 16-29 urteko eta 16-64 urteko landunen artean, beren prestakuntza lan-jardueran erabiltzen dutenen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Lan eta Enplegu Sailaren datuetatik abiatuta (Lan Merkatuaren Errolda, LME)

Bestalde, ikastea zeregin nagusi duten gazteen % 80k uste du ikasitakoari lotutako lan bat aurkituko duela. Azken hamar urteotan nabarmen igo da ikasitakoari lotutako lanbide bat aurkituko dutela uste duten gazteen ehunekoa: 2013an % 46 zen, eta 2023an % 80. Emakume gazteek baino gizon gazte gehiagok uste dute ikasitakoari lotutako lanbide bat aurkituko dutela.

3.24. grafikoa

Ikasketak amaitzean prestakuntzari lotutako lan bat aurkituko dutela aurreikusten duten 15-29 urteko ikasleen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

3.9. Batez besteko hileko soldata 1.500 eurotik gorakoa da, lehen aldiz, 2023an, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean


Euskadin, 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko batez besteko soldata garbia 1.566 eurokoa izan da 2023an, aparteko ordainsari hainbanatuak barne. Zenbateko hori serieko handiena da, eta, lehen aldiz, 1.500 euroko muga gainditu du, baina 2010arekin alderatuta, ordutik 142 euro baino ez da igo. Izan ere, batez besteko soldatak beheranzko joera izan zuen 2010 eta 2017 artean, aztertutako aldiko zifrarik txikiena erregistratu zuenean, 1.302 eurokoa izan baitzen batez besteko soldata 2017an. 2022ra arte ez zen gainditu 2010eko batez besteko zenbatekoa.

Bestalde, urte horietako Kontsumoko Prezioen Indizearen igoera, 2010eko urtariletik 2023ko Abendura, % 31,5koa izan da, Estatistikako Institutu Nazionalaren Kontsumoko Prezioen Indizearen aldakuntzen kalkuluaren arabera³. Horrek esan nahi du erosteko ahalmenaren galera handia dagoela soldatapeko gazteen artean, nahiz eta 2023ko soldata-igoera izan.

Emakumeek gizonak baino batez besteko soldata txikiagoak dituzte, betetzen duten lan-motak eta beren lanaldien partzialtasun handiagoak baldintzatuta, arrazoi nagusi gisa (ez eskusiboak). 2023an, emakume gazteek gizonak baino 175 euro gutxiago kobratu izan dute hilean.

3.25. grafikoa

Euskadiko 18-34 urteko soldatapeko gazteen hileko batez besteko soldata garbiaren bilakaera, sexuaren arabera (€)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

³ Estatistikako Institutu Nazionala (EIN-INE): Kontsumoko Prezioen Indizearen aldaketen kalkulua [linean]. Hemen eskuragarri (gatzelaniaz):

<https://www.ine.es/varipc/index.do?jsessionid=2B13C807F1538208758499D468F358A9.varipc03?L=0>
[Kontsulta: 2024-10-02]

18 eta 29 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata garbia 1.368 eurokoa da hilean, 2023an. Bestalde, 30 eta 34 urte bitartekoen batez besteko soldata 1.761 euro garbikoa da hilean.


3.10. Lan-istripuek askoz gehiago eragiten diete gizonei, emakumeei baino

Lan-istripuen indizeak hauxe adierazten du: 16 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen artean, baja eragin duten lan-istripuen kopurua, Gizarte Segurantzaren afiliatutako adin horretako 1.000 pertsonako. Lan-istripuen kopuru horretan kontuan hartzen dira bai lantokian, bai lanerako bidean gertatutakoak. Lan-istripuen indizeak nabarmen egin du behera, 2010eko datuekin erkatuta. 2023an 41,6koa da 1.000 landuneko, baina, 2010ean 56,4ko indizea osatu zen. Azpimarratu behar da aztertutako seriean bi beherakada nabarmentzen direla: bata 2011tik 2012ra, krisi ekonomikoaren ondorioz; eta bestea, 2019tik 2020ra, COVID-19aren pandemia zela eta (konfinamendua, enplegu-erregulazioko espedienteak...).

Lan-istripuen indizea askoz ere handiagoa da gizonen artean, emakumeekin erkatuta, besteak beste, industrian eta eraikuntzan gizon gehiagok lan egiten dutelako eta sektore horietan gertatzen direlako lan-istripu gehienak. Gainera, gizon gazteen laneko istripuen bilakaerak zerikusi handiagoa dauka egoera ekonomikoarekin eta enplegu-tasekin, emakumeena baino.

3.26. grafikoa

Gizarte Segurantzaren afiliatutako 16-34 urteko gazteen lan-istripuen indizearen bilakaera, sexuaren arabera (1.000 biztanleko tasa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen datuetan oinarrituta


3.11. Gazte landunek erdi mailako gogobetetasuna dute beren lanarekin, 10etik 6,5 da 2023ko emaitza

Eskatu zaienean 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunei lanarekiko gogobetetasuna 0tik 10era arteko eskala batean adierazteko, batez besteko puntuazioa 6,5 izan da 2023an. Puntuazio hori 2014. eta 2019. urte bitartekoa baino txikiagoa da.

Lanarekiko gogobetetasunari dagokionez, ia ez dago alderik emakumeen eta gizonen artean. Adinaren arabera taldeen artean ere ez dago alde nabarmenik.

3.27. grafikoa

16-29 urteko gazte okupatuen lanarekiko gogobetetze-mailaren bilakaera (0-10)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Lanarekiko batez besteko gogobetetasuna ez dator bat lanari emandako garrantziarekin, azken hori askoz ere handiagoa baita (0-10 arteko eskalan, 8,0 izan da 2023an).

3.12. Hamasei eta hogeita bederatzi urte bitarteko landunen % 39k uste du 2024an lana gal dezakeela edo lan-baldintzek okerrera egin dezaketela

Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskuak neurtzen du lana duten pertsonen artean zer ehunekok uste duen nahiko edo oso gertagarria dela urtebeteko epean lana galtzea edo lan-baldintzak okertzea.

2023ko abenduan, hau da, 2024. urteari begira, 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen % 39k adierazi du litekeena zela halakorik gertatzea. Zehatzago esanda, % 27k uste zuen enplegua galdu ahal zuela; eta % 12k uste zuen ez zela enplegua galtzearen beldur baina lan-baldintzek okerrera egiteko aukera zegoela.


Enplegua galtzeko edo baldintzek okerrera egiteko arriskua nabarmen jaitsi zen 2013tik 2018ra (batez ere, gizon gazteen artean), baina hurrengo urteetan gora egin zuen.

2023an ehuneko hori 2020-2022 aldikoa baino txikiagoa da, baina 2017 eta 2019 artean izandakoa baino handiagoa da.

Joera bera izan arren, eta enplegua galtzeko edo prekarizatzeko arrisku-sentsazioa une zehatz batzuetan handiagoa edo txikiagoa izan arren, emakume gazteek beti sentitzen dute enplegua galtzeko edo baldintzak okertzeko arrisku handiagoa, gizon gazteen aldean.

3.28. grafikoa

Urtebeteko epean lana galtzea edo lan-baldintzak okertzea oso edo nahiko litekeena dela uste duten 16-29 urteko gazte landunen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


3.13. Eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen % 72k espero du 2024an lana topatzea

2013an gazte langabeen erdiek baino gutxi gehiagok uste zuten lana topatuko zutela. Konfiantza nabarmen areagotu zen 2019a arte, baina 2020an, COVID-19aren pandemiak lan-merkatuan eragindako ondorioak zirela eta, lana topatzeko aukerak nabarmen jaitsi ziren gazte langabeentzat.

2022an eta 2023an ehunekoek gora egin dute, 2020. eta 2021. urteen aldean. Gaur egun, gazte langabeen % 72k espero dute lana aurten (2024an) topatzea. Emakume eta gizon langabeen artean ez dago alde handirik.

3.29. grafikoa

Urtebeteko epean lana aurkitzeko itxaropena duten 16-29 urteko langabeen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Bestalde, Lan-Merkatuaren Erroldaren 2023ko Inkestaren emaitzei erreparatzen badiugu, ikus dezakegu 16 eta 29 urte bitarteko langabeek lana topatzeko gehien erabiltzen dituzten baliabideak hauexek direla: Interneteko atariak (% 78,7k erabiltzen du) eta familiakoei zein lagunei galdetzea (% 70,1ek). Gainera, % 60,1ek sare sozialen bidez bilatu du lana, eta % 58,9k lan-bulego publikoetara jo du lana bilatzeko.

Erdiak baino gutxiago dira enpresaburuekin harremanetan jarri direnak (% 47,8), aldi baterako enpresen bidez edo bulego pribatuen bidez lana bilatu dutenak (% 40,4), bai eta erakunde publikoen edo enpresa pribatuen lan-poltsen bidez lana bilatu dutenak ere (% 27,8). Gainera, % 21,0k azterketa edo elkarrizketaren bat egin du kontratu bat lortzeko; % 17,6 lan-bulego baten deiaren zain dago; % 14,2k komunikabideetako lan-eskaintzak kontsultatu ditu; eta % 12,8 egindako eskaeraren edo oposizioen emaitzen zain dago. Lana bilatzeko gainerako baliabideak gazte langabeen % 10ek baino gutxiagok erabili ditu. Edonola ere, gazteek gutxien baliatzen duten aukera beren kasa lan egitekoa da: % 1,9 soilik dabil negozio bat eratzeke lokal, makina edo finantzaketa bila.

16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen eta 16 eta 64 urte bitarteko langabeen artean ez dago alde handirik, lana bilatzeko metodoei dagokienez. Hala ere, 16 eta 64 urte bitarteko langabeek gazte langabeek baino gehiago erabili dute familiako edo lagunen baliabidea (% 77,7k); izan ere, horixe da 16 eta 64 urte bitarteko langabeek gehien erabili duten metodoa, enplegu-atariak bisitatzeko (% 73,8k) baino gehiago. Bestalde, sare sozialak 16 eta 29 gazte langabeek baino gutxiago erabiltzen dituzte 16 eta 64 urte bitarteko langabeek, lana bilatzeko; ehunekoak % 60,1 eta % 51,0 dira, hurrenez hurren.

3.30. grafikoa

16-29 urteko langabeek aurreko lau asteetan lana bilatzeko erabili izan dituzten baliabideak, 2023an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Lan eta Enplegu Sailaren datuetatik abiatuta (Lan Merkatuaren Errolda, LME 2023)

2023an, gazte langabeei galdetu zaie, haien ustez, zein den oraindik lanik ez topatzeko arrazoi nagusia. Gazte langabeek, proposatutako arrazoi batzuen artean, gehien aukeratu dutena lan-eskarmenturik ez izatea izan da; zehazki, 16 eta 29 urte bitarteko hiru langabetik batek (% 34,6k) hori erantzun du.


Bigarren arrazoia –baina askoz ere gazte langabe gutxiagok aukeratua– haxe da: haien ikasketei lotutako lan bat bilatzen ari dira (% 8,5); eta hirugarren arrazoia prestakuntza-defizita eta merkatuaren eskaerak dira (% 8,0). Gainera, % 5,8k genero- edota etnia-diskriminazioa aipatu du (kontuan hartu behar da gazte langabeen % 16,8k atzerriko nazionalitatea dutela, eta % 5,7k, nazionalitate bikoitza).

Zerrendan proposatu diren beste arrazoi batzuk (adibidez, familia-zamak, hizkuntza-maila, espezializaziorik ez izatea eta abar) gutxiago aipatu dira (gazte langabeen % 5ek baino gutxiagok aukeratu ditu).

Aitzitik, 16 eta 64 urte bitarteko langabeek oztopo nagusia adina dela diote, enplegu-emaileek lanerako zeharregiak direla pentsatzen baitute; eta adinaren arrazoi hori eskarmenturik ez izatea baino neurri handiagoan aipatu dute.

3.31. grafikoa

Oraindik enplegurik ez aurkitzeko 16 eta 29 urte bitarteko langabeek eta 16 eta 64 urteko langabeek emandako arrazoi nagusien arteko alderaketa, 2023an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Lan eta Enplegu Sailaren datuetatik abiatuta (Lan Merkatuaren Errolda, LME 2023)

Lehen Aukera bezalako programa publikoak saiatzen dira gazteen eskarmenturik ezari aurrea hartzea, batez ere, gazteen lan-ibilbidearen hasieran; izan ere, *Lehen Aukera* programa 30 urtetik beherako langabeentzat pentsatuta dago⁴.

⁴*Lehen Aukera* programari buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikus: https://www.lanbide.euskadi.eus/lehen-aukera_eu/webplan00-ayudasysubvenciones/eu/ [Kontsulta: 2024-05-28]

3.14. EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 43,9k atzerrira migratuko lukete, lan interesgarria eskainiko baliote; % 9k soilik uste dute atzerrira joan behar izango dutela lan egitera, nahi izan ez arren

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko hiru gaztetik batek (% 32,9k) adierazi du, 2024an, edonora emigratzeko prest egongo litzatekeela, han lan interesgarria eskainiko baliote. % 11,0k adierazi du prest dagoela, baina Europako beste leku batera soilik. Guztira, gazteen % 43,9 prest daude atzerrira migratzera, lan-proiektua motibatzailea baldin bada.

Lan interesgarri baten truke, atzerrira migratzeko prest dauden gazteen ehunekoa nabarmen handitu zen 2009ko krisi ekonomikoaren ondorioz. Geroago, ekonomia berriro piztu arren, COVID-19ak eragindako pandemiaren erdian, 2020an, ehunekorik handiena jaso zen. 2024an atzerrira migratzeko joera 2011ko mailetara jaitsi da (batez ere, gaur egun gazte gutxiago prest baitaude munduko edonora bidaiatzeko). Bestalde, nabarmen hasi da zalantzak dituztenen ehunekoa (helmugaren, baldintzen edo inguruabar pertsonalen arabera zalantzak dira, besteak beste).

3.1. taula

Lan interesgarria eskainiz gero, bizilekua aldatuko luketen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)

(%)	2000	2004	2008	2011	2013	2015	2017	2020	2024
Bai, munduko edozein lekutara	22,5	21,6	21,5	36,9	39,2	39,6	37,9	41,5	32,9
Bai, Europako edozein lekutara	6,7	5,2	7,2	7,8	11,3	10,7	9,3	10,0	11,0
ATZERRIRA EMIGRATZEKO PRESTASUNA	29,2	26,8	28,7	44,7	50,5	50,3	47,2	51,5	43,9
Bai, Espainia barruan izanez gero	17,0	14,9	11,3	7,9	7,8	8,6	10,4	12,0	6,9
Bai, Euskadi barruan izanez gero	19,9	19,3	17,7	13,3	10,8	9,7	12,9	8,4	10,2
Bai, inguruko udalerri batera bada	8,3	7,0	13,4	5,8	5,9	6,1	5,7	3,0	5,2
Ez, inola ere ez	12,8	17,5	12,7	14,2	13,6	13,0	5,8	8,3	4,7
Ez zaude seguru, lekuaren arabera	11,0	12,7	14,1	12,4	8,7	9,6	16,3	15,7	27,7
Nahiago duzu ez erantzutea	1,8	1,7	2,2	1,7	2,7	2,6	1,8	1,2	1,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Emakume gazte baino gizon gazte gehixeago prest daude atzerrira migratzeko, lan interesgarri baten truke (% 41,4 eta % 46,2, hurrenez hurren).


Emigratzeko nahiaren kontrako muturrean migratzeko betebeharra dugu. 2023ko abenduan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9k uste zuen etorkizunean atzerrira migratu behar izango duela,

gogorik izan ez arren. Ehuneko horrek egonkor samar jarraitu du 2017tik, 2013. eta 2015. urte bitartean jasotako zifretatik behera.

Kasu horretan, emakumeen eta gizon gazteen arteko aldeak txikiak dira.

3.32. grafikoa

Derrigorrez emigratu beharko dutela uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

3.15. 2020tik 2024ra gora egin du funtzionario izateko oposizioak egitea pentsatu duten gazteen ehunekoak

2024an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 62,5ek adierazi du funtzionario izateko oposizio-azterketak egitea pentsatu duela, azkenean hori egin zein ez. Aitzitik, % 35,0k ez du aukera hori aztertu, eta ehuneko horrek hamar puntu egin du behera, 2020ko emaitzen aldean (% 44,5 izan zen).

3.2. taula

Oposizioak egiteari buruz 15-29 urteko gazteek duten jarreraren bilakaera (%)

(%)	2020	2024
Ez duzu inoiz pentsatu	44,5	35,0
Serio pentsatzen ari zara	36,1	27,9
Pentsatu duzu, baina ez egitea erabaki duzu	9,1	19,7
Autonomia edo enpresaria zara jada	4,8	6,1
Oposizioetara aurkeztu zinen, baina ez zenuen gaingitu eta ez zara berriz saiatu	2,0	3,7
Oposizioetara aurkeztu zinen, gaingitu zenituen; orain plaza duzu edo lan-poltsan zaude	2,1	5,1
Nahiago duzu ez erantzutea	1,3	2,6
GUZTIRA	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gizonekin erkatuta, emakume gehiagok aztertu du oposizioak egiteko aukera. Are gehiago, emakume gehiagok gaintitu dituzte oposizio-azterketak, eta funtzionario-lanpostu bat lortu dute, edo administrazio baten lan-poltsan daude (2024an emakumeen % 6,5, gizonen % 3,8ren aurrean).

3.16. Lan idealari buruzko ezaugarriei galdetuta, gazteek soldata ona izatea aipatu dute, nagusiki

Gazteek enpleguari buruz ondoen baloratzen duten zer den jakite aldera, 2024an 15 eta 29 urte bitarteko gazteei galdetu zaie zer bi ezaugarri izan beharko lituzkeen lanpostu batek, ezin hobe izateko; eta horretarako ezaugarri batzuen zerrenda proposatu zaie aukera dezaten. Gazteen erdiek (% 49,4k) adierazi dute ametsetakoa lanak soldata ona izan beharko lukeela. Gehien aipatu den bigarren ezaugarria laneko giroa da (% 41,4k aipatu dute); hirugarren ezaugarria laneko ordutegi eta egutegia da (% 38,0k); laugarrena, egonkortasuna (% 27,6k); eta bosgarrena, ehuneko askoz ere txikiagoa bada ere (% 14,7), lan interesgarria izatea.

2024an soldatari lehentasuna eman arren, dagokion ehunekoak behera egin du, 2008ko eta 2011ko zifrekin erkatuta. Horrez gain, egonkortasunari buruzko ehunekoak ere beherakada nabarmena izan du; 2013an lehentasun handieneko ezaugarria zen egonkortasuna (gogoratu behar da urte horretan XXI. mendeko ehunekorik handienak osatu zirela gazteen langabeziari dagokionez), baina gaur egun zerrendako laugarren postura jaitsi da. Aitzitik, laneko giro ona izatea gehiago aipatu da, baita laneko ordutegi eta egutegi ona izatea ere.

3.3. taula

15 eta 29 urte bitarteko gazteen ustez, lan idealak izan beharko lituzkeen ezaugarrien bilakaera* (%)

(%)	2008	2011	2013	2024
Soldata ona	58,9	56,0	49,9	49,4
Lan-giro ona	42,0	32,5	34,0	41,4
Ordutegi eta lan-egutegi ona	28,3	21,7	22,5	38,0
Egonkortasuna	42,5	53,6	56,6	27,6
Interesgarria izatea	**	10,1	11,0	14,7
Profesionalki igotzeko aukera izatea	12,3	9,9	9,4	8,9
Autonomia, zure ideak gauzatzeko aukera izatea	10,2	8,1	9,1	7,7
Etiket hurbil egotea	2,6	1,8	2,9	3,4
Beste ezaugarri batzuk	1,5	3,7	1,9	0,7
Nahiago duzu ez erantzutea	1,1	1,7	2,0	0,8
** 2008an ez zen erantzun hau eskaini				


* Pertsona bakoitzak bi erantzun eman zitzaizkien proposatutako zerrenda batetik abiatuta.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2024an jaso diren erantzunei arreta handiagoz erreparatuz gero, ikus dezakegu gizon gazteek emakumeek baino garrantzi gehiago ematen diotela soldatari. Edonola ere, emakume zein gizon gazteek soldatari ematen diote lehentasuna, lanpostu ezin hobea deskribatzen dutenean. Bestalde, emakumeek gizonak baino garrantzi handiagoa ematen diote lan-giro ona izateari. Laneko ordutegi eta egutegiari ere garrantzi handixeagoa ematen diote emakumeek.

3.33. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen ustez, lan idealak izan beharko lituzkeen ezaugarriak, 2024an, sexuaren arabera* (%)



* Pertsona bakoitzak bi erantzun eman zitzaizkeen proposatutako zerrenda batetik abiatuta.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


3.17. Hogeita bost urte bete arte, gazte gehienak gurasoen mende daude ekonomikoki

2024an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 22,2 baino ez dira bizi nagusiki bere diru-sarreretatik edota bere diru-sarreretatik eta bikotekidearen sarreretatik. Hala eta guztiz ere, aipatu behar da hori batez besteko balioa dela, eta errealitatea zeharo aldatzen dela, adinaren arabera. 20 urte bete aurretik, gazteen % 0,3k baino ez du independentzia ekonomikorik; 20 eta 24 urte bitartekoen artean, % 14,9k baino ez; eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan, erdiek baino gehiagok (% 53,9k) dute independentzia ekonomikoa, bere diru-sarreretatik edo bere

diru-sarreretatik eta bikotekidearen sarreretatik bizi direlako. 2024an ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen erantzunen artean.

3.34. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen diru-sarreraren jatorria 2024an, adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2008an 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiru beren diru-sarreretatik edo bikotekidearen diru-sarreretatik ere bizi ziren (% 29,8); eta gazteen erdiak baino gutxiago gurasoen diru-sarreraren mende bizi ziren erabat (% 43,7). 2009ko krisi ekonomikoaren ondoren, gazteen erdiak baino gehiago bizi dira erabat gurasoen diru-sarreraren mende, eta 2024an egoera hori oraindik ez da aldatu.

3.35. grafikoa

15-29 urteko gazteen diru-sarreraren jatorriaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

3.18. Hamabost eta hogeita bederatzirte bitarteko gazteen herenak baino zertxobait gehiagok (% 36,9k) 600 euro baino ez ditu erabilgarri hilean


2024an gazte gehienek (% 54,5ek) 600 euro baino gutxiago ditu erabilgarri hilean. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 36,9k soilik ditu 600 eurotik gora erabilgarri hilean.

2008an hilean 600 euro baino gehiago erabilgarri zituen gazteen ehunekoa egungoaren antzekoa zen (% 35,2), baina garai hartako erosteko ahalmena gaur egungoa baino askoz ere handiagoa zen. Adibidez, Espainian lanbide arteko gutxieneko soldata 600 eurokoa zen 2008an⁵, eta 2024an 1.134 eurokoa da hilean⁶. Ondorio moduan, beraz, esan dezakegu gazteen diru-erabilgarritasuna nabarmen txikiagotu dela.

2024an hilean 600 euro baino gehiago erabilgarri dituzten gizon gazteen ehunekoa emakumeena baino handixeagoa da (% 38,3 eta % 35,5, hurrenez hurren); hala ere, alde hori ez da egonkorra izan urte guztietan.

3.36. grafikoa

Hilean 600 euro baino gehiago dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Adinak, ordea, alde nabarmenak sortzen ditu, diru-sarrera propioen erabilgarritasuna handiagoa baita adinak gora egin ahala. 2024ko datuen arabera, 20 urte bete aurretik % 3,9k baino ez ditu 600 euro baino gehiago hilean; 20 eta 24 urte bitarteko gazteen % 33,1ek dauka diru hori; eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, % 76,8k, hau da, gehienek. Izan ere, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen herenak (% 33,9k) 1.500 euro baino diru gehiago ditu erabilgarri hilean.

⁵ 1763/2007 Errege Dekretua (linean). Eskuragarri, hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2007-22451 [Kontsulta: 2024-05-28]

⁶ 145/2024 Errege Dekretua (linean). Hemen dago ikusgai: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2024-2251> [Kontsulta: 2024-05-28]

3.37. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek hilean erabilgarri duten dirua 2024an, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

3.19. Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak behera egin du , eta 2009ko krisi ekonomikoaren aurretiko mailetan dago

Pobrezia errealeko egoeran zeuden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa (adin-tarte horretako gazte guztien aldean) % 4,8 zen 2022an (azken datu erabilgarria). Eusko Jaurlaritzaren *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako* metodologiari jarraituta, ondoriozta dezakegu pobrezia erreala oinarritzko premiei, hau da, elikadurarako, etxebizitzarako, jantziarako eta oinetakoetarako gastuei aurre egiteko behar adina baliabide ekonomikorik (diru-sarrerak eta ondarea) ez izatea dela.

2008tik gazteen pobrezia errealeko tasa handixeagoa da, EAEko biztanle guztien aldean.

Edonola ere, pobrezia errealeko egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa berriro jaitsi da, eta 2009ko krisiaren aurretiko mailetara jaitsi da.

3.4. taula

Benetako pobrezia-egoeran dauden Euskadiko 16-29 urteko gazteen eta guztizko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera (%)


(%)	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	2020	2022
16-29 urteko gazteak	4,9	4,1	4,9	8,4	8,2	8,1	9,2	6,0	4,8
Biztanleria guztira	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	5,6	4,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta)

Sexuaren arabera aldea ez dira oso handiak, baina, orokorrean, emakume gazteen pobrezia-ehunekoak gizonenak baino handixeagoak izaten dira.

3.38. grafikoa

Benetako pobrezia-egoeran dauden 16-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Pobrezia-egoera eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta)

Bestalde, familia gazteen pobrezia-tasak adierazten du 35 urtetik beherako familiaburu duten etxebizitzetan bizi den biztanleriaren zer ehuneko dagoen pobrezia-egoeran. Tasa horri erreparatzen badiogu, ikus dezakegu zifrak handixeagoak direla, gazte guztiei dagokien pobrezia-tasaren aldean. 2022an familia gazteen % 6,1 pobrezia-egoeran zeuden, biztanle guztien % 4,0tik gora. Zifra hori, edonola ere, 2000-2022 aldikoa baino txikiagoa da.

Familia gazteen pobrezia-arriskuak jasotzen du 35 urtetik beherako familiaburu duten etxebizitzetan bizi diren pertsonen artean, zer ehuneko dagoen pobrezia-arriskuan diru-sarrera potentzialki eskasak dituztelako oinarritzko premiei (elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) aurre egiteko. Ehuneko horrek ere behera egin du, baina, hala ere, familia gazteen artean handixeagoa, familia guztiekin erkatuta.

Aurreko datuek erakusten dutenez, familiak koltxoi gisa jokatzeko kasu askotan, emantzipatuz gero gazteek izan ditzaketen pobrezia-egoerak saihesteko edo arintzeko.

3.5. taula

Benetako pobrezia-egoeran edo pobrezia-arriskuan dauden 35 urtetik beherako familiaburu duten etxebizitzetan bizi diren pertsonen ehunekoaren bilakaera, eta egoera horietan dagoen Euskadiko guztizko biztanleriarekin alderatzea (%)

(%)	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	2020	2022
POBREZIA ERREALAREN TASA ETXEBIZITZETAN									
35 urtetik beherako familiaburu duten etxebizitzetan bizi diren pertsonak	13,5	9,1	9,4	18,0	13,6	15,3	16,2	15,3	6,1
Biztanleria guztira	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	5,6	4,0
POBREZIA-ARRISKUA ETXEBIZITZETAN									
35 urtetik beherako familiaburu duten etxebizitzetan bizi diren pertsonak	18,5	17,1	12,4	20,2	17,0	18,7	19,5	19,8	16,6
Biztanleria guztira	10,6	8,2	6,7	8,0	9,1	7,9	8,3	8,1	7,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta)

3.20. EAEko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 2,9k Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen du

Eusko Jaurlaritzak zenbait laguntza eta dirulaguntza kudeatzen ditu pertsonen eta familien pobrezia-arriskuari eta gizarte-bazterketari aurre egiteko eta baliabide nahikorik ez duten pertsonen eta familien oinarritzko premiei erantzuteko. Laguntza horietako batzuk dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (GGI), Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), etab.

Atal honetan ikusiko dugu zenbat gaztek jasotzen duten Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta. Hileroko laguntza ekonomikoa da hau eta baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen edo oinarritzko premiak asetzeko baliabide nahikorik ez duten pertsonen ematen zaie⁷.


2023an 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 2,9k diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso zuten: adin-tarte horretako emakumeen % 3,4k eta gizonen % 2,5ek.

2013tik izandako bilakaerak erakusten du diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaile titular gazteen ehuneko txikiak 2022an eta 2023an osatu direla. Horrez gain, ikus daiteke emakumeen ehunekoak beti izan direla gizonenak baino handiagoak.

⁷Informazio gehiago hemen: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2016/renta-de-garantia-de-ingresos-rgi/web01-tramite/es/ [Kontsulta: 2024-05-28]

3.39. grafikoa

Urte bakoitzean DBE jaso duten 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Lanbide

Titularrei soilik erreparatu beharrean, etxeko kide batek DBE jasotzen duen etxebizitzetan bizi diren 15 eta 34 urte bitarteko pertsona guztiei erreparatzen badiugu, ikusiko dugu ehuneko horrek gora egiten duela, eta % 5,8 izan da 2023an.

2018tik 2023ra behera egin du familiako batek DBE jasotzen duen etxebizitzetan bizi diren 15 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoak.

3.40. grafikoa

Kideren batek DBE jaso duen etxebizitzetan bizi diren 15-34 urteko pertsonen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Lanbide

3.21. Gazteen lan- eta ekonomia-egoeren ondorioak

Lan-mundura berandu iristeak, enpleguen egoera ezegonkorrak eta prezioen igoerarekin lotutako soldata baxuek gazteen diru-baliabideen eskuragarritasuna mugatua izatea eragiten dute, batez ere 25 urtetik beherakoen artean, horietako gehienak ikasten ari baitira eta ekonomikoki familiaren mende baitaude.

Egia da 2023an langabeziak eta aldi baterako kontratua duten gazteen ehunekoak behera egin dutela, baina behin-behinekotasunak oraindik ere gazte landunen erdiei eragiten die. Horrek segurtasunik eza sortzen du, eta oztopo da emantzipazioa eta antzekoak diren beste proiektu batzuk aurrera eramateko.

Edonola ere, badirudi gazteek enpleguen ezegonkortasuna onartu dutela, eta lanpostu ezin hobe irudikatzen dutenean, soldatari ematen diote lehentasuna, eta haren atzetik laneko giroa eta laneko ordutegia eta egutegia datoz, egonkortasunaren aurretik. Soldata funtsezkoa da, batez ere, kontuan hartuta Kontsumoko Prezioen Indizeak, alokairu-errentek eta interes-tasek ere gora egin dutela, eta gazteen batez besteko soldatek, ordea, 2010eko mailari eusten diotela. Oso zaila da 2024an modu autonomoan bizitzea, laguntza publikorik edo familiaren laguntza ekonomikorik edo asistentziarik jaso ezean.

4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

Gazteen emantzipazioa zuzenean lotuta dago prestakuntzarekin, lanarekin, egoera ekonomikoarekin, etxebizitza-merkatuarekin eta laguntza publikoak lortzearekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek goi-mailako ikasketak dituzte, eta horrek berekin ekartzen du lan bila hogeitaz hamar urte baino gehiago dituztenean hasia; beraz, ordura arte emantzipazioa, familiaren finantzaketarik eduki ezean, pentsaezina da.

Geroago, enpleguaren kalitateak, lanaldi partzialek eta behin-behinekotasunak baldintzatzen dute etxebizitza eskuratzeko moduko diru-sarrera egonkorak eta nahikoak izatea. Hori ere oztopo da gazteek emantzipazioari eusteko eta familiaren etxera nahigabe itzuli behar ez izateko.

Etxebizitza-merkatuak (eskura dauden etxebizitzaren kopuruak, ezaugarriak eta, batez ere, prezioak), hipoteka-kredituen baldintzak lortzeko erraztasunek eta interes-tasek, etxebizitza bat jabetzan nahi izanez gero, edo etxebizitza bat alokairuan hartzeko eskatzen diren baldintzek, horiek guztiek mugatzen dituzte gazteen aukerak, beren kabuz eta autonomiaz bizitzeko.

Gainera, emantzipatzen laguntzeko laguntza publikoak lortzeko aukerak (laguntza ekonomiko zuzenak zein zeharkakoak, hala nola, sustapen publikoko etxebizitza bat eskuratu ahal izatea) askotan baldintzatzen du gurasoen etxetik irteteko pausoa eman ahal izatea.

Azkenik, kontuan hartu behar da euskal gizartean nagusi diren kultura-balioek, oro har, Europako hegoaldeko herrialdeetako antzekoek, ez dutela goiz emantzipatzen laguntzen. Haietako batzuk hauexek dira: familia-gune handiagoak, ikasketak bukatu eta lan egonkorra edo aurkitu arte familia-etxean geratzeko ohitura handiagoa, bikotekidearekin emantzipatzeko joera, etxebizitza erosteko ohitura handiagoa eta abar.

Segidan, hainbat datu emango ditugu EAEko gazteen emantzipazioaren inguruko egoera deskribatzeko. Kontuan hartu dira aurreko alderdi guztiak.


4.1. EAEko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen herenak baino ez daude emantzipaturik (% 33,5)

Gazteen emantzipazio-tasak neurtzen du 18 eta 34 urte bitarteko gazte guztietatik zenbat dauden emantzipatuta. 2023an tasa hori % 33,5 da, baina adin-tarteen arabera errealitateak oso bestelakoak dira. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen % 4,7 baino ez dago emantzipaturik; 25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 37,1; eta 30 eta 34 urte bitarteko gazte gehienak, hots, % 69,2.

Gizonen eta emakumeen artean ere badaude aldeak baina ez dira hain handiak: 18 eta 34 urte bitarteko emakume gazte emantzipatuen ehunekoa % 36,3 da, eta gizonena, aldiz, % 30,8.

4.1. grafikoa

Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emantzipazio-tasa 2023an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

EAEko gazteen emantzipazio-tasak 10 puntutik gorako beherakada erakutsi du, 2011tik (krisi ekonomikoaren erditik) 2023ra.

4.2. grafikoa

Euskadiko 18-34 urteko gazteen emantzipazio-tasaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa puntu bat txikiagoa da Euskadin, Espainiako batezbestekoarekin erkatuta (% 34,4), eta kasu bietan Europako batezbestekoa baino txikiagoa da (% 50,4). Edonola ere, aipatzekoa da europar batezbestekoa kalkulu

matematikoa dela, baina ez dituela zehatz-mehatz adierazten Europar Batasunean bizi diren errealitate guztiak. Eskandinaviako herrialdeetan gazteen % 75 baino gehiago emantzipatu dira; beste herrialde batzuetan, ordea, (batez ere, Mediterraneoko herrialdeetan), batezbestekoa ez da % 40ra ere iristen.

4.3. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazteen emantzipazio-tasa Euskadin eta EBn 2023an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Eurostat

Gainera, aipatzekoa da azken hamarkadetan Eskandinaviako herrialdeetan handitu dela, pixka bat bada ere, gazte emantzipatuen proportzioa. Beste herrialde batzuetan, ordea, kontrako joera osatu da, eta 2012tik 2023ra emantzipazio-tasaren bilakaerak behera egin du. Beherakada hori gertatu izan da, zehazki, Euskadin eta Europaren hegoaldeko herrialde batzuetan, hala nola,


Espainian, Portugalen, Frantzia, Italian, Grezian edo Kroazian, baita Irlandan eta Polonian ere (tradizio katolikoko herrialdeak dira biak, Mediterraneokoak bezala). Agian, joera horretan zerikusia izan dute 2009ko krisi ekonomikoaren ondorengo suspertze ekonomikoak eta higiezin-merkatuek izan duten bilakaerak eta herrialde batzuetako eta besteetako familiek seme-alaben emantzipazioa kudeatzeko moduak.

4.2. Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak, batez beste, 29 urte bete eta gero emantzipatzen dira, lehenago emantzipatzea gustatuko litzaiekeen arren

2023an, emantzipatzeko batez besteko adina euskal gizartean 29,7 urtekoa da. Batez besteko adin hori urtebete eta hilabete batzuk atzeratu da 2011tik 2023ra.

4.4. grafikoa

Euskadiko gazteen batez besteko emantzipazio-adinaren bilakaera (urteak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Batez beste, emakumeak gizonak baino urtebete lehenago emantzipatzen dira (emakumeak, 29,1 urterekin; eta gizonak, 30,4 urterekin), eta hori bat dator emakume gazteen emantzipazio-tasa gizon gazteena baino handixeagoa izatearekin, aurreko atalean ikusi dugunez. Emakumeen lan-egoera prekarioagoa izan arren (gizonen baino behin-behinekotasun handiagoa, lanaldi partzial gehiago, eta batez besteko soldata txikiagoa), emakumeak lehenago emantzipatzen dira, batez ere, bikotekidearekin bizitzera joaten direlako, eta bikotekideak nagusiagoak izaten direlako.⁸

⁸ Adierazpen horren adibideak emateko, Gazteen Euskal Behatokiak 2022an egindako inkesta bateko datu batzuk erabiliko ditugu. Inkesta horretan bikotekidearekin emantzipatuta bizi ziren 25 eta 29 urte bitarteko gazteei bikotekidearen adina galdetu zieten. Gizonen bikotekideen batez besteko adina 27,4 urte zen; emakumeen bikotekideen batez besteko adina, ordea, 30,2 urte zen (beraz, ia hiru urteko aldea dago). Era berean, EINek argitaratutako datuen arabera, lehen aldiz ezkontzen diren ezkongaien artean, gizonak emakumeak baino bi urte zaharragoak dira, batez beste.

Euskal Autonomia Erkidegoan emantzipatzeko batez besteko adina europar batezbestekoa baino berantiarra da (EBn, batez beste, 26,3 urte da). Emantzipazio-tasekin gertatzen den bezala, emantzipazio-adinari dagokionez, alde handia dago Europar Batasuneko herrialde batzuen eta beste batzuen artean. Eskandinaviako herrialdeetan (Finlandian, Suedian eta Danimarkan) emantzipatzeko laguntza gehiago ematen dira, eta kultura-balioak oso bestelakoak dira. Herrialde horietako gazteak, batez beste, 22 urte bete aurretik emantzipatzen dira; Europaren hegoaldeko herrialdeetan, ordea, 30 urte ingururekin emantzipatzen dira.

4.5. grafikoa

Emantzipatzeko batez besteko adina Euskadin eta EBn 2023an (urteak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Eurostat (Gazteria Estatistikak, Youth data)


15 eta 29 urte bitarteko gazteei galdetu diegu, haien ustez, zein den adinik onena emantzipatzeko. Haiek erantzun dute, batez beste, 23,3 urtekoa dela (emakumeen ustez, 23,0 urterekin; eta gizonen ustez, 23,5 urterekin). Esan liteke, gazteen ustez, emantzipatzeko unerik onena goi-mailako ikasketak amaitu eta lan egiten hasi ondorengoa izango litzatekeela. Horrela, beren kasa bizitzeko diru-sarrerak izango litzukete.

Gazteek emantzipatzeko egokitzen jotzen duten adina urtebete bat aurreratu da 2022tik 2023ra. Edozelan ere, azken hamarkadan (2011tik 2023ra) egindako neurketa guztietan, batez besteko balioak 23 urte eta 24 urte eta erdiren artean egon dira.

Emantzipatzeko batez besteko adin erreala, ordea, beti gertatzen da ametsetakoa baino geroago. Alde hori lau eta sei urte eta erdi bitartekoa izan da seriean zehar; nolana ere, 2023an adin errealaren eta adin idealaren arteko alderik handiena jaso da (6,4 urte).

4.6. grafikoa

Euskadiko gazteek emantzipatzeko egokitzen jotzen duten adinaren eta benetan emantzipatzen diren adinaren bilakaera (urteak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Diferentzia horren atzetik zenbait faktore daude: ikasketak amaitzeko nahi gabeko atzerapena edo enplegarritasuna hobetzeko masterrak edo beste ikastaro edo espezializazio batzuk egitea eta, hartara, ikasketa-denbora luzatzea; enplegua aurkitzeko zailtasunak; enpleguaren kalitate baxua (ezegonkorra edota emantzipazioa planteatzeko soldata nahikorik ez izatea); aurrezkirik ez izatea; gazteen aukeretara egokitutako ezaugarri eta prezioko etxebizitzaren eskaintza urria; higiezin agentziek alokatzeko edo banku-entitateek hipoteka-mailegu bat emateko jartzen dituzten zailtasunak; laguntza publikoak eskuratzeko arazoak eta abar.

4.3. Hogeita bost eta hogeita bederatzia urte bitarteko hiru gaztetik batek uste du ezin izango dela bere kabuz bizi 2024. urtean, nahi izan arren


Kontuan hartzen badugu, gazteen ustez, emantzipatzeko adin egokiena 23 urte eta hilabete batzuk direla, segidan kuantifikatuko dugu 25 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek uste duten, beren kasa bizi nahi arren, 2024an emantzipatuko ez direla.

2023ko abenduan, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 35ek esan zuten beren ustez ez zela egingarria emantzipazio-proiektua urtebete barru gauzatzea (hots, 2024. urtean); batzuek gurasoen etxetik irten nahi zuten, baina uste zuten ezinezkoa zela; beste batzuek uste zuten, une hartan beren kabuz bizi izan arren, gurasoen etxera itzuli behar izango zutela, gogoz kontra. Horri «emantzipazio zapuztua» esaten zaio.

Emantzipazio zapuztuaren ehuneko horretan gorabeherak egon dira azken hamarkadan, eta 2023ko datua aztertutako aldiaren batezbestekoan dago.

4.7. grafikoa

Nahi izan arren, urtebeteko epean beren kontura bizi ezin izango direla uste duten 25-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Eusko Jaurlaritzak 2024an *Emantzipa* programa abiarazi du, gazteen emantzipazioa bultzatzeko. Programa hori 25 eta 29 urte bitarteko gazteentzat pentsatuta dago, baldin eta gutxieneko eta gehieneko diru-sarreraren muga betetzen badute. Pertsona horiei bi urteko laguntza ekonomikoa ematen zaie, hipoteka edo alokairu-errenta ordaintzeko. Programaren helburua adin-tarte horretako gazteei, nahi izanez gero, emantzipatzen laguntzea da, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen badituzte. Beraz, espero da hurrengo urteetan emantzipazio zapuztuaren ehunekoek behera egitea adin-tarte horretan (25 eta 29 urte artean).

4.4. Oraindik gurasoekin bizi diren 25 eta 29 urte bitarteko gazteek gehien aipatu duten zailtasuna etxebizitzaren prezio handia da


Gurasoekin bizi diren 25 eta 29 urte bitarteko gazte gehienek adierazi dute zerrendatutako zailtasun horiek guztiak dituztela, baina aipatuena etxebizitzaren salmenta- edo alokairu-prezioa da; zehazki, emantzipatu ez diren 25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 92,9k adierazi dute arazo hori dutela. Etxebizitzaren garestitasunaren ondoren, txanpon beraren beste aldea aipatu da: etxebizitza bat eskuratzeko diru-sarrerara nahikorik ez izatea. Zailtasun hori gurasoekin bizi diren 25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 80,0k aipatu du.

Horien atzetik beste zailtasun batzuk daude, hala nola bizi nahi duten eremu geografikoan etxebizitza-eskaintza urria izatea (hori % 70,1ek adierazi du); lan-egonkortasunik eza (% 63,8k); hipoteka-kreditua lortzeko zailtasunak (% 61,5ek); eta higiezinaren agentziek edo etxebizitzaren jabeek etxebizitzak alokatzeko jartzen dituzten zailtasunak (% 52,6k).

Gizonek baino emakume gehiagok aipatu dituzte lanarekin lotutako zailtasunak. Gurasoekin bizi diren 25 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 82,1ek aipatu du diru-sarrerara ekonomiko nahikorik ez duela; gizonen % 78,4ren aldean. Era berean, emantzipatu ez diren 25 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 67,1ek aipatu du lan-egonkortasunik eza; eta gizonen % 61,3k. Horrenbestez, higiezin-merkatuak dakartzan zailtasunak (prezioa, eskaintza eta hipoteka-mailegua eskuratzeko edo alokatzeko baldintzak) ez ezik, emakumeek gizonek baino zailtasun gehigarri gehiago daukate bere kabuz emantzipatzeko, lan-merkatuko egoera prekarioagoa dutelako (ezegonkortasun handiagoa eta diru-sarrerara urriagoak, batez ere, lanaldi partzialen ondorioz).

4.8. grafikoa

2024an gurasoekin bizi diren 25-29 urteko gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasun nagusiak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gainera, 2022tik 2024ra nabarmen hasi da etxebizitzaren prezio handia aipatu duten emantzipatu gabeko 25 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa (% 77,4tik % 92,9ra).

4.5. Higiezinaren merkatuko batez besteko prezioak eta gazteen batez besteko soldatak kontuan hartuta, hipoteka-kuota edo alokairu-errenta bakarrik ordaintzeak, teoriarik, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran jartzen ditu 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteak

Salmentako etxebizitza libreen edo alokairu-errenten batezbestekoa prezioak, hipoteka-maileguen baldintza estandarriak (interesa, batez besteko iraupena eta abar) eta gazteen batez besteko soldatak kontuan hartzen baditugu, kalkulu teorikoa egin dezakegu jakiteko 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko batek bere kabuz etxebizitza ordaintzeko hileko soldata garbiaren zer ehuneko bideratu beharko lukeen. Kalkulu hori, beraz, soldatapeko pertsonen buruz soilik egin daiteke; eta batez besteko balioetan oinarritzen da, banakako egoera bereziak alde batera utzita.

Kalkulu teoriko horren arabera, 2023an, 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte batek, batez besteko soldata jasotzen badu (1.566 euro, urte horretan), hileko soldata garbiaren % 64,0 erabili beharko luke merkatuko batez besteko prezioan erositako etxebizitza baten hipoteka-maileguaren lehen kuota berak bakarrik ordaintzeko (urte horretan kontratatutako hipoteka-kredituetako batez besteko iraupen-baldintzak eta interes-tasetako baldintzak kontuan hartuta). Etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua esaten zaio horri.

Alokairua aukeratuz gero (eta kontuan hartu gabe horrek ekar ditzakeen gastu gehigarriak, hala nola, fidantzak, horniduretan alta ematea, bitartekoei ordainsariak ematea eta abar), hilean ordaindu beharreko zenbateko teorikoaren ehunekoa asko aldatzen da hartzen dugun datu-iturriaren arabera, baina, nolana ere, % 40tik gora dago, eta hori gehiegizko esfortzu ekonomikotzat jotzen da. Eusko Jaurlaritzaren fidantzen erregistroan jarritako alokairu-fidantzen batez besteko zenbatekoaren arabera, batez besteko soldata garbia duen 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko langile batek bere soldata garbiaren % 49,5 erabili beharko luke alokairuko errenta ordaintzeko. *Fotocasa* higiezinaren atariak eskaintzen dituen alokairuko etxebizitzaren prezioei erreparatzen badiegu, ordea, alokairuko hileko errenta ordaintzeak ekarriko luke soldata garbiaren % 86,8 ordainketa horretara bideratzea.

Alokairu-errenten oinarritzat Eusko Jaurlaritzaren fidantza-erregistroan jasotakoak (Alokairu-Merkatuaren Estatistikan, AMEn, argitaratuak) edo higiezinaren agentzian eskaintutakoak hartzearen arabera ikusten den emaitzen arteko alde hori azaltzeko, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak emandako azalpena hartuko dugu. Bere hitzetan, "atarien eskaintzen batez besteko prezioak gora egin du neurri batean, eskaintzen ari diren etxebizitzaren tipologia eta alokairuko etxebizitzaren parkea nabarmen desberdinak direlako. Hori gertatzen da alokatzeko zailenak diren etxebizitzak eskaintzan geratzen direlako, normalean eskatzen duten errenta altuagatik, kokapenagatik edo, neurri txikiagoan, berehala okupatzeko baldintza egokirik ez izateagatik"⁹. Etxebizitzaren Euskal Behatokiak azaldu du sinatutako kontratuen batez bestekoaren antzeko prezioan eskaintutako edozein etxebizitza ez dela higiezinaren agentzietatik

⁹ Etxebizitzaren Behatokia (2024): Alokairuko etxebizitzaren prezioa eskaintzaren prezioekiko alderaketa azterketa 2024 [linean]. Hemen eskuragarri: [alokairu_alderaketa_Euskadi.pdf](#) [Kontsulta:2024/10/22]


pasatzen, edo iragarritako egun bat baino ez duela irauten. Ondoren aurkezten diren datuak fidantza-erregistroetako alokairu-errentetan oinarritzen dira, iturri ofiziala delako.

Bai hipotekaren hileko kuota ordaintzeak ekarriko lukeen ahalegin ekonomikoa, bai hileko alokairu-errenta ordaintzeak ekarriko lukeena pixka bat handitu dira 2016tik 2023ra, urte horien artean erositako etxebizitza libreen prezioak igo direlako, hipoteka-maileguei aplikatu beharreko interes-tasak igo direlako, eta aldi horretan bertan alokairu-errenten zenbatekoak igo direlako.

Kolektibo guztietan, etxebizitza ordaintzeko teoriar bideratu beharko litzatekeen hileko soldata garbiaren portzentajeak % 30 gainditzen du, hau da, gomendatzen den zorpetze-mugaren gainetik dago.

4.9. grafikoa

18-34 urteko soldatapeko gazte batek hipoteka-kuota edo hileko alokairu-errenta bere kabuz ordaintzeko teoriar erabili beharko lukeen soldata garbiaren ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Alde handiak antzematen dira sexuaren edo adinaren arabera. Emakumeek eta, bereziki, 25 urtetik beherakoek, hau da, batez besteko soldata txikiagoak dituztenek, kostu handiagoak ordaindu beharko lituzkete, bai etxebizitza bat erosiko balute, baita alokatzea aukeratuko balute ere.

4.10. grafikoa

18-34 urteko soldatapeko gazte batek 2023an hipoteka-kuota edo hileko alokairu-errenta bere kabuz ordaintzeko erabili beharko lukeen soldata garbiaren ehunekoa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Bestalde, Gipuzkoako gazteek diru-zenbateko handiagoak ordaindu beharko lituzkete, lurralde horretan bere kabuz emantzipatzea erabakiko balute. Etxebizitza libreen prezioak, batez ere erosi nahi izanez gero, altuagoak dira Gipuzkoan gainerako lurraldeetan baino.

4.11. grafikoa

18-34 urteko soldatapeko gazte batek 2023an hipoteka-kuota edo hileko alokairu-errenta bere kabuz ordaintzeko erabili beharko lukeen soldata garbiaren ehunekoa, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

4.6. 82.000 gazte inguruk etxebizitza bat behar dute Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gehienei beren udalerrian bizitzen jarraitzea gustatuko litzaieke


Emantzipatu ez diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen herenek baino gehixeagok (% 36,2k) adierazi dute etxebizitza bat beharko luketela 2023an. Etxebizitza-premia igo egiten da adinak gora egiten duen heinean. 18 eta 24 urte bitartekoek % 26,3k adierazi du etxebizitza bat behar duela. Ehuneko hori % 50,3 da 25 eta 29 urte bitartekoek artean; eta % 54,2 da 30 eta 34 urte bitartekoek artean. Sexuaren arabera ez dago alde handirik, baina lurralde historikoen arabera, etxebizitza bat behar dutela adierazi duten emantzipatu gabeko gazteen ehunekoa handiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan.

Bestalde, gazteen % 2,3k adierazi du ez duela etxebizitzarik behar, jada bat duelako, emantzipaturik ez egon arren. Horrelako egoeran dauden ehunekoak gora egiten du adinak aurrera egin ahala. 30 eta 34 urte bitarteko gazteen % 6,6k etxebizitza bat dauka, erosi, oinordetzan jaso edo alokatu duelako, baina gurasoekin bizitzen jarraitzen du.

Emantzipatu ez diren gazteen % 61,4k, hau da, gehienek adierazi dute ez dutela etxebizitza bat, baina une horretan ez dutela horren beharrik.

4.12. grafikoa

Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko pertsonen banaketa 2023an, etxebizitza-premiari dagokionez, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

Etxebizitzarik behar ez dutela adierazi duten gazteen erdiek baino gehiagok (% 52,8k) argudiatu dute ikasten ari direla, eta, hartara, ez dutela diru-sarrerarik; % 31,5ek adierazi du ez duela emantzipatzeko aukeran pentsatu; % 7,6k adierazi du diru-sarrerak dituela, baina ez direla emantzipatzeko nahikorik ezta egonkorrik ere; % 3,5ek adierazi du langabezian dagoela, eta ez duela diru-sarrerarik; eta gainerako % 4,6k beste arrazoi batzuk adierazi ditu (osasuna, familia zaindu behar izatea eta abar).


Etxebizitza bat behar dutenen artean, ia guztiek (% 95,8k) adierazi dute etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoan eduki beharko luketela. Eta zer nahiago duten aztertzen badugu, hamar gaztetik seik (% 61,2k) nahiko lukete etxebizitza egun bizi diren udalerrian egotea, nahiz eta pertsona horien erdiak (% 49,6k) beste udalerrri batera joateko prest egon, han beren ezaugarriei eta premiei egokitzen zaien etxebizitza bat topatuko balute.

4.7. Etxebizitza bat behar duten gazte gehienek ez dute diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik, EAEn etxebizitza bat eskuratzeko

EAEn etxebizitza-premia dutenen artean, diru-sarrera propioak dituztela dioten gazteen ehunekoa % 71,9 da. Hala ere, horrek ez du bermatzen etxebizitza bat lortzeko aukera, diru-sarrera propioak dituztenen % 18,3k baino ez baitu uste etxebizitza bat eskuratzeko moduko diru-sarrera nahikoak eta egonkorrak direnik. Diru-sarrera propioak dituztenen % 8,4k adierazi du beren diru-sarrerak etxebizitza bat eskuratzeko modukoak direla, baina ezegonkorrek direla, beraz, hori oztopoa dela alokairu-kontratu bat sinatzeko edo hipoteka-mailegu bat eskatzeko eta, hartara, etxebizitza bat lortzeko. Talde horretako % 41,0k (ehunekorik handiena da) adierazi du diru-sarrerak egonkorrek direla, baina ez nahikorik. Gainerako % 32,2k adierazi du diru-sarrera propioak dituztela, baina ez direla ez nahikorik, ezta egonkorrik ere.

4.13. grafikoa

Euskadin etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen banaketa, diru-sarrera horiek 2023an etxebizitza bat eskuratzeko nahikoak eta egonkorrak direla uste duten kontuan hartuta (%)




Iturria:: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

Zenbaki absolutuetan, esan dezakegu 2023an 18 eta 34 urte bitarteko 82.000 gazte inguruk esan dutela EAEn etxebizitza bat behar dutela; horien artean, gutxi gorabehera 59.000 pertsonen diru-sarrera propioak dituzte, baina 10.800 lagunek soilik dituzte etxebizitza bat lortzeko behar besteko diru-sarrera egonkorak; beraz, horiek bakarrik dituzte emantzipatzeko benetako aukerak laguntza publikoetara jo gabe.

4.1. irudia.

Emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen kopurua, Euskadin etxebizitza bat behar izatearen eta diru-sarrera propioak izatearen arabera 2023 (zenbaki absolutuak biribilduta)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

2019tik 2023ra behera egin du etxebizitza bat jabetzan edo alokairuan lortzeko behar besteko diru izateaz gain, diru-sarrera egonkorak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazte kopuruak. 2019an 16.800 gazte zeuden talde horretan; 2021ean, 13.650; eta 2023an, 10.800 gazte.

2023an diru-sarrera propioak (nahikoak edota egonkorak diren alde batera utzita) dituzten gazteek beren gain har dezaketen gastuaren mediana 500 eurokoa da. Mediana horrek taldea erdibitzen du: % 50ek kopuru hori baino gehiago ordain dezake; eta beste erdiek hori baino gastu txikiagoa egin dezakete. Batezbestekoa handixeagoa da, pertsona gutxi batzuek (% 6,8k) adierazi baitute hilean 1.000 euro esleiri dezaketela etxebizitza bat ordaintzeko. Horren arabera, batezbestekoa 568 eurokoa da hilean, alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko.

Aurreko urteekin erkatuta, gora egin du EAEn etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituzten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek hilero beren gain har dezaketen batez besteko gastuak eta, 2023an, lehenengo aldiz, 500 eurotik gorakoa da. 2015ean, 461 eurokoa zen; 2017an, 454 eurokoa; 2019an, 496 eurokoa; eta 2021ean, 446 eurokoa.

Edonola ere, 2023an beren gain har dezaketen batez besteko gastu hori (568 eurokoa) igo den arren, 739,50 eurotik beherakoa da hilean, eta, Alokairu Merkatuaren Estatistikaren arabera, 2023ko abenduaren 31n hori da EAEko batez besteko alokairu-errenta¹⁰. Estatistika hori Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuetan oinarritzen da, eta ez higiezin agentziek etxebizitzak alokatzeko eskatzen dituzten prezioetan, azken horiek handiagoak izan ohi baitira. Hala ere,

¹⁰ Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2024): 2023ko Urteko Txostena. Alokairu Merkatuaren Estatistika-AME [linean]. Hemen dago ikusgai: [Alokairu-merkatuarenEstatistika. 2023_eus_v1.pdf](#) (4. or.) [Kontsulta: 2024-04-22]


horrek ez du esan nahi alokairu-kontratua azkenean higiezin agentziak markatutako prezioan sinatzen denik, azken prezioa zertxobait txikiagoa izan daiteke, negoziazio-prozesu bat egonez gero.

Emantzipatu ez diren gazteek beren gain har dezaketen batez besteko gastua EAEko 2023ko batez besteko hileko hipoteka-gastua (719,18 eurokoa dela jotzen da) baino txikiagoa da¹¹, EAEko Jabetza Erregistro eta Erregistratzaileen Elkargoaren 2023ko laugarren hiruhileko Higiezin Erregistroaren Estatistikan jasotako datuen arabera (Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratzen ditu datu horiek).

Aurkeztu diren datuak kontuan hartuta, errazago uler daiteke zergatik EAEn etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteek esaten duten merkatuan ez dagoela beren ezaugarrietara eta premietara moldatzen den etxebizitzarik: % 73,7k uste du ezaugarri eta prezio horietako etxebizitza gutxi daudela; eta % 17,3k uste du ez dagoela horrelako etxebizitzarik.

4.14. grafikoa

Euskadin etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko hilean etxebizitza ordaintzeko bere gain har lezaketen batez besteko diru kopuruaren eta alokairu-errenten eta hipoteka-kuoten batez besteko zenbatekoen arteko alderaketa, 2023an (eurotan)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta) eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutako alokairu-errentei eta hipoteka-kuotei buruzko estatistiketatik abiatuta.

¹¹ Etxebizitzaren Euskal Behatokia: 2023ko Higiezin Erregistro Estatistika. 4. hiruhilekoa (Excel taulak) [linean]. Hemen dago ikusgai: <https://observatoriovivienda.euskadi.eus/x39-ovhome/eu/> (3.5.1 taula) [Kontsulta: 2024-04-22]

4.15. grafikoa

Euskadin etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen banaketa 2023an, merkatuan beren beharretara eta aukera ekonomikoetara egokitutako etxebizitza-bolumenari buruz duten iritziaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

4.8. Diru erabilgarri gutxien duten gazteek aukeratzen dute alokatzea, baina ez da aukerarik onena diru aldetik, ezta gogokoena ere

Emantzipatu diren eta 18 eta 34 urte dituzten gazteen erdiak (% 52,4) 2023an beren jabetzako etxebizitzan (edo bizikidearen jabetzako etxebizitzan) bizi dira; hala ere, kategoria horretan sartzen dira, bai hipoteka bat ordaintzen ari direnak, baita etxebizitza jada ordaindu dutenak edo etxebizitza oinordetzan edo dohaintzan jaso dutenak ere. Alokairuan bizi diren gazte emantzipatuak gutxiago dira (zehatz-mehatz, % 44,5). Azkenik, gazte emantzipatuen % 3,1 bertan bizitzeko laga zaien etxebizitza batean bizi dira.

Datu horiek 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu guztienak dira, baina edukitze-erregimeneko datuak oso bestelakoak dira, adinaren arabera. 30 urtetik beherako gazte emantzipatu gehienak etxebizitza alokatu batean bizi dira. Bestalde, 30 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gehienak beren jabetzako etxebizitza batean bizi dira.

Aldea are nabarmenagoa da Espainiako nazionalitatea duten gazteen eta atzerriko nazionalitatea duten gazteen artean: Espainiako nazionalitatea duten hiru gazte emantzipatutik bi jabetzako etxebizitza batean bizi dira; atzerritar nazionalitateko hamar pertsonatik zortzi etxebizitza alokatu batean bizi dira.

Sexuaren arabera, ordea, ez dago alde handirik emakume eta gazte emantzipatuen artean.

4.1 taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren edukitza-erregimena
2023an, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina		Nazionalitatea	
		Emakumeak	Gizonak	18-29 urte	30-34 urte	Espainiarra	Atzerritarra
Jabetza	52,4	51,6	53,5	38,9	61,0	66,6	16,3
Alokairua	44,5	45,3	43,5	58,0	36,0	29,4	82,9
Beste moduren bat (lagata...)	3,1	3,1	3,0	3,1	3,1	3,9	0,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak
emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

Etxebizitza bat alokatzea ohikoagoa da gazteen artean, gainerako biztanleekin erkatuta. EUSTATEko Etxebizitzaren Udak Estatistika 2023ko urtarilaren 1eko datuen arabera, EAEko familia-etxebizitza nagusien % 14,8ren edukitze-erregimena alokairua zen, eta gehienak (% 83,3) jabetza-erregimeneko etxebizitzak ziren¹².

Hala ere, etxebizitza alokatzea ez da gazteek gehien atsegin duten aukera. Alokairuan bizi diren gehienek (% 81,8k) adierazi dute alokairuan bizi direla ez baitute etxebizitza bat erosteko behar besteko diru edo diru-sarrerara egonkorrik. Gainera, % 9,9k adierazi du behin-behineko irtenbidea dela, erosi ahal izan arte. Alokairuan bizi direnetatik % 8,3k soilik aipatu ditu beste arrazoi batzuk: ez dutela hipotekarik eduki nahi; edo etxebizitza alokatuz gero, mugikortasun handiagoa dutela.


Emantzipatu ez diren 18 eta 29 urte bitarteko gazteei etorkizuneko etxebizitza erosi ala alokatu nahiago duten galdetuta, gehienek adierazi dute etxebizitza jabetzan izatea nahiago dutela, eta % 11,9k baino ez du adierazi alokatzea nahiago duela.

Alokatzearen aldeko aukerak 2011tik 2015era egin zuen gora. Azken urte horretan 30 urtetik beherako gazte ez emantzipatu gehienek alokatzea nahiago zuten, baina urte horretatik 2024ra nabarmen egin du behera.

¹² Eustat: Etxebizitzaren Udak Estatistika. «Etxebizitza-parkean» atalean argitaratutako datuak [linean]. Hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_443/opt_0/temas.html [Kontsulta: 2024-10-18]

4.16. grafikoa

Etorkizuneko etxebizitza batean pentsatuta, alokatzea nahiago luketen 18 eta 29 urte bitarteko Euskadiko emantzipatu gabeko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Emantzipatu diren 35 urtetik beherako gazteen etxebizitzako gastuei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu 2023an alokatutako etxebizitza batean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gehienek (zehazki, % 78,0k) adierazi dutela 451 eta 900 euro arteko errentak ordaintzen dituztela hilean; % 15,4k adierazi du 450 euro baino gutxiago ordaintzen duela, eta % 5,4k 900 eurotik gora ordaintzen du. Alokairu-errenta txikienak alokairu sozialeko etxebizitzetan bizi diren pertsonak ordaintzen dituzte. Alokairuan emantzipatutako gazte guztiak kontuan hartuta, ikus dezakegu haietatik erdiek (% 50ek) hilean 650 eurotik gora ordaintzen dutela, eta beste % 50ek hori baino gutxiago. Batezbestekoa 638,21 eurokoa da hilean.


Bestalde, etxebizitza bat erosi ondoren hipoteka-mailegua ordaintzen ari direnen artean, % 26,1ek hilean 450 eurotik behera ordaintzen du (450 euro baino gutxiago ordaintzen dutenen ehunekoa handiagoa da hipoteka ordaintzen ari direnen artean, alokairuan bizi direnen artean baino); bestalde, hipoteka duten gazteen % 6,1ek adierazi du hilean 900 eurotik gora esleitzen duela hipoteka ordaintzeko (ia ez dago alderik alokairuan ala hipoteka-gastuetan 900 eurotik gorako gastuari aurre egin behar dioten gazteen ehunekoen artean). Kreditua amortizatze eta interesak ordaintzeko batez besteko zenbatekoa 578,01 da 2023an. Medianak zatitzen ditu hipoteka-kreditu hori ordaintzen duten gazte kopurua: gazteen % 50ek zifra hori baino gehiago ordaintzen dute, eta gainerako % 50ek zifra hori baino gutxiago ordaintzen dute. Mediana 517 eurokoa da hilean.

Alokairuan dauden gazteek hilean batez beste ordaintzen duten errenta baino txikiagoa da etxebizitza bat erosi duten eta ordaintzen ari diren gazteek jakinarazitako hipoteka-gastua.

Kasu bietan gazte emantzipatuen batez besteko gastuak EAEko biztanle guztienak baino txikiagoak dira.

4.17. grafikoa

18-34 urteko gazte emantzipatuek eta biztanleria osoak hilean ordaintzen duten batez besteko alokairu-errentaren eta hipoteka-kuotaren arteko alderaketa (euroak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta) eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutako alokairu-errentei eta hipoteka-kuotei buruzko estatistiketatik abiatuta.

Oro har, alokairuan dauden gazteen diru-sarrerak baino handiagoak dira hipoteka bat ordaintzen ari diren gazteen batez besteko diru-sarrerak. Hipoteka bat ordaintzen ari diren familien diru-sarrera guztien hileko kopuru garbia 2.603,72 eurokoa da, eta alokairuan bizi direnen diru-sarrera garbien kopurua 2.088,43 eurokoa da (hau da, batez besteko aldea 500 euro ingurukoa da). Aipatzekoa da hipoteka ordaintzen ari direnetik % 63,5ek adierazi duela bik edo pertsona gehiagok diru-sarrerak ematen dituztela etxebizitzarako; alokairuan bizi direnen artean ehuneko hori txikiagoa da, % 52,4, zehatz-mehatz. Hori dela eta, alokairuan bizi direnen % 44,3k eta jabetzako etxebizitza batean bizi eta hipoteka ordaintzen ari direnen % 35,2k etxebizitzako gastuak soldata bakarrez ordaindu behar dute.

Kontuan hartzen badira familiaren diru-sarrera guztiak eta hipoteka-kuoten zein alokairu-errenten zenbatekoak, ondorioztatu da etxebizitzako gastuak dituzten gazteen % 29,5ek finantza-erakundeek bideragarritzat jotzen duten gehieneko zorpetze-muga gainditzen dutela, hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko diru-sarrera guztien % 30 baino gehiago erabiltzen baitute. Eta, zehazkiago, % 16,0k adierazi du etxebizitzako diru-sarreraren % 40 baino gehiago erabiltzen duela horretarako. Horrek gehiegizko esfortzua eskatzen dio familiari, etxebizitza ordaintzeko¹³.

Etxebizitza ordaintzeko hileko gastuak (hipoteka-kuota edo alokairu-errenta) dituzten gazte emantzipatuen artean, gastu horiei aurre egiteko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen proportzioa handiagoa da kolektibo hauetan: emakumeen artean, 30 urtetik


¹³ Kalkulu hori egiteko, Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta erantzun duten pertsonen emandako informazioa oinarritzat hartu da. Etxebizitzan hilean zenbat gastatzen duten (hipoteka-kuota edo alokairu-errenta gisa) eta etxeko kide guztien artean hilean zenbat ordaintzen duten jakinarazi dute.

beherakoen artean eta, bereziki, atzerriko nazionalitatea dutenen artean eta alokairuan bizi direnen artean.

Alokatutako etxebizitza batean emantzipatu diren gazteen laurdenak (% 25,0) gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago gastatu behar baitute errenta ordaintzeko. Hipoteka duten gazte emantzipatuen artean, ordea, % 3,7 da hipoteka-kuota ordaintzeko gehiegizko esfortzua egin behar dutenen ehunekoa. Aipatu behar da hipoteka eman baino lehen banku-entitateek aztertzen dutela eskatzaileen finantza-egoera (diru-sarrerak, aurrezkiak, lan-egonkortasuna, kreditu-historia eta abar). Hori dela eta, printzipioz, ez diote krediturik ematen hipoteka ordaintzeko gehiegi zorpetzeko edo gehiegizko esfortzua egiteko egoeran legokeen pertsona bati.

4.18 grafikoa

Alokairuan bizi diren edo hipoteka duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuek 2023an errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko erabili behar duten etxeko diru-sarrera guztien proportzioa, sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

4.9. Gazteek bigarren eskuko eta merkatuko batezbestekoa baino etxebizitza txikiagoak aukeratzen dituzte eta gutxi dira bakarrik emantzipatzen diren gazteak

Gazte emantzipatuak ordaintzen dituzten prezioen eta hipoteka bat duten edo alokairuan bizi diren EAEko biztanle guztiek batez beste ordaintzen dituzten zenbatekoen arteko konparazioak erakusten du gazte emantzipatuak diru gutxiago bideratzen dutela etxebizitzara, alokairuan bizi zein hipoteka bat izan, baina horrek, oro har, lotura duela gazteen etxebizitza-motarekin.

Hamar lagun emantzipatuen bederatzik (% 89,5ek) adierazi dute bigarren eskuko etxebizitzetan bizi direla; bakarrik gazteen % 10,5 eraikuntza berriko etxebizitza batean bizi dira. Gazte emantzipatuen erdiak (% 50,7) 50 urtetik gorako etxebizitzetan bizi dira; % 25,0 bizi dira 26 eta 50 urte bitarteko etxebizitzetan; eta % 24,3 bizi dira 25 urtetik beherako etxebizitzetan. Gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna (50 urtekoa) handixeago da, EAEko etxebizitzaren batezbestekoarekin erkatuta (2023ko urtarrilaren 1ean, antzinatasun hori 48,7 urtekoa da)¹⁴.

Gazte emantzipatuen etxebizitzaren batez besteko azalera 82,0 metro karratukoa da. Batezbesteko hori EAEko etxebizitzaren parkearen azalera baino txikiagoa da, EAEko etxebizitzaren batez besteko tamaina 2023an 87,5 metro karratukoa da¹⁵.

Gazte emantzipatuak batez besteko etxebizitzak baino etxebizitza zaharragoetan eta txikiagoetan bizi dira; horrek eragiten du etxebizitzaren azken prezioa edo alokairu-errenta batezbestekoa baino txikiagoa izatea.


Bestalde, 18 eta 34 urte bitarteko hamar gazte emantzipatutik sei bikotekidearekin bizi dira (% 60,8). Adin horrekin bakarrik bizi diren pertsonak gutxi dira (% 16,1), eta are gutxiago etxebizitza lagunekin partekatzen dutenak (% 7,7). Etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatzen bada, printzipioz, gastuak partekatzen dira, eta etxeko kideek diru gehiago dute gastuei aurre egiteko.

Emakumeen artean bikotekidearekin bizi direnen ehunekoa batezbestekoa baino handiagoa da (% 63,1); eta, aitzitik, bakarrik bizi direnen ehunekoa batezbestekotik behera dago (% 14,4).

¹⁴ Iturria: Eustat: *Etxebizitzaren Udal Estatistika*. «Etxebizitzaren Parkea» izeneko atalean argitaratutako datuak dira; zehazki, lurralde eremuen eta egiturazko ezaugarrien arabera egin den EAEko Familia Etxebizitzak izeneko taulan jasotako datuak. 2023-01-01ean [linean]. Hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0011300/ti_viviendas-familiares-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-caracteristicas-estructurales-01012023/tbl0011354_e.html [Kontsulta: 2024-10-18]

¹⁵ *Ibidem*

4.19 grafikoa
18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetza-modua 2023an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

4.10. Emantzipatu ez diren eta etxebizitza behar duten gazteek uste dute irtenbide nagusietako batzuk etxebizitza babestu gehiago egitea (batez ere, alokairu-erregimenean) eta errenta txikiagoko alokairua sustatzea izan daitezkeela

Euskadin etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek etxebizitzari lotutako arazoa konpontzeko gehien aipatzen dituzten bi neurriak, proposamen-zerrenda batetik aukeratuak, etxebizitza babestu gehiago egitea eta errenta txikiagoko alokairu-erregimena sustatzea dira. Neurri horien atzetik beste neurri batzuk ere aipatu dituzte: etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea eta hipoteka-maileguen interesak jaistea.

Bestalde, EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazte gehienak (% 62,2) ados daude (erabat ados edo nahiko ados) eraikitze hurrengo etxebizitza babestu gehienak alokairukoak izatearekin.

Halaber, emantzipatu ez diren eta EAEn etxebizitza bat behar duten gazteei galdetu zaie zer irizten dioten etxebizitza hutsei kanon bat ezartzearen gaineko erabakiari. Erdiak baino zertxobait gutxiago (% 48,7) ados daude balizko neurri horrekin (erabat ados edo nahiko ados). Nabarmenezkoa da, edonola ere, galdetu zaien gazteen laurdenek ez dakitela edo ez dutela erantzun.

4.20. grafikoa

Etxebizitzaren arazoari eman dakizkiokeen irtenbide nagusiak, Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen iritziz, 2023an* (%)



*Bi erantzun eman zitezkeen

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

4.11. Etxebiden izena ematen duten gazte gehienek alokatzeko erregimeneko etxebizitza eskatzen dute, baina Etxebideren eskaintza urrun dago eskaera osoa betetzetik


2023an EAEn etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen erdiek baino gehixeagok (% 53,5ek) adierazi dute Etxebide ezagutzen dutela. Bestalde, % 28,5ek adierazi du Etxebizitza Zerbitzu Publikoa aipatzea entzun dutela, baina ez dutela zuzenean ezagutzen. Eta % 18,0k aitortu du ez duela ezagutzen.

Etxebideko izen-emateei dagokienez, 2023. urtearen amaieran, 35 urtetik beherako eskatzaileen 33.608 espediente zeuden erregistratuta Etxebiden. Gazteen 33.608 espediente horietatik 21.135 espedientetan alokairuko etxebizitzak eskatzen zituzten; eta 12.473 espedientetan jabetzako etxebizitzak eskatzen zituzten, hau da, espedienteen ia bi herenetan alokairuko etxebizitzak eskatzen zituzten (% 62,9).

Etxebiden etxebizitza eskatzen zuten (alokairuan zein jabetzan) gazteen espediente kopurua nabarmen igo zen 2022tik 2023ra; zehazki, 25.530 izatetik 33.608 izatera aldatu zen.

4.21. grafikoa


Euskadin etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen banaketa, Etxebideren ezagutza-mailaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta (Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta)

4.22. grafikoa

Etxebiden 2023an erregistratutako etxebizitza-eskaerako espedienteen banaketa, titularrak 35 urtetik beherakoak badira, eskatutako edukitze-erregimenaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak emandako datuetan oinarrituta

Etxebizitza publikoak esleitzeari dagokionez, Etxebideko hainbat programari erreparatuta (kontratu bisatuak, Bizigune eta ASAP), 2023an 872 etxebizitza esleitu zitzaizkien alokairu-erregimenean 18 eta 34 urte bitarteko gazteei; salmenta-erregimenean gutxiago, 380 baino ez. Guztira, 1.252 etxebizitza esleitu zitzaizkien 35 urtetik beherako gazteei, 2022an baino gutxiago (orduan 1.452 ziren).

Datuak ikusita, argi dago Etxebideren etxebizitza-eskaintza ez dela nahikorik gazteen eskaerei aurre egiteko. Gaztelagun eta Emantzipa programek etxebizitza-arazoak dituzten gazteei lagundu nahi diete. Zehazki, zuzeneko laguntzak ematen dizkiete merkatu libreko etxebizitza bat eskuratzeko.

4.12. Ia 8.000 gaztek Gaztelagun programako laguntza kobratu zuten 2023an

Gaztelagun programa 2019an hasi zen, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Aginduan oinarritu zen. Agindu horren bidez, Gaztelagun programako etxebizitzak alokatzeko laguntzen deialdia egiten da¹⁶. Deialdia EHAA-n argitaratu zen, 2018ko abenduaren 28an. Programaren helburua gazteen emantzipazioa bultzatzea da; horretarako, zuzeneko laguntzak ematen dira, ohiko etxebizitzaren hileko alokairu-errentaren zati bat ordaintzeko.

Lehen urtean metatutako esperientziaren ostean, 2019ko abenduaren 10eko aginduak aldaketak egin zituen programan¹⁷: etxebizitza eskuratzeko gutxieneko adina 23 urtetik 18ra jaitsi zen, diru-sarreraren mugak handitu ziren eta, harrezkero, alokairu-errentak eguneratu daitezke, baldin eta kontratuan aurreikusita bada, eta KPlak ezarritako mugara egokitzen bada.

2022ko apirilaren 26ko Aginduak¹⁸ laguntza iraunkorreko programa bihurtu zuen Gaztelagun eta, horrez gain, honako hobekuntzak egin zituen: hiru hiriburuetan baimendutako hasierako gehieneko errenta kopurua handitu zuen (775 eurotik 800 eurora), bai eta diru-laguntza eskuratzeko urteko diru-sarrera gordinen gehieneko muga ere (norbanakoentzat 18.000 eurotik 24.500 eurora, familia unitateentzat 24.000 eurotik 30.000 eurora eta familia ugariarentzat 28.000 eurotik 32.000 eurora); etxebizitza bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezartzeko balio duen errentaren ehunekoa ere handitu zen (%60); eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoa ere bai (275 euro). Azkenik, laguntzak jasotzeko nahitaezko betekizunetako bat aldatu da; alegia, bizilekua benetan eta modu jarraituan Euskal Autonomia Erkidegoan eduki izanaren gutxieneko muga sei hilabetera jaitsi da, laguntza eskuratu ahal izatea errazteko eta gazteen mugikortasuna bultzatzeko. Hasieran gehienez hiru urteko iraupena zuen laguntza gaur egun 36 urte bete arte jaso daiteke, denbora-mugarik gabe, betiere eskatutako baldintzak betetzen badira¹⁹.

¹⁶ 249. zenbakiko EHAA, 2018ko abenduaren 28koa. Agindua, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena [linean]. Hemen irakurgai: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018006381> [Kontsulta: 2024-05-27]

¹⁷ 239. zenbakiko EHAA, 2019ko abenduaren 17koa. AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena [linean]. Hemen dago ikusgai: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019005757> [Kontsulta: 2024-05-27]


¹⁸ 87. zenbakiko EHAA, 2022ko maiatzaren 6koa. AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzak [linean]. Hemen dago ikusgai: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2022001931> [Kontsulta: 2024-05-27]

¹⁹ Laguntza jasotzeko oinarritzko beste baldintza batzuk honako hauek dira: ezin etxebizitza baten titular ez izatea, salbu eta egiaztatzen bada ezin duela etxebizitza hori erabili; ez duela ez babes publikoko

2023an 18 eta 35 urte bitarteko 7.887 gaztek Gaztelagun diru-laguntza jaso zuten, urte osoan edo urtearen hilabete batzuetan, behintzat. Diru-laguntza hori jaso duten pertsonen kopurua pixkanaka hazi da azken urteotan, baina igoera handiena 2022tik 2023ra osatu da, 2022ko hobeak sartu ondoren. Hobeak horiek baldintzak lausotu zituzten, eta, hartara, harrezkero errazagoa da gazte gehiagok laguntza hori eskatu ahal izatea. Gaztelagun diru-laguntza jasotzen duten emakume gazteen kopurua gizonen gazteena baino askoz ere handiagoa da urte guztietan.

4.23. grafikoa

Gaztelagun programaren diru-laguntza jaso duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteen kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera (absolutuak)



* 16 espedientetan ez da sexua zehaztu; horregatik, gizonen eta emakumeen batura ez da guztizkoaren berdina.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta


Ematen diren diru-laguntzen erdia baino gehiago 24 eta 29 urte bitarteko gazteentzat dira, eta hala gertatzen da urte guztietan. Eta 2022tik diru-laguntza gehiago esleitu zaie etxebizitza partekatuetan bizi diren pertsonari, ez partekatuetan bizi direnei baino.

2023ko datuei erreparatuta, onuradunen % 53,6 Bizkaian bizi dira; % 29,3 Gipuzkoan; eta % 17,1 Araban. Ehuneko horiek proportzional samarrak dira, gazteen lurralde historikoen arabera banaketa efektiboa kontuan hartuz gero.

etxebizitza alokairuan, ez, Bizigune edo ASAP programen bidez, etxebizitza pribaturik errentan; errentatzailearekin familia-loturarik ez izatea, eta bestelako gizarte-laguntzarik ez jasotzea, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), alokairu-gastuei lotutako Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL), Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO), Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa (EPE) edo alokairu-gastuei aurre egiten laguntzen duten beste laguntza publiko batzuk. Hala ere, Gaztelagun programaren diru-laguntza bateragarria da 25 eta 29 urte bitarteko gazteei berariaz zuzendutako Emantzipa programarekin.

4.24. grafikoa

Gaztelagun programako diru-laguntzen onuradun izan diren 18 eta 35 urte bitarteko pertsonen banaketa 2023an, adin-taldean, lurralde historikoaren eta errentamendu-motaren arabera (%)



* 16 espedientetan ez da sexua zehaztu; horregatik, gizonen eta emakumeen batura ez da guztizkoaren berdina.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak emandako datuetatik abiatuta

4.13. Emantzipa diru-laguntzen programan 5.496 eskaera jaso ziren lehen hiru hilabeteetan

2024ko otsailaren 20an Emantzipa programa indarrean jarri zen; haren bidez, emantzipatzeko diru-laguntzak ematen dira. Programa hori, gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programaren laguntzak arautzen dituen abenduaren 26ko 191/2023 Dekretuaren bidez ezarri zen²⁰ eta Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Sailak sustatu du.

Abenduaren 26ko 191/2023 Dekretuan jaso den bezala, Emantzipa programak hilean 300 euroko diru-laguntza ekonomiko zuzena aurreikusten du, gehienez ere bi urtez, 25 eta 29 urte bitarteko gazteentzat²¹, baldin eta 28.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte; edo 34.000 eurotik beherakoak, ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin batera zergak ordaintzeko aitortpena egiten badute; eta kasu bietan, 3.000 eurotik gorakoak. Gaztelagun programan ez bezala, Emantzipa diru-laguntzak balio du alokairu- zein hipoteka-gastuei aurre egiteko.

2024ko otsailaren 20an hasi zen eskaerak aurkezteko epea, eta maiatzaren 20ra arte 5.496 jaso dira. Horietatik, 2.182 gizonenak dira (% 39,7) eta 3.314 emakumeenak (% 60,3). Lurraldeko


²⁰12 zenbakiko EHAA, 2024ko urtarrilaren 26koa: 191/2023 Dekretua, abenduaren 26koa, gazteen emantzipaziorako Emantzipa Programaren laguntzak arautzen dituena. Hemen dago ikusgai: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/01/2400196e.pdf> [Kontsulta: 2024-05-27]

²¹ Laguntza adin-tarte horretako gazteentzat pentsatuta dago. Helburua emantzipatzeko batez besteko adina 30 urtetik behera aurreratzea da.

banaketa bat dator gazteek lurralde historiko bakoitzean duten pisuarekin: eskaeren % 51,7 Bizkaikoak dira; % 33,7, Gipuzkoakoak; eta % 14,6, Arabakoak.

4.25. grafikoa

Emantzipa laguntza-eskabideen banaketa lehenengo 3 hilabeteetan, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (absolutuak)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Programaren lehen hiru hilabeteetako indarraldian diru-laguntza eskatu dutenen batez besteko adina 27,6 urte da. Adinen arabera banaketak ziurtatzen du 25 eta 29 urteko adinak muga naturalak direla, diru-laguntza jasotzeko: beheko muga diru-sarrerak oraindik eskasak edo ezegonkorragoak direlako emantzipazioan pentsatzeko; eta, goiko muga, diru-sarrerak jada nahikoak direlako, eta, hartara, etxebizitza bat eskuratzeko laguntza ez baita hain beharrezkoa. Adin-muga bietako eskatzaileen kopurua tartearen erdialdekoa baino txikiagoa da.

4.26. grafikoa

Emantzipa laguntza-eskabideen banaketa lehenengo 3 hilabeteetan, adinaren arabera (absolutuak)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Diru-laguntza eskatu dutenen edukitze-erregimen ohikoena alokairua da: eskatzaileen % 72,4 alokairu-erregimenean dago. Bestalde, % 27,6k hipoteka ordaintzeko eskatu dute diru-laguntza.

Kopuru absolutuetan 2.774 eskabide partekatutako alokairu-erregimenean edo errentamendu bateratuan bizi diren gazteenak dira. Horiek eskabideen % 50,5 osatzen dute. 1.202 gazte banakako alokairuan bizi dira (guztizkoaren % 21,9). Bestalde, 1.520 gaztek beren etxebizitzaren hipoteka ordaintzeko eskatu dute diru-laguntza. Haietatik 904k etxebizitzaren jabetza partekatzen dute (eskaera guztien % 16,4), eta 616 banakako jabetzako erregimenean daude (eskaeren % 11,2, hain zuzen ere).

4.27. grafikoa

Emantzipa laguntza-eskaeren banaketa, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Laguntza hori bateragarria da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarekin eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzekin, bai eta Gaztelagun programako laguntzekin eta etxebizitzarako beste laguntza batzuekin ere.

Emantzipa diru-laguntza eskatu dutenen % 35,9k beste diru-laguntza batzuk jasotzen dituzte. Gehienek Gaztelagun diru-laguntza ere jasotzen dute, zehazki, eskatzaileen % 29,9k.

Maiatzaren 28an, hau da, programa hasi eta hiru hilabete eta aste batera, 1.398 eskatzaileari eman zaie. Onartu diren espediente gehienak (% 71,6, zehatz-mehatz; 1.001 espediente) alokairu-etxebizitza baten errenta ordaintzeko dira, eta 397 (% 28,4) etxebizitza baten hipoteka ordaintzeko. Sexuaren arabera, espedienteen % 62,6 (875 espediente) emakumeek bete dituzte; eta % 37,4 gizonek (523 espediente).

4.28. grafikoa

2024ko maiatzaren 28ra arte emandako Emantzipa diru-laguntzen banaketa, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

4.14. Emantzipazio berantiarraren ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoan arazo handia da gazteek etxebizitza bat lortzeko aukerak izatea. EAEko higiezin merkatuko prezioak oso altuak dira, eta, gainera, alokairu-eskaintza urria da. Gainera, alokairuko parkearen zati gero eta handiagoa turistei alokatzeko erabiltzen da.

Etxebizitza bat jabetzan zein alokairuan eskuratzeko zailtasun horrek gurasoen etxetik irteteko adina geroraten du, eta, hartara, gazteen bizitza autonomoaren hasiera ere bai. Emantzipatzeko diru-laguntza publikoak onuragarriak dira diru-sarrera propioak dituzten gazteentzat, beren diru-sarrerak emantzipatzeko proiektuari aurrera egiteko behar direnak baino txikiagoak direnean.

Gazteen emantzipazio berantiarrak ondorio negatiboak izaten ditu, bai gazteengan, baita gizarte osoan ere. Maila indibidualean, atzeratu egiten du bizitza-proiektuak garatzea, hau da, modu independentean bizitzea eta, nahi izanez gero, familia osatzea, seme-alabak edukitzea...; batzuetan, proiektu horietako batzuei uko egin behar izatea dakar, adibidez, nahi den seme-alaba kopurua izatea edo haurrak nahi den adinean ekartzea.

Norberaren nahiak alde batera utzita, datu estatistikoek egiaztatzen dute ama lehen aldiz izateko batez besteko adina atzeratu egin dela. Lehen haurra izateko batez besteko adinaren atzerapen horrek jaiotza-tasaren jaitsiera dakar ondorioz; gainera, bizi-itxaropenaren igoerari

lotuz gero, euskal gizartea zahartzea dakar (Euskadiko biztanleriaren batez besteko adina, 45,6 urtekoa da 2023ko urtarrilaren 1ean)²².

Gizartea zahartzeak agerian uzten ditu emantzipazio berantiarren ondorioak gizarte mailan. Adinekoak mantentzeko baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiago bideratu beharrak —pentsioak, diru-laguntzak, osasun arloko asistentzia-baliabideak, adinekoentzako egoitzak eta tutoretzapeko pisuak eta abar—eskuragarri dauden baliabideak beste era batean banatzea dakar.

²² Eustat: Biztanleriari buruzko estatistikak, zehazki, EAEko biztanleriaren batez besteko adina, lurralde-eremuen arabera, sexuari jarraiki [linean]. Hemen dago ikusgai:
https://eu.eustat.eus/elementos/ele0020400/ti_edad-media-de-la-poblacion-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-sexo-01012023/tbl0020448_e.html [Kontsulta: 2024-05-17].

5. OSASUNA

Askotan, gaztaroari buruz hitz egitean, osasunari ez zaio garrantzi handirik ematen, osasun ona gazteentzat berezkoa dela pentsatzen delako. Hala ere, funtsezko alderdia da bizitzan, eta gazteek beraiek garrantzi handia ematen diote osasunari, fisikoari zein mentalari, beste alderdi askoren gainetik eta soilik familiari emandako garrantziaren azpitik²³.

Kapitulu honetan, gazteek beren osasunari buruz duten pertzepzio subjektiboari, ohitura osasungarriari (jarduera fisikoari, esaterako) buruzko datuak ematen dira, baina, batez ere, osasunerako arriskutsuak diren jokabideei buruzko datuak, oro har gaztaroan hasten direnak, hala nola drogen kontsumoa, legezkoak eta legez kanpokoak, substantziarik gabeko adikzioak, sexu-transmisioko gaixotasunak, eta abar. Kapituluaren amaieran, gazteen heriotza-tasei buruzko datuak ematen dira.

5.1. Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela, baina gazteen artean, hots, 15 eta 19 urte arteko taldean, beren osasunari buruzko pertzepzio txarrak gora egin du

2023an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 6,3k uste dute beren osasuna hala-holakoa, txarra edo oso txarra dela. Datu hori, oso handia ez bada ere, altuena da 2002tik aurrera. Emakume gazteen ehuneko hori (osasun propioaren pertzepzio txarrari buruzkoa) gizonena baino handixeagoa da, eta aldea ehuneko 1,4 puntukoa da 2023an.


2023an irauli egin da adin-taldeek beren osasunari buruz duten pertzepzioa: egun arte, zenbat eta urte gehiago eduki, orduan eta handiagoa zen osasun txarra izateari buruzko pertzepzioa; azken neurketan, ordea, 15 eta 19 urte arteko gazteek osatu dute adierazle horren ehunekorik handiena (% 8,8); 20 eta 24 urte bitartekoena (% 4,4) baino 4 puntu handiagoa da; eta 25 eta 29 urte bitartekoena (% 5,3) baino 3 puntu handiagoa.

EAEko gazteen artean osasun txarra izateari buruzko pertzepzioa handitu den arren, hala-holako osasuna, txarra edo oso txarra dutela pentsatzen duten gazteen ehunekoa Espainiako gazteen batezbestekoa (% 8,8, 2022an) eta Europako gazteena (% 8,9, 2022an) baino txikiagoa da.

²³Gazteen Euskal Behatokia (2024): Aurrera Begira. Gazteen aurreikuspeni buruzko 2023ko adierazleak [linean]. Hemen dago ikusgai: https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/noticia/aurrera_begira_23/eu_def/adjuntos/Aurrera_Begira_2023_e.pdf [Kontsulta: 2024-06-20]

5.1. grafikoa

Osasun txarraren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea)

Bestalde, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 18,5ek osasun-arazo kronikoren bat du, jarraitua edo iraupen luzekoa, edo maiztasun jakin batekin errepikatzen dena (adibidez, asma, alergia kronikoak, larruazaleko arazoak, diabetesa eta abar). Adierazle horrek egonkor jarraitu du 2018tik, eta berresten du 5 urte lehenago izandako beherakada, aurreko neurketekin erkatuta.

5.2. grafikoa

Osasun-arazo kronikoen prebalentziaren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea)

Osasun-arazo kronikoak dituzten EAEko gazteen ehunekoa EBko batezbestekoa baino 1,3 puntu handiagoa da 2022an (% 17,2); eta Espainiako gazte guztiena (% 16,6) baino 1,9 puntu handiagoa 2022an.

EAEEn, osasun txarrari buruzko alderdietan, emakume gazteen ehunekoa gizon gazteenak baino handixeagoak dira (emakumeenak, % 19,3; eta gizonenak, % 17,7), baina emakume gazteen emaitzek hobera egin dute, aurreko neurketarekin erkatuta; beraz, gizonen eta emakumeen arteko aldea txikiagotu da.

Osasun-arazo kronikoak ere progresiboki areagotzen dira adinarekin: 15 eta 19 urte bitartekoen % 16,5ek dituzte osasun-arazo kronikoak, 20 eta 24 urte bitartekoen % 17,3k, eta, azkenik, 25 eta 29 urte bitartekoen % 21,6k.

Logikoki, zifra horiek urrun daude biztanleria osoaren batezbestekotik, osasun-arazo kronikoak dituzten gizon guztien ehunekoa % 41,4 da; eta emakumeena, % 42,3.


5.2. Gazteen obesitate-tasa % 5etik behera dago

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 4,8 obesoak dira; hau da, haien gorputz-masaren indizea 30etik gorakoa da. Azken urteotan obesitate-tasak egonkor samar jarraitu du, eta gazteen artean % 6tik behera dago.

Aztertutako 20 urteotan gizonen obesitate-tasa handixeagoa da, emakumeenarekin erkatuta, nahiz eta ehuneko aldeak oso txikiak izan. 2023an 15 eta 29 urte bitarteko gizonen obesitate-tasa % 5,3 da; eta emakumeena, % 4,3.

5.3. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen obesitate-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea)

Tasa hori EAEko biztanle guztien tasarekin erkatzen badugu, ikusten dugu gazteen arteko obesitate-tasa ia hiru aldiz txikiagoa dela. EAEko gizon guztien obesitate-prebalentzia % 14,1 da; eta emakumeena, % 13,1.

5.3. Jarduera fisikoak gora egin du; hamar gizon eta emakume gaztetik bederatzik jarduera fisiko osasungarriren bat egiten dute


15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 90,0k diote jarduera fisiko osasungarria egin dutela inkestaren aurreko astean, dela modu neurritsuan, dela intentsitate handiz. Jarduera fisikoa kirola egitea baino modu zabalagoan ulertzen da. Gazteen jarduera fisikoak nabarmen egin du gora 2007an seriea hasi zenetik: azken 15 urteetan 20 puntu baino gehiago handitu da.

Jarduera fisikoaren igoera handiagoa izan da emakumeen artean, gizonen artean baino. Emakumeek ehunekoa txikiagoa zuten hasieran, eta, hala ere, ia gizonen ehunekoa berdindu dute 2023an (% 89,4 eta % 90,7, hurrenez hurren).

Adin-taldeen arabera eta jarduera fisikoari dagokionez, 15 eta 19 urte artekoek ehuneko handiagoa osatu dute (% 93,3). Atzetik, 25 eta 29 urte arteko taldea dator (% 89,8); eta, azkenik, 20 eta 24 urte bitarteko taldea dago (% 86,5). Dena den, talde guztietan, jarduera fisiko osasungarria egiten duten gazteek gehiago zabala osatzen dute.

5.4. grafikoa

Jarduera fisiko osasungarria egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea)

5.4. Tabakoaren kontsumoak behera egin du gazteen artean, eta 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren batezbestekoaren azpitik jarraitzen du


2023an egunero tabakoa kontsumitzen duten gazteen ehunekoak beherakada txikia izan du, 2017. urtearekin erkatuta. Egunero erretzen duten gazteen ehunekoa % 17,4 da; eta 2012tik hona gertatu den bezala, EAEko biztanle guztien batezbestekoa (% 19,7) baino txikiagoa da.

2008tik 2023ra EAEn tabako erretzen duten gazteen ehunekoa erdira murriztu da. Espazio partekatuetan tabakoa erretzeko eta adinez txikikoei tabakoa saltzeko debekuek zerikusi handia dute murrizketa horrekin.

Azken neurketa 2023koa da, eta orduan, 2017an bezala, emakume eta gizon gazteen artean ez dago alde handirik, tabako erretzeari dagokionez.

5.5. grafikoa

15-29 urteko ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta seriea)

2023an, tabakoa erretzen hasteko batez besteko adina 16 urte da.

5.5. Alkohol-kontsumo arriskutsuak behera egin du

2023an 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 34,4k arrisku handia edo ertaina dakarren alkohol-kantitatea edan du inkesta egin aurretiko hilabetean. Kontsumo arriskutsua dakarten kantitateak honako hauek dira: astean 14 edari unitate estandar (EUE)²⁴ baino gehiago gizonentzat; eta 7 EUE baino gehiago emakumeentzat.


Kontsumo arriskutsu hori pixkanaka gutxituz joan da 2004tik, eta 2023an izan du seriean erregistratutako baliorik txikiena.

Datu-serie osoan alkohol-kontsumo arriskutsua emakumeen artean baino handiagoa izan da gizonen artean. Hala ere, 2023an txikiagotu da bi talderen arteko aldea, gizonen kontsumo arriskutsua emakumeena baino askoz ere gehiago jaitsi delako.

²⁴ Edari Unitate Estandar (EUE) bat 10 gramo alkohol etilikoren baliokidea da.

5.6. grafikoa

Azken hilabeteen alkohol-kontsumo arriskutsua izan duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta seriea)

Inkesta hori egin aurreko urtean alkohola kalean inoiz edateko maiztasuna ere nabarmen jaitsi da 2023an. 2008tik 2017ra datu hori nahi egonkor zegoen, % 40tik gora; hala eta guztiz ere, 2023an ehuneko hori % 31,3ra jaitsi da.

Gizonen (% 33,0) eta emakumeen (% 29,5) artean ia ez dago alderik, baina adin-taldearen arteko aldeak, ordea, handiak dira; zenbat eta gazteago izan, gero eta gazte gehiagok edaten dute alkohola kalean. Nolanahi ere, hiru adin-taldeetan behera egin du kalean edaten duten gazteen ehunekoak.

5.7. grafikoa

Azken urtean noizbait botiloia egin duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, adinaren arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta seriea)

Inkesta egin aurretiko 12 hilabeteetan botiloia noizbait egin dutenen ehunekoa maiztasunaren arabera banakatzen badugu, haxe ondorioztatzen dugu: 2023ko datuen arabera, portzentajerik handiena urtean behin edo bitan egin dutenei dagokiola (% 18,9k); gero, hilabeteetan behin edo bitan egin dutenen ehunekoa dator (% 10,8k); eta % 1,7k soilik adierazi du kalean astero edo ia astero edan dutela.

Alkohola kalean edateko maiztasuna oso txikia da 25 urtetik gorakoen artean.

5.8. grafikoa

Azken urtean 15 eta 29 urte bitarteko gazteek botiloi egin duten maiztasuna 2023an, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta seriea)

Alkohola edaten hasteko batez besteko adina 15,4 urtekoa da, eta egonkor jarraitu du 2000 urtetik aurrera.

5.6. Kalamuaren kontsumoak ere behera egin du, nahiz eta hamar gizon gaztetik batek kontsumo arriskutsua egiten duen


2023an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,7k adierazi du kalamua hartu duela inkesta egin aurreko hilabeteetan. Kalamuaren kontsumoa hedatuago dago gizonen artean (% 13,8) emakumeen artean baino (% 5,2).

EAEko biztanle guztien kontsumoa (% 4,1) baino handiagoa da gazteena. Edonola ere, kalamua hartzen duten gazteen ehunekoak nabarmen egin du behera, eta inkesta egin aurreko hilabeteetan kalamua hartu dutenen ehunekoa 2008koa baino askoz ere txikiagoa da, urte hartako ehunekoa % 20tik gorakoa zelako.

Kalamua hartzen hasteko batez besteko adina urte erdia atzeratu da 2017tik 2023ra, zehazki, 16,7 urtetik 17,1 urtera.

5.9. grafikoa

Azken hilabeteen kalamua kontsumitu duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta seriea)

Adikzioen gaineko 2023ko azken Inkestan kalamuaren kontsumo arriskutsua neurtzeko hurbilketa bat egin da. Horretarako, *Cannabis Abuse Screening Test (CAST)*, hau da, Kalamuaren Adikzio Testa erabili dute. Horretan jotzen da honako irizpide 6 hauetatik 4 edo gehiago betetzen dituztenek kontsumo arriskutsua egiten dutela: kalamua eguerdia baino lehen kontsumitzea; kalamua bakarka hartzea; kalamua hartzean, oroimen-arazoak izatea; lagunek eta familiakoek pertsona horri esatea gutxiago hartu beharko lukeela; saiatu arren, gutxiago kontsumitzea ez lortzea; eta, azkenik, kontsumoaren ondoriozko arazoak edukitzea (liskarrak, borrokak, istripuak, eskolako emaitza txarrak edo laneko etekin txikia).

Baremo horren arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 6,7 arriskuan daude kalamu adikzioa garatzeko, beren kontsumoa dela eta. Gizonen ehunekoa % 10,4 da; eta emakumeena, % 2,6. Biztanle guztiek kalamuarekiko adikzioa garatzeko arrisku-ehuneko txikiagoa osatu dute (% 3,0, zehatz-mehatz), gazteekin erkatuta.

5.7. Substantzia psikoaktiboak hartzeagatik hasitako tratamenduek behera egin dute. 2022an hasi diren tratamenduen % 43,7an kalamua da substantzia nagusia


Droga-kontsumoa biztanleria osoari egiten zaizkion inkestetan gutxitan agertzen den fenomeno bat izan ohi da, gizarteak gaitzesten duelako eta prebalentzia txikia duelako. Hori dela eta, zaila da gai hori behatzea inkesten bidez. Droga-kontsumoaren bilakaera aztertzeko, beste tresna bat daukagu: droga-mendekotasunaren ondorioz hasitako tratamenduen erregistroak.

Substantzia psikoaktiboak, alkohola barne, kontsumitzeagatik tratamendura onartutako EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kopuruak pixkanaka behera egin du azken hamar urteetan, eta 2022an, 1.000 gazteko tasa 2ren azpitik dago.

Drogen kontsumoari buruzko beste adierazle batzuk bezala, adierazle horrek adierazten du droga-mendekotasunaren ondoriozko tratamendua hasten duten mutilak gehiago direla neskak baino (2,9 gizon eta 0,9 emakume, sexu bereko 1.000 gazteko). Ehunekoetan tratamendura onartu diren gizonen ehunekoa onarpen guztien % 78,0 izan da 2022an; eta emakumeena, % 22,0.

5.10. grafikoa

Substantzia psikoaktiboak kontsumitzeagatik tratamenduren bat hasi duten 15-29 urteko gazteen tasaren bilakaera, sexuaren arabera (tasa 1.000 biztanleko)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Toxikomanien Informazio Sistema)


Zenbaki absolutuetan, 15 eta 29 urte bitarteko 595 gaztek droga-mendekotasunari lotutako tratamenduren bati ekin zioten 2022an; datu horrek urte horretan tratamendura onartu ziren adin guztietako pertsona guztien % 20,3 osatzen du.

Kalamua droga nagusi gisa izan zuten 2022an tratamenduan hasi ziren gazteen % 43,7k, zehazki, 260 kasu izan ziren. Horren atzetik, kokaina dago, gazteek hasitako tratamenduen % 23,0 (137 kasu); alkohola, % 19,2 (114 kasu); anfetaminak, % 5,4, (32 kasu); heroína, % 1,2 (7 kasu); eta, azkenik, beste droga batzuek kasuen % 7,5 osatzen dute (45 kasu).

EAEko biztanleria osoan, tratamendua eskatzeko substantzien banaketa bestelakoa izan da 2022an: tratamendu-hasiera gehien eragin zituen substantzia alkohola izan zen, urte horretan tratamendu hasieren % 43,7 eragin baitzuen; ondoren, kokaina (% 21,0) eta kalamua (% 15,7) datoz.

5.11. grafikoa

2022an droga-mendetasunengatiko tratamendua hastea eragiten duen droga nagusia 15-29 urteko gazteen eta Euskadiko biztanle guztien artean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Toxikomanien Informazio Sistema)

5.8. Hamabost eta hogeita bederatzi urte arteko gizonen % 2,2k jokoarekiko joera arriskutsuak dituzte

Adikzioen gaineko 2023ko inkestaren arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 26,7k azken urtean diru jokatu du. Sexuaren arabera, alde handia dago: gizon gazteen % 35,0k; eta emakume gazteen % 7,5ek.

Joko patologikoa edo problematikoa neurtzea zaila da, gizartean gaitzesten duen jokabideari buruzko datuak biztanleriari egiten zaion inkestaren bidez lortzeko zailtasunaz gain, joko patologikoaren fenomenoak, berez, pisu oso txikia duelako. Lortutako datuak kontu handiz aztertu behar dira. Errealitatearen isla zehatzaren ordez, fenomenoaren hurbilketa gisa hartu behar dira.

Adikzioen gaineko 2023ko inkestan, EAEko biztanleek jokoarekin joera problematikoa garatzeko arriskuarekiko hurbilketa bat egin zen. *Buruko nahasmenduen diagnostiko- eta estatistika-eskuliburuan* (DSM-5) joko patologikoa identifikatzeko ezarritako 9 irizpideetatik behintzat 1 betetzen badu²⁵, jo da pertsona horrek jokoarekiko joera arriskutsua duela; horren arabera, 15

²⁵ Honako hauek dira Buruko Nahasmenduen Diagnostiko- eta Estatistika-Eskuliburuan ezarritako 9 irizpideak:


- [1] Gero eta diru-kopuru handiagoak apustu egin behar izan dituzu nahi zenuen kitzikapena lortzeko.
- [2] Urduri edo narritatuta egon zara jokoak murrizten edo uzten saiatu zarenean.
- [3] Behin eta berriz saiatu zara jokoak kontrolatzen, murrizten edo uzten, beti arrakastarik gabe.
- [4] Maiz izan duzu burua apustuetan (adibidez, iraganeko apustuen esperientziak berrituz; hurrengo apustua planifikatuz; apustuak egiteko dirua lortzeko moduetan pentsatuz...).
- [5] Sarritan jokatu duzu urduritasuna sentitzen zenuenean (adibidez, erruduntasuna, antsietatea, depresioa).
- [6] Apustuetan dirua galdu ondoren, beste egun batean jokatu duzu, irabaziz gero galdutako dirua berreskuratzeko.
- [7] Gezurra esan duzu jokoan duzun inplikazio-maila ezkutatzeko.

eta 29 urte bitarteko gazteen % 1,1 arriskuan dago. Gazteen artean, jokoarekiko joera arriskutsua gizonak baino ez dute garatzen (% 2,2).

Biztanleria osoan antzeko joera behatzen da: jende gutxi dago arriskuan eta gizonak emakumeek baino prebalentzia handiagoa dute. Biztanleen % 0,9 joko patologikoa garatzeko arriskuan dago (gizonen % 1,2 eta emakumeen % 0,6).

5.12. grafikoa

Joko problematikoa garatzeko arriskua duten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoa 2023an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2023)

Bestalde, aipatutako 9 irizpideetatik 4 edo gehiago betetzen dituztenei, hau da, joko patologikoarekiko irizpideari erreparatzen badiugu, ikusten dugu gazteen % 0,3k joko patologikoa egiten duela (EAEko biztanle guztien ehuneko bera da).

5.9. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazteen % 16,3k Interneten erabilera problematikoa egiten du. Emakumeen eta gazteen artean handiagoa da ehuneko hori

Internet modu problematikoan edo inpulsiboan erabiltzen duten pertsonen ehunekoa CIUS, Compulsive Internet Use Scale²⁶, bidez neurtu da 2023ko Adikzioei buruzko Euskadiko inkestan. Ebaki-puntua gutxienez 28 puntukoa izan da.

[8] Jokoaren ondorioz, honakoak galdu dituzu edo arriskuan jarri dituzu: harreman garrantzitsuren bat, zure enplegua, ikasketetan edo karrera profesionalean-aukerak.

[9] Besteak kontuan hartzen dituzu, jokoak eragindako finantza-egoera larria arintzeko dirua eman diezazuten.

²⁶ Honako hauek dira CIUS (Compulsive Internet Use Scale) eskalako 14 galderak:

[1] Zein maiztasunez egin zaizu zaila konektatuta zaudenean Internet erabiltzeari uztea?

[2] Zein maiztasunez jarraitu duzu Internetera konektatuta, gelditu nahi izan baduzu ere?

[3] Zein maiztasunez esaten dizute gurasoek edo lagunek denbora gutxiago eman beharko zenukeela Interneten?

[4] Zein maiztasunez nahiago izaten duzu Internetera konektatu beste batzuekin (gurasoekin, lagunekin..) denbora pasatu beharrean?

[5] Zein maiztasunez egiten duzu lo gutxiago Internetera konektatuta egoteagatik?


[6] Zein maiztasunez pentsatzen duzu Interneten, konektatuta ez egon arren?

Inkestaren arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 16,3k Internet modu problematikoan erabiltzen du. Jokaerakik jokoaren gertatzen den ez bezala, Internet modu konpulsiboan erabiltzeko joerak prebalentzia handiagoa du emakume gazteen artean (% 20,8), gizon gazteekin erkatuta (% 12,1). Adin-tarte gazteenak, hots, 15 eta 19 urte bitartekoenak, Interneten erabilera konpulsibo handiagoa osatu du: % 22,1. Atzetik 20 eta 24 urteko taldea dator (% 19,0); eta horren atzetik, 25 eta 29 urte bitartekoa (% 8,0).

Adierazle horretan gazteek eta biztanle guztiek osatu dituzten ehunekoen arteko aldea handia da. Zehazki, ehuneko 11,9 puntuko aldea dago: EAEko gazteen ehunekoa % 16,3 da; eta EAEko biztanleria osoarena, % 4,4.

5.13. grafikoa

Interneten erabilera problematikoaren egiten duten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoa 2023an, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2023)

Internetek gure bizitzetan hartzen duen leku handiak azaltzen ditu erabilera konpulsiboko ehuneko altu horiek. Erabilitako eskalan erabilera problematikotzat hartu diren jokaerak gazteen artean duten hedadura aztertzen badugu, ikusiko dugu lehenengo postuan (% 20,2ri gertatzen zaio) konektatuta daudenean Internet erabiltzeari uzteko zailtasuna dagoela. Bigarren postuan (% 19,4) Internet gutxiago erabili beharko luketela askotan edo oso maiz pentsatzea dago. Gazteen % 16,2k adierazi du Internet erabiltzen duela goibel dagoenean. % 14,2k aitortu du Internet erabiltzen jarraitu duela, nahiz eta deskonektatzeko gogoia izan. Gazteen % 12,1i gurasoek edo lagunek esan diote denbora gutxiago eman beharko lukeela Interneten; eta % 11,6k adierazi du behar baino lo gutxiago egiten duela, Internetera konektatuta egoteagatik.

[7] Zein maiztasunez konektatu nahi duzu Internetera?

[8] Zein maiztasunez pentsatzen duzu Internet gutxiago erabili beharko zenukeela?

[9] Zein maiztasunez saiatu zara Internetera konektatuta denbora gutxiago pasatzen, eta ez duzu lortu?

[10] Zein maiztasunez saiatzen zara zure lana presaka amaitzen Internetera konektatzeko?

[11] Zein maiztasunez uzten dituzu albo batera zure betebeharrak (etxeko lanak, familiarekin egotea...) Internetera konektatzea nahiago duzulako?

[12] Zein maiztasunez konektatzen zara Internetera "baxu" zaudenean?

[13] Zein maiztasunez konektatzen zara Internetera zure atsekabe edo sentimendu negatiboak ahazteko?

[14] Zein maiztasunez sentitzen zara urduri, frustratuta edota haserre, Internet erabili ezin baduzu?

5.10. Sare sozialetako jazarpenak hamar gaztetik hiruri eragiten die, eta, bereziki, emakumeei


Hamar gaztetik hiruk (% 29,3) sare sozialetako jazarpena jasan dute, pertsona batek (edo batzuek) etengabe mezuak bidaltzen zizkielako, iruzkin desatseginak egiten zizkielako edota irabioak zein mehatxuak botatzen zizkielako. Datu horiek 2023koak dira.

Sare sozialetan jazarpena jasan duten gazteen ehunekoa 2023an egonkortu da, azken urteotan osatutako goranzko joeraren aldean. 15 eta 19 urte bitarteko taldean baino ez da handitu: 2022an, % 27,0 izan zen; eta 2023an, % 29,3 da.

Interneteko jazarpena jasan dutela adierazi duten emakume gazteak gehiago dira gizon gazteak baino: emakumeen % 36,3 eta gizonezkoen % 22,6. Emakume gazteen jazarpen-bizipen handiago hori errepikatu egin da azken urteotan egindako neurketa guztietan.

5.14. grafikoa

Noizbait sare sozialetan jazarpena sentitu dutela dioten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

5.11. Haurdunaldia borondatez eteteko tasak gora egin du 2023an eta 2012tik izandako altuena da

Nerabeen haurdunaldien tasa honela neurtzen da: 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean urtebetean jaiotako haurren kopurua gehi borondatez eten diren haurdunaldien kopurua, adin-tarte horretan dauden 1.000 emakumeko. Tasa hori, 2022an, 3,8, adin horretako 1.000 emakumeko, izan da. 2012-2022 aldiko tasarik txikiena da.

5.15. grafikoa
15-17 urteko emakume nerabeen haurdunaldi-tasaren bilakaera Euskadin
(1.000 emakumeko tasa)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren (Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa) eta Eustaten (Biztanleen udal estatistika) datuetatik abiatuta

Bestalde, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasak, 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 emakumeko, beherakada nabarmena izan zuen 2020an, COVID-19aren ondorioz, mugikortasuna oso mugatuta zegoelako. Hurrengo urteetan tasak goranzko joera izan du, eta 2023an 15,3 haurdunaldi-etendura gertatu dira 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 emakumeko; 2012an hasitako seriean jaso den baliorik altuena.

Haurdunaldiak borondatezko eteteko tasa 15 eta 19 urte bitarteko taldean baino handiagoa da 20 eta 29 urteko taldean. 15 eta 19 urte bitartekoen taldean, 7,5 da (adin horretako 1.000 emakumeko); 20 eta 24 urte bitartekoen taldean, 19,9 (1.000 emakumeko); eta 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, 18,7 (1.000 emakumeko).

5.16. grafikoa
Haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean Euskadin (1.000 emakumeko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa)


5.12. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazteen artean Giza immunoeskasiaren birusak (GIBak) eragindako infekzio berrien kopuruak egonkor jarraitu du, baina sexuaren bidez transmititzen diren infekzioek gora egin dute

2022an, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, GIBak eragindako infekzio berrien kasuak 37 izan ziren. Horrek biztanle guztien infekzio kopuruaren % 29,1 hartzen du. Gazteen artean, infekzio kopuruak gora egin du, 2020ko eta 2021eko emaitzekin erkatuta. Urte horietan GIBak eragindako infekzio berrien intzidentziak behera egin zuen. Igoera osatu arren, 2022ko datua 2018koa (51) eta 2012koa (45) baino txikiagoa da.

Kasu kopurua eta 15 eta 29 urte bitarteko gazte kopurua erkatzen baditugu, 2022an 1,2ko tasa lortzen dugu adin-tarte horretako 10.000 pertsonako.

5.17. grafikoa

GIBak eragindako infekzio berrien tasaren bilakaera EAEko 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (10.000 biztanleko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (HIESaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Plana)


GIBak eragindako infekzio berrien tasa handiagoa izan ohi da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino, eta, gainera, handitu egiten da adinarekin batera. Emakumeen artean infekzio berrien tasa 0,3 da 10.000 emakumeko; gizonen artean, ordea, 2,0ko tasa osatu da 10.000 gizoneko. Adinaren arabera, 15 eta 19 urte bitartekoen taldean, 0,3 da 10.000 pertsonako; 20 eta 24 urte bitartekoen taldean, 1,4 da 10.000 pertsonako; eta 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, 2,0 da 10.000 pertsonako.

GIBak eragindako infekzio berrien intzidentziak egonkor jarraitzen du, baina sexuaren bidez transmititutako infekzio berrien tasarekin ez da gauza bera gertatu (sexu bidezko infekzio horien artean honako hauek daude: infekzio gonokozikoa, sifilisa edo chlamydia, besteak beste). Sexu bidezko infekzio berrien tasa ia 6 aldiz biderkatu da 10 urtean, 2012an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean 11,7 zen 10.000 pertsonako, eta 2022an 67,3 da 10.000 pertsonako. Sexuaren

bidez transmititutako infekzio berrien tasa handiagoa da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino.

5.18. grafikoa

Sexu-transmisiozko infekzio berrien tasaren bilakaera EAEko 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (10.000 biztanleko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (HIESaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Plana)

Sexu-transmisiozko infekzioen kasu berriei buruzko datuak Osakidetzako sexuaren bidez transmititutako infekzioen gaineko kontsulta espezifikotatik atera dira. Honako hauek dira kontsulta horiek: Bilbokoa, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Gaixotasun Infekziosoen Unitatearen mendekoa; Donostiakoa, Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Gaixotasun Infekziosoen Unitatearen mendekoa; Vitoria-Gasteizkoa, Txagorritxuko Ospitaleko Gaixotasun Infekziosoen eta Barne Medikuntzako Zerbitzuaren mendekoa (azken hori 2017an ezarri zen). 2021etik aurrera, Mendaroko Ospitaleko sexuaren bidez transmititutako infekzioen gaineko kontsultan eta Basurtuko eta Donostiako ospitaleetako Mikrobiologia Zerbitzuetan jasotakoak ere zenbatzen hasi dira.

Datu horiek, edonola ere, partzialak dira, eta ez dute zaintza epidemiologikoko sistema bat osatzen. Hala ere, lagungarriak dira egoera aztertzen hasteko eta sexuaren bidez transmititutako infekzioaren bilakaera aztertzeko.

2022an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean sexuaren bidez transmititutako infekzio prebalenteena chlamydia izan zen: urte horretan 1.340 infekzio detektatu ziren. Haren atzetik, infekzio gonokozikoa dago; horren 670 kasu berri detektatu ziren; azkenik, sifilisa dago, eta 79 kasu berri erregistratu ziren. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2012tik 2022ra, sexuaren bidez transmititutako infekzioen gaineko unitateetan infekzio gonokozikoa, sifilisa edota chlamydia diagnostikatuta zituzten gazte kopurua 362 izatetik 2.089 izatera aldatu da. Neurri batean, hori logikoa da gaur egun datuak kontsulta gehiagotan hartzen direlako, baina 2021eko eta 2022ko

datuak erkatzen baditugu, kasu bietan iturri beretatik hartuta, ikus dezakegu igoera nabarmena izan dela (2021ean, 1.452 kasu; eta 2022an, 2.089 kasu).

Sexuaren bidez transmititutako hiru infekzio horien kasu berriak biztanleria osoan aztertuta, igoera ere handia izan da, baina gazteen proportzioak, biztanleria osoarekiko, gora egin du, eta kasu guztien erdia baino gehixeago osatu du 2022an, zehazki, % 52,8, beraz, ia hamabost puntu gehiago, 2012ko datuekin erkatuta (orduan guztizkoaren % 38,1 osatzen zuten gazteen kasuek).


5.13. Antsietatearen eta depresioaren prebalentziak gora egin du, batez ere, emakume gazteen artean

Eusko Jaurlaritzak egin duen Osasunaren gaineko 2023ko Inkestaren arabera, EAEko gazteen % 18,9k antsietatea edo depresioa sentitu dute inkesta egin aurretiko lau asteetan. 2023ko datu hori 2018koa baino ehuneko 10,6 puntu handiagoa da (2018an serieko daturik txikienak jaso ziren).

Antsietate- eta depresio-sintomen prebalentziak emakumeengan zein gizonengan gora egin duen arren, bien arteko aldeak handiak dira: emakume gazteen laurdenek (% 25,6k) adierazi dute antsietate- eta depresio-sintomak izan zituztela aurretiko lau asteetan; aldiz, portzentaje hori % 12,4 da, gizon gazteen artean.

5.19. grafikoa

Antsietate- eta depresio-sintomen prebalentziaren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea)


Emakume gazteen ehunekoa eta emakume guztiena (% 26,6) antzekoak dira. Gizon gazteen artean, ordea, portzentaje hori gizon guztiei dagokiena (% 17,8) baino 5,4 puntu txikiagoa da.

Ezinegon emozionalaren igoera adin-tarte guztietara hedatu da, eta 2023ko datuek 2018koak bikoizten dituzte.

Azken urteotan gazteen eta nerabeen ongizate emozionalak okerrera egin du, eta EAEko Osasun Inkestan ageri geratu da. Gainera, osasun mentalagatiko kontsulten kopurua handitzeak eta profesionalen iritziek ere hori ziurtatzen dute.

5.20. grafikoa

Antsietate- eta depresio-sintomen prebalentziaren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, adin-taldean arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta seriea)

5.14. Gazteen hamar ospitaleratzetik bat nahasmendu mentalaren ondoriozkoa da


2022an 15 eta 29 urte bitarteko 14.189 gaztek alta jaso zuten EAEko ospitale batean (akutuen ospitaleak, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta ospitale psikiatrikoak kontuan hartuta). Haietatik 1.459 buru- edo portaera-nahasmendu baten ondorioz ospitaleratuta egon ziren (alta jaso zuten gazte guztien % 10,3).

Buru- edo portaera-nahasmendu batek eragindako ospitaleratze baten ondoren alta jaso duten gazte kopuruak gora egin du 2017tik 2022ra, bai zifra absolutuetan (1.082 gazte izatetik 1.459 izatera), bai ehunekoetan (2017an, gazteen alta guztien % 7,9 osatzen zuten; eta 2022an, % 10,3 osatu dute). Dena den, urtearen amaieran EAEko ospitaletan jarraitzen duten gazteak ez dira zenbatu.

EAEko biztanle guztiekin erkatuta, ikus dezakegu nahasmendu mentalak edo portaerari lotutako nahasmenduak diagnostikatuta ospitaleratu diren gazteen ehunekoa biztanleria osoari dagokiona baino handiagoa dela. Gazteek, aitzitik, osasun fisikoari lotutako diagnostiko gutxiago jaso dituzte, biztanle guztiekin erkatuta.

5.21. grafikoa

Buru- edo portaera-nahasmendu baten diagnostikoagatik ospitaleratu ondoren alta jaso duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren eta Euskadiko biztanleria osoari dagokionaren bilakaera, urte horietan adin-talde bakoitzean izandako alta guztiekiko (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuetatik abiatuta (Ospitaleetako erikortasun-estatistika)

Buru- edo portaera-nahasmendu baten ondorioz ospitaleratuta egon eta gero, alta jaso duten gizon eta emakume kopuruen artean ez dago alde handirik, termino absolutuetan (752 gizon eta 707 emakume, 2022an), baina ospitalera eraman dituen nahasmendu-motaren arabera, ordea, badago aldea. Gizonek ospitaleratze gehiago izaten dituzte substantzia psikoaktiboek kontsumoak eragindako buru-nahasmenduengatik eta portaera-nahasmenduengatik, bai eta eskizofreniagatik, nahasmendu eskizotipikoagatik, eldarnioagatik eta gogo-egoerarekin zerikusirik ez duten beste nahasmendu psikotiko batzuek ere. Emakume gazteek, aldiz, gizonek baino ospitaleratze kopuru handiagoak dituzte honako arrazoi hauengatik: gogo-aldartearen nahasmenduak (afektiboak), antsietate-nahasmenduak, disoziatiboak, estresarekin, somatomorfoekin eta psikotikoak ez diren beste nahasmendu mental batzuekin lotutakoak eta elikadura-portaeraren nahasmenduak.

5.15. Suizidioa da gazteen lehen heriotza-kausa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen suizidio-kasuek EAEn 2022an izandako guztien % 8 osatzen dute

2022an 15 eta 29 urte bitarteko 80 gazte hil ziren; beraz, adin-tarte horretan 25,8 gazte hil ziren adin-tarte bereko 100.000 pertsonako. Gizon gazteen heriotza-tasa emakume gazteena baino askoz ere handiagoa da: 34,5 eta 16,6 dira, 100.000 pertsonako, hurrenez hurren.

2022an gazteen artean gertatu ziren heriotzen ia erdiak (% 47,5) kanpoko kausengatik gertatu ziren, ez gaixotasun batengatik. Biztanleria osoan kanpoko kausen ehunekoa oso txikia da (% 8,0).

Honako hauek dira kanpoko heriotza-kausetako batzuk: suizidioa (14 gazte hil ziren suizidioagatik 2022an), trafiko-istripuak (6 gazte), psikofarmakoek eta abusu-drogek eragindako ustekabeko pozoidura (5 gazte), istripuzko itotzea (3), beste garraio-istripu batzuk (2), istripuz

erortzea (2), beste istripu batzuk (2), suaren ondoriozko istripuak (1), istripuzko beste pozoidura batzuk (1), erahilketa (1) eta zehaztu gabeko asmo-gertaerak (1).

Egiaztatutako kausa suizidioa duten heriotzak bakarrik aztertzen baditugu, ikus dezakegu 2022an 4,5 gazte hil zirela 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gazteko. Biztanle guztien artean tasa hori handiagoa da: 8,0 biztanle 100.000 biztanleko.


15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean izandako suizidioek 2022an EAEn gertatu ziren suizidio guztien % 8 osatzen dute.

Suizidioaren prebalentzia emakumeen artean baino handiagoa da gizonen artean, bai 15 eta 29 urte bitarteko gazteen taldean, baita biztanleria osoan ere. 2022an 9 gizon gazte eta 5 emakume gazte suizidatu ziren. Zifra horiek 5,7ko eta 3,3ko tasak (100.000 pertsonako) osatzen dituzte, hurrenez hurren.

2012tik gazteen suizidio kopurua 8 eta 18 bitartekoa izan da. 2020an kopururik txikiena erregistratu zen. Hurrengo bi urteetan kasuek gora egin zuten, baina ez ziren iritsi tasa horretako emaitza okerrenetara, hots, 2015eko datuetara. Urte horretan 18 gazte suizidatu ziren.

5.22. grafikoa

Euskadiko 15-29 urteko gazteen suizidio-kasuen eta suizidio-tasen bilakaera
(absolutuak eta 100.000 biztanleko tasak)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Hilkortasun Erregistroa)


Eurostatek argitaratu zituen 2021eko datuen arabera (horiek baitira eskuragarri dauden berrienak), EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen suizidio-tasa Espainiako gazteen batezbestekoaren antzekoa da (4,2 da 100.000 pertsonako), eta EBkoa baino txikiagoa. Europar Batasuneko batezbestekoa 6,8 zen, 100.000 pertsonako, 2021ean.

Estonian, adibidez, gazteen suizidio-tasa 17,3 da 100.000 pertsonako. Lituania (13,7); Finlandian (13,0); Suedian (12,8), Polonian eta Irlandan (11,8) ere suizidio-tasak oso handiak dira nerabeen eta gazteen artean. Kontrako muturrean, tasa txikiekin, honako hauek daude:

Zipre (1,6); Grezia (2,2) eta Luxenburgo (3,3). Herrialde horietako tasak 4tik beherakoak dira, 100.000 pertsonako.

5.23. grafikoa

15-29 urteko gazteen suizidioagatik heriotza-tasa EBn eta Euskadin 2021ean
(100.000 biztanleko tasak)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Hilkortasun Erregistroa) eta Eurostat

Kanpoko kausek eragindako heriotzen artean, trafikoko istripuak dira bigarren kausa nagusia. Trafikoaren ondoriozko heriotza-tasaren bilakaera oso positiboa izan da azken hamarkadan. 2012an 14 gazte hil ziren trafiko-istripuengatik; hori dela eta, trafikoko istripuak gazteen heriotza eragiteko lehen kausa bilakatu ziren: 4,5 gazte 100.000 gazteko. 2022an, aldiz, 6 pertsona hil dira trafikoko istripuek eraginda; horren ondorioz, tasa 1,9 izan da 100.000 pertsonako. Edonola ere, trafikoko istripuetan hildako pertsona gazteen zifrak txikiak dira. Hori dela eta, istripu batean pertsona batzuk hiltzen badira, baliteke trafikoko istripuek eragindako heriotzak suizidioak eragindakoak baino gehiago izatea; eta trafikoko istripuan pertsona bakarra hiltzen bada, kontrakoa gerta daiteke.

5.24. grafikoa

Trafiko-istripuengatik hildako Euskadiko 15-29 urteko gazteen kasuen eta trafikoagatiko heriotza-tasen bilakaera (absolutuak eta 100.000 biztanleko tasak)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Hilkortasun Erregistroa)

Trafikoko istripuen prebalentzia emakumeen artean baino handiagoa da gizonen artean. Hala ere, azken bi hamarkadetan heriotza-tasaren beherakada oso nabaria izan da gizonen artean. 2003an 15 eta 29 urte bitarteko gizonen heriotza-tasa 26,6 izan zen adin bereko 100.000 gizoneko; eta 2022an 3,8 izan da. Bestalde, emakumeen tasa 8,6 izan zen 2003an 100.000 emakume gazteko; 2022an ez da heriotzarik gertatu, beraz, tasa hori 0 da (2022an ez da trafiko-istripuengatiko heriotzarik gertatu emakume gazteen artean; hil diren 6 pertsonak gizonak ziren).

5.25. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen trafikoagatiko heriotza-tasen bilakaera, sexuaren arabera (100.000 biztanleko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Hilkortasun Erregistroa)

5.16. EAEko gazteen osasunaren ondorioak

Osasunean arriskuak eragiten dituzten kontsumo-jokaerek —tabakoaren, alkoholaren edota kalamuaren kontsumoak, hain zuzen ere— behera egin dute. Jarduera fisikoa, ordea, igo egin da. Horrek berekin ekarri du osasun ona edukitzeko joerak hobetzea. Osasun ona izatea eta itxura osasungarri izatea gero eta garrantzitsuagoa da gazteentzat.

Nerabeen haurdunaldiek ere behera egin dute, baina sexuaren bidez transmititutako gaixotasunek, ordea, gora egin dute. Hortaz, sexu-heziketa hobetu eta preserbatiboaren garrantzia azpimarratu beharra dago.

Gazteen osasun emozionalak okerrera egin du. Aurreko urteetan baino gazte gehiagok adierazi dute aurreko hilabeteen antsietate- edo depresio-sintomak izan dituztela, buru-nahasmenduen edo jokaeraren nahasmenduen ondorioz ospitaleratu behar izan dituzten gazte-kopurua ere gero eta handiagoa da. Halaber, gero eta gazte gehiagok hitz egiten dute beren osasun mentalari edo beste batzuenari buruz. Internetek eta sare sozialek eginkizun handia dute egoera horretan, baina ez dira osasun mentala baldintzatzen duten bakarrak. Gai hori sakontasun handiagoz aztertu behar da eta, edonola ere, prebentzio- zein tratamendu-neurri gehiago eskatzen ditu.

Osasunak pertsonaren eremu guztiei eragiten die; baina, horrez gain, gizarteari ere eragiten dio, zaintzak, gizarteratzeko gai ez izatea, ikasketak egiteko edo lan egiteko gai ez izatea, besteak beste, eragin ditzakeelako. Bestalde, baliabide ekonomikoak, materialak eta pertsonalak esleitu behar dira osasuna kudeatzeko. Gazteak osasuntsu badaude, eta ohitura osasungarriak badituzte, ziur asko, heldu osasuntsuak izango dira, eta ohitura osasungarriak izango dituzte. Horrez gain, hurrengo belaunaldiko gazteei ohitura osasungarriak irakasteen ere saiatuko dira.

6. AISIA, KULTURA ETA KIROLA

Aisialdia bizitzaren funtsezko zatia da; izan ere, gaur egun, gazte askok, helduek ez bezala, ikasketen edo lanen arabera baino gehiago definitzen dute beren burua aisialdiaren arabera.

Atal honetan EAEko gazteen kultura- zein aisialdi-jarduerari buruzko datuak emango ditugu. Datu asko sare sozialei, ikuskizunei, kirolari edo kultura-sorkuntzari lotuta daude. Horrez gain, EAEko gazteek musikaren eta irakurgaiaren arloan dituzten gustuak eta ohiturak ere azalduko ditugu.

6.1. Lau gaztetik hiruk egiten dute jarduera artistikoren bat

2021ean, 15-29 urteko gazteen % 76,8k adierazi zuten azken urtean honako jarduera artistiko hauetakoren bat egina zutela *amateur* moduan: argazkigintza, bideogintza edo ikus-entzunezko beste produktu batzuk, musika-instrumentu bat jotzea, abesbatza edo musika-talde batean kantatzea, margotzea edo beste arte plastiko batzuk, idaztea, dantzan egitea, antzerkia, bertsolaritza edo beste modalitate artistiko batzuk egitea.


Ehuneko hori gizon gazteen artean (% 74,5) baino handixeagoa da emakume gazteen artean (% 79,1), aztertutako urte guztietan bezala. Jarduera artistikoak egitea ohikoagoa da 20 urtetik beherako gazteen artean (% 81,2). Adinak gora egin ahala, behera egiten du (20 eta 24 urte bitartekoen artean % 77,8 da, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean % 71,2 da).

2021ean jarduera artistikoak egiteak gorakada nabaria izan zuen, batez ere, pandemian eta mugikortasuna murriztuta egon bitartean, etxean garatu ahal ziren arte-modalitateak (idaztea, margotzea, musika-tresnak jotzea, argazkiak edo bideoak egitea...) baliagarriak izan zirelako denbora pasatzeko eta arte-afizioetan hasteko edo hobetzeko. Horrez gain, Instagram, Tik Tok eta antzeko sare sozialen bidez produktu artistikoak partekatu ahal ziren.

Edonola ere, bost urte lehenago, 2016an, jada gora egina zuen jarduera artistikoren bat egiten zuten gazte kopuruak, bereziki, argazkigintza eta antzeko ikus-entzunezko produktuak egiten zituztenenak. Telefono adimendunen funtzionalitateek igoera hori sustatu zuten, baita sare sozialen orokortzeak ere, irudiak eta bideoak partekatzeko aukera ematen zutelako.

6.1.grafikoa

Aurreko urtean jarduera artistikoak egin dituztela dioten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia eta Gazteen Euskal Behatokia

Adierazlea eraikitzeko jarduera artistiko bakoitzari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu argazkigintza zabalena dela (2021ean ia gazteen erdiek adierazi zuten argazkigintzan ari zirela), eta, gainera, argazkigintza da gehien igo den jarduera artistikoa.

6.1 taula

Proposatutako jarduera artistiko bakoitza aurreko urtean egin dutela dioten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)

(%)	2012	2016	2021
Argazkigintza	19,0	28,2	49,2
Bideogintza edo beste ikus-entzunezkoak egin, esaterako diseinu grafikoa, web-orriak, 3D animazioa edo antzekoak	10,9	17,9	32,8
Margolaritza edo marrazketa edo beste arte plastiko batzuk egin, hala nola, zeramika, eskultura, grabatuak eta abar	15,3	19,5	31,7
Musika-tresna bat jo	10,4	14,7	24,2
Kontakizunak, poesia, artikulak edo antzekoak idatzi	15,5	21,3	22,7
Dantza (klasikoa, modernoa, tradizionala...)	8,6	11,6	15,9
Abesbatza edo musika talde batean abestu	4,0	6,0	6,1
Antzerkia egin	2,4	4,9	4,9
Bertsolaritza	1,4	1,9	3,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

6.2. Kultura-ekitaldietara joateko joera ere igo da


Orokorrean, kultura-ekitaldietara joateko joerak gora egin du azken urteotan. Zinemara joatea, gorabeherak egon arren, oraindik ere bada gazteek gehien baliatzen duten kultura-ekitaldia.

Datu hori kalkulatzeko, inkesta erantzun aurretiko hiru hilabeteetan horrelako ekitaldi batera joan diren gazteen ehunekoak erabili dira. Inkesta egiten den sasoiak erantzunei eragiten die. 2022ko datu-bilketa, besteak ez bezala, udazkenean egin zen, eta udan egindako jarduerak ere kontuan hartu ziren. Hala, 2022an behera egin zuen zinemara joan zirela adierazi zuten gazteen ehunekoak, eta gora egin zuen kontzertuetara edo museoetara joan zirela adierazi zutenenak. Hori, hasiera batez, badirudi ikerketaren defizit bat dela, baina horrek balio du udan egiten diren doako jarduerak (hala nola, musika-kontzertuek) edo oporretan maizago egiten diren kultura-jarduerak (museoak bisitatzeak, besteak beste) duten garrantzia nabarmentzeko.

Edonola ere, 2024ko datuek erakusten dute, 2012ko eta 2016ko datuekin erkatuta, gora egin duela proposatutako kultura-ekitaldi bakoitzera joan diren gazteen ehunekoak.

6.2. grafikoa

Aurreko hiru hilabeteetan proposatutako kultura-ekitaldi bakoitzera joan diren 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, ekitaldi motaren arabera* (%)



*2012an ez zen galdetu kirol-ikuskizunei buruz.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 67,8 inoiz zinemara joan zen 2024ko inkestaren aurretiko hiru hilabeteetan. Inkesta martxoan egin zen. Gizonek eta emakumeek antzeko ehunekoak osatu dituzte. 20 eta 24 urte artekoak dira zinemara gehien joan direnak (% 70,1).

Musika-kontzertuak bigarren postuan daude EAEko gazteak gehien baliatu dituzten kultura-ekitaldien zerrendan; izan ere, gazteen % 53,2 musika-kontzertu batera joan da 2024ko inkesta egin aurretiko hiru hilabeteetan. Kasu honetan, emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da (% 57,1 eta % 49,6, hurrenez hurren). Musika-kontzertuetara joateko ohiturak gora egiten du, adinak ere gora egin ahala: 15 eta 19 urte dituztenen artean, ehuneko hori % 49,4 da; baina 25 eta 29 urte bitarteko taldean ehuneko hori % 55,9 da.

Gazteen % 52,9 kirol-ekitaldi batera joan dira aurreko hiru hilabeteetan. Gizonen eta emakumeen arteko aldea kasu horretan handiagoa da. Emakume baino gizon gehiago joaten dira ikuskizun mota horretara (gizon gazteen % 58,0 eta emakume gazteen % 47,4). Adinak behera egin ahala, gero eta handiagoa da kirol-ikuskizunetara joaten diren gazteen ehunekoa.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 44,3 museo batera joan dira azken aurreko hiru hilabeteetan. Kasu horretan ehunekoek behera egiten dute adinak gora egin ahala; beraz, baliteke egoera hori museoak hezkuntza-testuinguruan bisitatzearen ondorio izatea. Jarduera horri dagokionez, ez dago alde handirik gizon eta emakume gazteen artean.

Azkenik, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 23,8 antzerki-ikuskizun batera joan ziren 2024ko inkesta egin aurretiko hiru hilabeteetan. Ehuneko hori handiagoa da 25 eta 29 urte artekoen artean (% 30,4), baita emakume gazteen artean ere (% 26,9).

6.2 taula

2024ko inkestaren aurretiko hiru hilabeteetan kultura-ekitaldi mota bakoitzera joan diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

	Guztira	Sexua		Adin taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Zinema	67,8	65,8	69,7	67,1	70,1	66,2
Musika-kontzertuak	53,2	57,1	49,6	49,4	54,6	55,9
Kirol-ikuskizunak	52,9	47,4	58,0	55,7	53,3	49,4
Museoak	44,3	44,6	44,0	47,3	44,0	41,3
Antzerkia	23,8	26,9	20,9	20,6	20,8	30,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


6.3. Gazteen % 58,1ek adierazi du inkestaren aurreko hilabeteen libururen bat irakurri duela entretenitzeko, batez ere, eleberriak

2024an, gazteen % 58,1ek adierazi du inkesta bete aurreko hilabeteen libururen bat irakurri duela aisialdian, hau da, entretenitzeko, ez lanaren edo ikasketen beharra zelako. Serieko ehunekorik handiena da 2024koa.

Emakume gazteek gizon gazteek baino gehiago irakurtzen dute, eta halaxe ziurtatzen dute neurketa guztiek.

6.3. grafikoa

Aurreko hilabeteen aisialdiagatik libururen bat irakurri duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Bestalde, 2023ko udazkenean gazteei galdetu zitzaien zenbat liburu irakurri zituzten entretenitzeko aurreko hilabeteen. Erreferentziako hilabeteen libururen bat irakurri zuten gazteen artean, irakurritako liburuen batez besteko kopurua bi izan zen, hau da, bi liburu irakurrita zituzten.

Irakurritako azken liburuaz galdetuta, kasu gehienetan eleberri bat aipatu zuten (irakurritako azken liburua aipatu zuten gazteen % 64,3k hori adierazi zuten). Emakumeek gehiagotan aipatu zituzten eleberriak, gizonak baino (% 72,0 eta % 56,4, hurrenez hurren). Adinak behera egin ahala, eleberriak maizago aipatu ziren. Eleberrien atzetik, irakurritako azken liburua zein zen adierazi zutenen % 14,0k saiakera bat edo dibulgazio zientifikoko edo kulturalako libururen bat aipatu zuten. Horri dagokionez, gizonen ehunekoak emakumeena ia bikoizten zuten (% 18,1 eta % 9,9, hurrenez hurren). Autolaguntzaren arloko liburuak hirugarren postuan daude, gazteek gehien irakurri dituzten liburuen zerrendan (irakurri zutenen azken liburuaren izenburua adierazi zutenen % 7,2k autolaguntza-liburu bat aipatu zuten). 15 eta 19 gazteen artean, ordea, komikiak (batez ere, “manga”) hirugarren postuan daude, autolaguntza-liburuen gainetik. Beste genero batzuk (antzerkia, olerkia, historia...) gazte gutxiagok aipatu zituzten.

Gainera, irakurritako azken liburua aipatu zutenen artean, erdiek baino gehiagok (% 52,6k) atzerriko idazle batena aipatu zuten. Gazteen % 30,5ek aipatu zuten Espainiako beste autonomia-erkidego bateko idazleren batek idatzitako liburu bat; eta % 14,2k aipatu zuten EAEko idazle batek idatzitako libururen bat. Gainerako % 2,7an ezin da jakin egilearen jatorria. 15 eta 19 urte bitarteko gazteak eta Gipuzkoako gazteak izan dira euskal idazleek idatzitako liburuak gehien aipatu dituztenak.


6.4. Gazteen % 74,9k egunero edo ia egunero erabiltzen dituzte musika entzuteko aplikazioak

Lau gaztetik hiruk Spotify edo musika entzuteko beste sare sozial batzuk egunero erabiltzen dituzte. Gazteen kolektibo guztietan horrelako aplikazioak egunero edo ia egunero erabiltzen dituztenek gehiengo osatzen dute.

25 urtetik beherako gazte gehiagok erabiltzen dituzte musika entzuteko balio duten aplikazio horiek, 25 eta 29 urte arteko gazteekin erkatuta (azken horietatik % 18,1ek adierazi dute ez dutela inoiz erabiltzen). Gizonek baino emakume gehiagok erabiltzen dituzte egunero.

6.4. grafikoa

Spotify, Apple music edo musika entzuteko beste sare sozial batzuen erabileraren maiztasuna 2023an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gehien entzuten dituzten musika-artisten artean atzerritarrak nabarmentzen dira. 2023an gazteei galdetu zitzaion nor zen gehien entzuten zuten abeslaria edo musika-taldea. Haietatik % 43,4k atzerriko artista bat aipatu zuen; % 29,4k EAEko edo Nafarroako solista edo talde bat aipatu zuen; eta gainerako % 27,2k Espainiako beste autonomia-erkidego bateko abeslariren bat edo talderen bat aipatu zuen. EAEko edo Nafarroako abeslari edo talderen bat nagusiki entzuten duten gazte kopuru handienak emakumeek, 20 eta 29 urte bitartekoek eta Gipuzkoako gazteek osatu dituzte.


Gehien errepikatu diren izenak (kontuan hartuta lehena baino ez dela kontuan hartu talde edo solista batzuk aipatu zituztenean) Taylor Swift eta ETS izan dira, dudarik gabe.

6.5. EAEko gazteen erdiek baino gehiagok erregularitasunez kirola egiten dute, astean hiru egunetan edo gehiagotan (% 52,9)

EAEko gazteen erdiek baino gehixeagok kirola egiten dute astean hiru egunetan gutxienez (% 52,9). Talde horri gehitzen badizkiogu astean egun batean edo bitan praktikatzen dutenak, ondorioztatzen dugu lau gaztetik hiruk (% 73,8k) kirola egiten dutela astero, intentsitate handiagoz edo txikiagoz. Aitzitik, laurdenek (% 24,8k) astean behin baino gutxiagotan egiten dute kirola, edo inoiz ez.

6.5. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen kirol-praktikaren maiztasuna 2023an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Kirola astean hiru egunetan gutxienez egiten duten gazte kopuru altuenak 2021ean osatu ziren; izan ere, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, kirola eta jarduera fisikoak areagotu ziren, osasunerako dituzten onurak azpimarratuta. 2023an behera egin du kirola astean gutxienez hiru egunetan egiten duten gazte kopuruak, 2021. urtearekin erkatuta. Jaitsierarik handiena emakumeen artean gertatu da, bai eta 20 eta 24 urteko gazteen artean ere.

6.3 taula

Astean gutxienez hiru egunetan kirola egiten duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Urtea	Guztira	Sexua		Adin taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
2012	40,2	29,6	50,2	49,3	39,2	35,0
2016	49,0	37,2	60,3	54,5	49,2	44,2
2021	56,4	52,2	60,7	58,7	55,2	55,3
2023	52,9	45,9	59,5	57,8	47,9	53,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Emakumeen eta gizonen adin-taldeen arteko aldeak aztertzen baditugu, ikusten dugu 2023an gizonen adin-talde guztietan gehienek kirola astean hiru egunetan, gutxienez, egiten dutela. Gizon gazteenak (15 eta 19 urte artekoak) dira maiztasun handiagoz egiten dutenak.

Emakumeen artean, ordea, 15 eta 19 urte arteko taldean soilik osatu dute gehiengoak kirola gutxienez astean hiru egunetan egiten dutenak, nahiz eta talde horretan bost emakumetik batek (% 20,2k) adierazi duen ez duela inoiz edo ia inoiz kirolik egiten. 20 eta 24 urte arteko emakume zein gizonen taldeetan osatu dira kirola gutxienez astean hiru egunetan egiten dutenen ehunekorik txikienak.

Bestalde, kirol-elkarte edo -kluben bateko kide diren gazteek kirol-praktika askoz ere handiagoa dute, kideak ez direnekin erkatuta (% 83,5ek eta % 46,1ek, hurrenez hurren, kirola astean gutxienez hiru egunetan egiten dute).

6.4 taula

15 eta 29 urte bitarteko gazteen kirol-praktikaren maiztasuna 2023an, sexuaren eta adinaren arabera talde espezifikoaren arabera (%)


(%)	Emakumeak			Gizonak		
	15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
Egunero	3,4	4,3	3,7	8,8	7,4	4,9
Astean 5-6 egunetan	14,9	9,8	10,3	26,7	18,8	18,8
Astean 3-4 egunetan	32,2	28,5	30,3	29,1	26,6	37,5
Astean 1-2 egunetan	16,8	21,6	26,7	22,7	19,2	18,8
Maiztasun txikiagoarekin	7,6	15,5	14,1	4,8	15,2	10,6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	20,2	19,9	13,3	7,7	11,9	8,9
Ez du erantzun	4,9	0,3	1,6	0,2	0,9	0,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100
HIRU EGUNETAN GUTXIENEZ	50,5	42,6	44,3	64,6	52,8	61,2

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gimnasioan ariketa fisikoa egitea da EAEko gazteek 2023an gehien praktikatzen duten kirol-modalitatea, eta alde handia dago, gainerako kirolekin erkatuta. Bigarren eta hirugarren postuetan korrika egitea eta mendira joatea daude. Hiru jarduera horiek banaka egin daitezke. Izan ere, gazteek gehien praktikatzen dituzten kirolen sailkapenean, lehenengo postuetan dauden sei modalitateetatik bost banaka egin daitezke, eta futbola da beste pertsona batzuk behar dituen kirol bakarra (azken talde horretan taldeko kirolak eta lehiatzeko beste pertsona bat behar duten kirolak sartzen dira). Banaka egin daitezkeen modalitateek aukera ematen dute pertsona bakoitzak kirol-jarduera beren denbora eta espazioen arabera moldatzeko. Horrela, errazagoa da kirola egiteko une bat topatzea.

Edonola ere, kontuan hartu behar da inkesta erantzun duten pertsonen bi kirol baino gehiago ezin zituztela aipatu, gehien praktikatzen dituztenen artean.

6.6 grafikoa
15 eta 29 urte bitarteko gazteek gehien egiten dituzten kirolak 2023an* (%)



* Pertsona bakoitzak gehienez bi kirol aipa zitzakeen, ez egiten dituen guztiak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Gizon gazteak emakume gazteak baino maizago joaten dira gimnasiora. Horrez gain, maizago aritzen dira futbolean (horretan alderik handiena jaso da), korrikan, bizikletan, pala edo erraketa jokoan eta frontoian; saskibaloian ere gehixeago aritzen dira.

Emakumeek gimnasioan ariketa fisikoak egitea ere aipatu dute gehien praktikatzen duten kirol gisa, baina ez gizonak bezainbeste. Emakumeak gizonak baino maizago joaten dira ibiltzera, eta maizago egiten dute dantza, yoga edota pilates. Orokorrean, emakumeek maizago hautatzen dituzte lesionatzeko arrisku txikiagoa dakarten kirolak.

Kirolak egiten ez duten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, ia bikoitza. Esan bezala, emakume gazteek baino gizon gazte gehiagok dute kirola erregularitasunez egiteko ohitura.

6.7. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek gehien egiten dituzten kirolak 2023an, sexuaren arabera* (%)



* Pertsona bakoitzak gehienez bi kirol aipa zitzakeen, ez egiten dituen guztiak. Grafiko honetan, gazteen % 3k baino gehiagok aipatutako kirolak baino ez dira jasotzen.


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Adinak gora egin ahala, handitu egiten da gimnasia, korrika egitera, mendira, igeri egitera, ibiltzera, yoga egitera edo *pilates* praktikatzera joaten diren gazteen ehunekoa. Aitzitik, pertsona gazteenak (15 eta 19 urte bitartekoak) dira futboleak, saskibaloian edo taldeko beste kirol batzuetan gehien aritzen direnak, bai eta arte martzialean, ukipen-kiroletan, dantzan edo *Zumba* dantzan ere. Horrez gain, ehuneko handienak osatzen dituzte kirol minoritarioetan.

Oro har, adinak gora egin ahala, taldeko kirolak bertan behera uzten dira, eta banaka egin daitezkeen modalitateak gehiago praktikatzeko dira.

6.8. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek gehien egiten dituzten kirolak 2023an, adin-taldeen arabera* (%)



* Pertsona bakoitzak gehienez bi kirol aipa zitzakeen, ez egiten dituen guztiak. Grafiko honetan, gazteen % 3k baino gehiagok aipatutako kirolak baino ez dira jasotzen.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

6.6. Hamar gaztetik zazpik hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzte egunero. Instagram da EAEko gazteek gehien erabiltzen duten sare soziala


2023an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 72,0k egunero hiru edo sare sozial gehiago erabiltzen dituzte, berehalako mezularitzako edo bideokonferentziak egiteko erabiltzen diren aplikazioak alde batera utzita. Ehuneko horrek zertxobait egin du gora, 2022ko ehunekoarekin erkatuta (orduan % 68,4 zen). Igoera handiena 2018tik 2022ra osatu zen: hiru edo sare sozial gehiago egunero erabiltzen zituzten gazteen ehunekoa ia bikoiztu zen.

2023an ez dago alde nabarmenik gizon eta emakume gazteen artean, baina, adinaren arabera, badago alderik. 15 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoak 25 eta 29 urte bitarteko gazteenak baino handixeagoak dira. Ehunekorik handiena 15 eta 19 urte arteko emakumeei dagokie, haien artean % 80,3 osatu baita.

Edonola ere, 2016tik 2023ra sare sozialen erabilera 25 eta 29 urte arteko gazteen artean areagotu da gehien.

6.9. grafikoa

Egunero hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu 2023an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 79,2k adierazi duela Instagram egunero edo ia egunero erabiltzen duela. Bestalde, % 10,3k maiztasun txikiagoz erabiltzen dute sare sozial hori, baina ehuneko biak batzen baditugu, 10 gaztetik 9 sare horretan aktibo daude.

Erabilerari dagokionez, bigarren postuan musikari lotutako sare sozialak ditugu, besteak beste, Spotify, Apple Music eta abar. Lau gaztetik hiruk egunero erabiltzen dituzte, eta, guztira, hamar gaztetik ia bederatzik maiztasun handiagoz edo txikiagoz erabiltzen dituzte.

YouTube hirugarren postuan dago. Gazteen erdiek egunero erabiltzen dute; eta herenek egunero baino maiztasun txikiagoz.

Gainerako sare sozialei dagokienez, egunero erabiltzen dituzten gazteek ez dute gehiengo osatzen.

6.10. grafikoa
15 eta 29 urte bitarteko gazteek sare sozialak erabiltzeko maiztasuna 2023an (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gizonek baino emakume gehiagok erabiltzen dituzte Instagram, TikTok, BeReal, Snapchat eta musika entzuteko sare sozialak. Gizonek emakumeek baino neurri handiagoan erabiltzen dituzte YouTube, X eta Twitch.

Edonola ere, Instagram eta musika entzuteko sare sozialak dira emakumeek zein gizonek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak.

6.11. grafikoa

Sare sozial bakoitza egunero erabiltzen duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa 2023an, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

TikTok eta BeReal sare sozialen eguneroko erabilera da azken urteotan gazteen artean gehien igo dena. 15 eta 19 urteko emakume gehienek egunero erabiltzen dituzte.

Aitzitik, YouTube, X (antzinako Twitter), Snapchat, Twitch eta, batez ere, Facebook sare sozialen eguneroko erabilera behera egin du. Enplegua bilatzeko sare sozialak ere 2021ean baino gutxiago erabiltzen dira gaur egun.

6.12. grafikoa

Sare sozial bakoitza egunero erabiltzen duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



* Musika entzuteko sare sozialen, BeRealen eta Twitchen kasuan, ez dago kontuan hartutako lau urteetako daturik.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Bestalde, 2023an 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik sei (% 61,7) *youtuber*, *gamer* edo *influencer* baten jarraitzaileak dira.

15 eta 19 urte arteko gazteen artean ohikoena da *youtuber*, *gamer* edo *influencer* baten jarraitzailea izatea. Edukien sortzaile horien jarraitzaileak izateko joerak behera egiten du adina igo ahala. Zehatzago, 15 eta 19 urte arteko gizon gazteen artean osatu da *youtuber*, *gamer* edo *influencer* baten jarraitzaile-kopuru handiena.

Youtube edo *influencer* baten jarraitzaileak inoiz izan ez direnen ehunekoak behera egin du aurreko urteekin erkatuta (2017an, % 38,7 izatetik, 2023an, % 17,5 izatera).

6.13. grafikoa

Youtuber, gamer edo influencer bat edo batzuk jarraitzen dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Bestalde, hamar gaztetik bat edukien sortzailea da (2023an, % 9,5). 15 eta 19 urte arteko gizonak aktiboenak dira Interneterako edukiak sortzen (% 15,9).

6.14. grafikoa

Interneterako edukiak sortzen dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Erlazio argia dago *youtuber* edo *influencer* baten jarraitzailea izatearen eta eduki-sortzailea izatearen artean: inori inoiz jarraitu ez dioten gazteen artean, gaur egun edukiak sortzen dituztenen ehunekoa ere askoz txikiagoa da (% 3,0).


6.7. EAEko gazteek garrantzi handia ematen diote aisialdiari (10etik 8,1 puntu)

15 eta 29 urte bitarteko gazteek aisialdiari eta astiari ematen dieten garrantzia 8,1 eta 8,5 artekoa izan da Gazteen Euskal Behatokiak 2014tik 2023ra egin dituen neurketa guztietan.

Gazteek beren astiari eta aisialdiari buruz adierazten duten gogobetetasuna beti dago batezbesteko horretatik azpian, eta 0-10 eskalan ez da inoiz 8ra iritsi.

6.15. grafikoa

15-29 urteko gazteek astialdiari eta aisialdiari ematen dieten garrantzia eta horiei buruz sentitzen duten gogobetetasunaren bilakaera (0-10)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Aisialdiari emandako garrantziari dagokionez, 2023ko datuek ez dute alde nabarmenik erakusten sexuaren edo adinaren arabera. Sentitzen duten gogobetetasunari dagokionez, ordea, badago aldea: gizonen artean handixeagoa da (7,1) eta 15-19 urtekoen artean ere bai (7,2). Izan ere, talde horietan soilik jaso dira 7tik gorako batezbestekoak.

6.8. EAEko gazteek dituzten kultura- eta aisialdi-ereduen ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoko gazte gehienek aisialdiko eta kultura-kontsumoko eredu soziala da, nahiz eta individualismorako joera egon, bizitzaren eta gizarte osoaren beste alderdi batzuetan bezala. Gazte gehienak ekitaldi kulturaletara joaten dira, bai eta kirol-azpiegiturretara edo kalera kirola praktikatzera ere; dena den, kirol-modalitate aukeratuenak banaka egiten direnak dira, eta horiek taldeko kirolak baino neurri handiagoan praktikatzeko dira. Gainera, kasu gehienetan, gastu ekonomikoa berekin ekartzen duten kultura-praktikak edo kultura-kontsumoak izaten dira; beraz, horrek desberdintasunak eragin ditzake baliabide material gehiago dutenen eta baliabide material gutxiago dutenen artean.

Azken urteotan, gora egin du pertsonak elkarrekin konektatzen dituzten sare sozialen erabilerak. Baina sare sozial horiek etxetik eta bakardadean erabil daitezke. Jarduera artistikoen artean banaka egiten diren (edo egin daitezkeen) modalitateak ere nabarmentzen dira: argazkigintza, margolaritza eta ikus-entzunezkoak.

Banaka egin daitezkeen kultura- eta kirol-jarduera horien hedadurak indibidualismoa areagotzeko edo bakardadea indartzeko arriskua dakar.

Edonola ere, kirol-jarduera orokortzea (hiru gaztetik bik gutxienez asteko egun batean praktikatzen dute kirola) osasungarria da, zertarako egiten den alde batera utzita (gozatzeko, beste lagun batzuekin harremanetan jartzeko, itxura fisikoa hobetzeko...). Horrek zuzeneko onura dauka osasunean; eta, inplikazio-maila zein den, substantzia kaltegarriak (tabakoa, alkohola edo beste droga batzuk) hartzearen aurkako babesa ere izan daiteke.

Bestalde, gazteen kultura-sorkuntza handiagoa behatu da, batez ere, komunikazio- eta informazio-teknologiei eta sare sozialek ematen dituzten hedapen-aukerei lotuta.

Musika-kontsumoa guztiz orokortu da gazteen artean, eta, zeharka bada ere, hizkuntzak praktikatzen laguntzen du. Azken urteotan gazteek euskaraz abesten duten Euskal Herriko musikari asko entzuten dituzte, beraz, euskararen erabilera ere indartzen da. Gazteen musika-kontsumoaren ondorio negatiboen artean, besteak beste, abesti batzuetako letra matxistak aipa daitezke, gerta litekeelako horrek, bereziki, gazteenen pentsaeran eta portaeran eragina izatea.

7. EUSKARA

Jarraian, Euskadiko gazteen euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko zenbait datu aurkeztuko ditugu.


7.1. EAEko gazteen % 18,7ren lehen hizkuntza euskara da

2021eko Inkesta Soziolinguistikaren azken datuei erreparatzen badiegu, ondorioztatzen dugu 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen % 18,7ri etxean euskaraz hitz egiten zietela soilik, 3 urte bete arte. % 12,3ri euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin zieten. Ehuneko biak batzen baditugu, esan daiteke 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 31,0ren lehen hizkuntza euskara izan dela.

Datu horrek 2001etik 2021era izan duen bilakaerak erakusten digu lehen hizkuntza gisa euskara soilik izan dutenen ehunekoa ez dela asko aldatu azken 20 urteetan. Bestalde, txikitzen etxean euskara eta gaztelania ikasi dituztenen ehunekoa handitu egin da 2001etik 2021era.

7.1. grafikoa

Lehen hizkuntza euskara edo euskara gaztelaniarekin batera izan duten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EAS Euskara Adierazleen Sistemaren datuetatik eta Eustaten biztanleriaren atalean argitaratutako datuetatik abiatuta

Adinak behera egin ahala, euskara lehen hizkuntzat izan dutenen ehunekoak gora egiten du, batez ere, etxean euskara eta gaztelania izan dituztenen eraginez.

Euskara lehen hizkuntzat (soilik ala gaztelaniarekin batera) izan dutenen ehunekoa 2001etik 2021era igo egin da talde guztietan.

7.2. grafikoa

Lehen hizkuntza euskara edo euskara gaztelaniarekin batera izan duten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, adin-taldean arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EAS Euskara Adierazleen Sistemaren datuetatik eta Eustaten biztanleriaren atalean argitaratutako datuetatik abiatuta


Gipuzkoako hiru gaztetik batek euskara soilik izan du lehen hizkuntzatzat. Proportzio horrek bere horretan jarraitu du 2001etik 2021era. Bizkaiari dagokionez, hamar gaztetik baten etxean euskara zen hizkuntza bakarra. Araban proportzio hori txikiagoa da: hogeitik baten etxean.

Kontuan hartzen baditugu euskara eta gaztelania lehen hizkuntzatzat izan dituztenak ere, ehunekoak nabarmen handitzen dira, batez ere, Araban, non euskara soilik jaso dutenak baino gehiago baitira euskara eta gaztelania batera jaso duten gazteak.

Lurralde bakoitzean gertatu den bilakaerari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu Araban hazkunderik handiena osatu dela. Lurralde horretan gora egin du lehen hizkuntzatzat euskara soilik izan dutenen ehunekoak, baita euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenen ehunekoak ere. Guztira, hiru aldiz handitu da euskara etxean ikasi zutenen Arabako gazteen ehunekoa. Aztertu ditugun hogeitaz baten Bizkaian eta Gipuzkoan funtsean ez da aldatu lehen hizkuntzatzat euskara bakarrik izan dutenen ehunekoa, baina euskara eta gaztelania, biak, jaso dituztenen ehunekoak, ordea, gora egin du bi lurraldeetan.

7.3. grafikoa

Lehen hizkuntza euskara edo euskara gaztelaniarekin batera izan duten Euskadiko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EAS Euskara Adierazleen Sistemaren datuetatik eta Eustaten biztanleriaren atalean argitaratutako datuetatik abiatuta


7.2. Gora jarraitu du euskara komunikazio-hizkuntza duten unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoak

Azken urteetan, nabarmen igo da unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, hezkuntza berezia, batxilergoa, lanbide-heziketa, hasierako lanbide-prestakuntzarako programak eta helduen hezkuntza barne) dauden eta ikasketak D hizkuntza eremuan (euskaraz, eta gaztelania irakasgai bezala) egiten ari diren ikasleen portzentajea. 2023-2024 ikasturtean, ikasleen bi heren baino apur bat gehiago izan dira (% 69,1).

Lurralde historiko batetik bestera alde nabarmenak daude. 2023-2024 ikasturtean D eremuan matrikula egin duten unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoa honako hau da lurralde bakoitzean: % 54,7, Araban; % 64,1, Bizkaian; eta % 83,1, Gipuzkoan.

7.4. grafikoa

D ereduan matrikulatutako unibertsitateaz kanpoko ikasleen ehunekoaren bilakaera, ikasturtea hasi den urtearen arabera (%)




Iturria: Eustat (Hezkuntza-jardueraren estatistika)

7.3. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko hamar gaztetik ia zortzik euskaraz ondo hitz egiten dute

2024an, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 80,5ek euskaraz ondo hitz egiten dutela diote.

7.5. grafikoa

Euskararen ezagutzaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Eustat (Bizi Baldintzen Inkesta) eta Gazteen Euskal Behatokia 2024ko daturako

Serie osoan egiaztatu da bizkaitarrekin eta arabarrekin erkatuta, Gipuzkoako gazte gehiagok dakitela euskara. Zehazki, 2024an ehuneko hori % 86,8ra iritsi da Gipuzkoan, Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetan, ordea, % 73,7 eta % 77,6 da, hurrenez hurren.


Edonola ere, euskaraz ondo hitz egiten duten gazteen ehunekoak gora egin du azken 20 urteotan. Gutxi gorabehera 30 puntu igo da Araban eta Bizkaian; eta 20 puntu, Gipuzkoan.

Azpimarratu behar da zenbat eta gazteago, orduan eta gazte gehiagok ondo menderatzen dutela euskara; izan ere, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen % 84,9k euskararen ezagutza maila oso ona edo nahiko ona dutela esan du; 20 eta 24 urte bitartekoen taldean, ehuneko hori % 79,3 da; 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, aldiz, % 76,7.

Azken hogeit urteetan euskararen ezagutzak gora egin du aztertutako hiru adin-taldeetan. Hala ere, gorakada nabarmenena 20-29 urtekoen artean izan da; beraz, adin-taldeen arteko aldeak txikitu dira, aurreko urteekin erkatuta.

7.6. grafikoa

Euskararen ezagutzaren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, adin-taldean arabera (%)



Iturria: Eustat (Bizi Baldintzen Inkesta) eta Gazteen Euskal Behatokia 2024ko daturako


7.4. Lagunekin euskara erabiltzen duten gazteen ehunekoa handitu da

Lagunekin euskara erabiltzeak goranzko joera izaten jarraitzen du gazteen artean: 2001etik 2021era arte metatutako irabazia ehuneko 10 puntutik gorakoa da. Izan ere, % 24,8tik % 37,8ra igo da lagunekin harremana izatean euskara edo euskara gaztelania bezainbeste erabiltzen dituzten 16-24 urteko pertsonen ehunekoa.

Euskararen lagunarteko erabilera oraindik ere nabarmena da Gipuzkoan, 16 eta 24 urte bitarteko hiru gaztetik ia bik (% 63,6) lagunekin harremanak izateko erabiltzen baitute. Lagunarteko erabileraren ehunekoak askoz ere txikiagoak dira Araban (% 27,5) eta Bizkaian (% 24,5).

7.7. grafikoa

Lagunarteko euskararen erabileraren bilakaera 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Inkesta Soziolinguistikoa)


7.5. Hamar gaztetik lauk euskara erabiltzen dute sare sozialetan

2023an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 40,7k adierazi dute euskara erabiltzen dutela sare sozialetan; hala ere, alde nabarmenak daude lurralde historikoen artean. Berriro ere, ehunekoa nabarmen handiagoa da Gipuzkoan, non % 52,9k adierazi baitu sare sozialetan euskara erabiltzen duela; Araban, berriz, ehuneko hori % 32,0koa da, eta Bizkaian % 34,9koa.

Emakume gazteek gizonak baino gehixeago erabiltzen dute euskara sare sozialetan. 20 eta 24 urte arteko gazteak dira euskara sare sozialetan gehien erabiltzen dutenak.

7.8. grafikoa

Sare sozialetan euskara erabiltzen duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa 2023an, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

7.6. Euskaraz irakurtzeko ohitura egonkor mantendu da azken urteetan

Euskaraz irakurtzeko ohiturak egonkor samar jarraitu du azken urteotan: 2012an inkestaren aurreko 3 hilabeteetan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 28,7k irakurria zuen libururen bat euskaraz, eta 2023an, berriz, % 29,4k.

7.9. grafikoa

Aurreko hiru hilabeteetan libururen bat euskaraz irakurri duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Aurreko urteetan bezala, liburuak euskaraz irakurtzea 15 eta 19 urte arteko gazteen artean askoz ere ohikoagoa da. Adin horretako gazteen ia erdiek (% 46,9k) adierazi dute libururen bat euskaraz irakurri dutela inkesta egin aurretiko hiru hilabeteetan. Ehuneko hori % 21,1era jaisten da hurrengo adin-taldean, hau da, 20 eta 24 urteko gazteen artean; ziur asko, ikasketa-zikloaren aldaketa dela eta. Eta euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoa are txikiagoa da 25-29 urte bitarteko gazteen artean: % 19,0k adierazi dute azken hiru hilabeteetan libururen bat irakurri dutela euskaraz. Euskarazko irakurketaren ehunekoak behera egiten du adinean gora egin ahala, eta horrek adierazten du euskaraz irakurtzeak lotura handiagoa duela ikasketekin aisiarekin baino.

Inkesta egin aurretiko hiru hilabeteetan euskaraz libururen bat irakurri dutenen ehunekoa gizonen artean baino handixeagoa da emakumeen artean. Euskararen erabileraren beste adierazle batzuk ez bezala, euskaraz liburuak irakurtzen dituztenen ehunekoak antzekoak dira Gipuzkoan eta Araban, baina txikixeagoak dira Bizkaian.

7.10. grafikoa

Aurreko hiru hilabeteetan libururen bat euskaraz irakurri dutela adierazi duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, 2023an, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


7.7. Gazte landunen erdiek euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen dute lanean

2023an, 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen % 51,1ek diote lanean euskaraz hitz egiten dutela edo euskara erabiltzen dutela. % 49,0k, ordea, adierazi dute lana beti gaztelaniaz egiten dutela, edo euskaraz baino gehiago gaztelaniaz egiten dutela.

Lanean euskara erabiltzea ohikoagoa da langile gazteen artean, 16 eta 64 biztanle landun guztien artean baino; azken horien artean euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa % 32,1 baita.

7.11. grafikoa

16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen eta 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria landun osoaren arteko alderaketa 2023an, lanean euskara erabiltzeari dagokionez (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren datuetatik abiatuta (2023ko Lan Merkatuaren Errolda)

7.8. Gazte gehienak euskararen erabilera sustatzearen alde daude eta arlo guztietan euskararen presentzia bermatzeko urrats gehiago eman behar direla uste dute

2021ean 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 72,7 euskararen erabileraren sustapenaren alde edo oso alde daude. Ehuneko hori EAEko biztanle guztiena (% 67,0) baino handixeagoa da. Gainera, 2001etik 2021era euskararen erabileraren sustapenaren aldeko jarrerak hamar puntu egin du gora 16 eta 24 urte arteko gazteen artean, eta igoera bera erregistratu da 16 urtetik gorako biztanle guztien artean.

7.12. grafikoa

Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, eta 16 urte eta gehiagoko biztanleriarekin alderatzea (%)



Iturria: EAS, Euskararen Adierazle Sistema

Bestalde, 2024an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 74,8 oso edo nahiko ados dago euskararen presentzia eremu guztietan bermatzeko urrats gehiago eman behar direla esatearekin. Adostasun hori zabalduago dago Gipuzkoako gazteen artean (% 82,0), Bizkaian (% 71,1) edo Araban (% 67,9) bizi direnen artean baino.

7.9. Euskararen ezagutzaren eta erabileraren ondorioak

Mende honetan handitu egin da haurtzaroan etxean euskara transmititu zitzaizen gazteen ehunekoa, bai eta lehen mailako, bigarren mailako edo lanbide-arloko ikasketak nagusiki euskaraz egin dituztenena ere. Horren ondorioa euskararen ezagutza maila areagotzea izan da.

Lagunen arteko erabilerak ere gora egin du. Sare sozialetan hamar gaztetik lauk erabiltzen dute.

Gainera, gazteen artean ere gora egin du euskararen erabileraren sustapenaren aldeko joerak. Horrek, *a priori*, ikuspegi baikorra erakusten du euskararen erabilera handitzeari dagokionez: gero eta gazte gehiagok euskara ezagutzen eta erabiltzen badute, bai testuinguru formaletan (ikasketak edo lana), bai informaletan, euskararen erabilera normalizatu eta orokortu egingo da, eta pentsa daiteke hurrengo belaunaldiei ere transmitituko zaiela.

Edonola ere, oraindik ere asko dago egiteko arlo horretan. Izan ere, euskararen erabilerak gora egin duen arren, euskara erabiltzen duten gazteek ez dute gehiengoa osatzen, nahiz eta gazte gehienek euskara jakin. Horrek adierazten digu gazte askok, euskara jakinda ere, ez dutela erabiltzen eguneroko harremanetan.

8. BALIOAK ETA JARRERAK

Kapitulu honetan EAEko gazteen balioak eta jarrerak aztertuko ditugu. Segidan jorratuko ditugun gaiak gako dira gazteen identitatea eta egungo gizartean duten eginkizuna zehazteko. Azterketa horren alderdi nagusietako bat da gazteek politikari buruz duten interesa, horrek erakusten baititu eremu zibikoan duten parte-hartzea, bai eta munduari buruz duten ikuspegia eta aldatzeko dituzten asmoak ere.

Gainera, kapitulu honetan gazteek hainbat gizarte-gairi buruz dituzten jarrerai helduko diegu, hala nola abortua, eutanasia eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontza, besteak beste.


Era berean, gazteen kontsumo jasangarri buruzko gero eta interes handiagoa aztertuko da, baita kontsumo horrek duen eragina ingurumenarekiko arduratsuak eta errespetuzkoak diren bizi-ohiturak eratzean ere.

8.1. Gazte gehienak ez daude politikan interesaturik, baina bozkatzera joaten dira

EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 63,9k adierazi du ez duela batere interesik politikan, edo interes gutxi duela. Gizon gazteek interes handiagoa erakusten dute alderdi politikoetan emakume gazteek baino (interes handia erakutsi duten gizonen ehunekoa emakumeena baino hamar puntu handiagoa da).

8.1. grafikoa

18 eta 29 urte bitarteko gazteek politikan duten interes-maila 2023an, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta

Gazteen % 15,7 alderdi politiko baten ideietatik hurbil edo oso hurbil sentitzen da. Talde horri gehitzen badiogu apur bat hurbil sentitzen diren gazteen taldea, ikusten dugu hiru gaztetik bat (% 32,3), neurri batean, alderdi politikoren baten ideietatik hurbil sentitzen dela.

Alderdi politiko baten ideietatik batere hurbil sentitzen ez diren gizon gazteen ehunekoa emakumeena baino hamar puntu handiagoa da.

8.2. grafikoa

18-29 urteko gazteen alderdi politikoren batekiko hurbiltasun-maila 2023an, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta

EAEko gazteek gehien atsegin duten alderdi politikoa EH Bildu da. Hala eta guztiz ere, alderdi politiko horrek ez ditu 5 puntu lortzen, 0 eta 10 puntu arteko eskala batean.

EH Bilduk 4,9 puntu lortu ditu. Beste alderdi politiko batzuek ere 4tik gorako balorazioak lortu dituzte. Honako hauek dira: EAJ-PNV (4,5), PSE-EE (4,2) eta Elkarrekin-Podemos (4,1). Bestalde, PP (2,1) eta Vox (1,1) dira gazteek gutxien atsegin dituzten alderdi politikoak.

EH Bilduri emandako puntuazioek onera egin dute urteek aurrera egin ahala. 2023an alderdi politiko horrek 2022an jasotako puntuazioa lortu du berriro ere, eta hori da serieko puntuaziorik handiena. EAJ-PNV alderdiak ez du 2021eko puntuazioa lortu (orduan jaso zuen bere puntuaziorik onena), baina egonkor jarraitu du azken urteotan. PSE-EE alderdiak puntuazioak hobetu zituen 2021ean eta, harrezkero, maila berari eutsi dio. PP alderdia ere antzeko egoeran dago. Elkarrekin-Podemos alderdiak beherakada handirik izan ez badu ere, puntuaziorik txikiena lortu du egun arte. EAEko gazteek Vox alderdiari balorazio txarrean ematen jarraitzen dute.

Emakumeek gizonak baino puntuazio handiagoak eman dizkiete alderdi politiko guztiei, Voxi izan ezik. Gizonen artean Voxek puntuazio handixeagoa lortu du. Emakumeen eta gizonen arteko alde handienak honako bi alderdi hauei buruz osatu dira: Elkarrekin-Podemos (puntu 1) eta PSE-EE (0,8 puntu).


25 urtetik beherako gazteek ere puntu gehiago ematen dizkiete alderdi politiko guztiei, 25 eta 29 urte artekoekin erkatuta. Kasu horretan alderik handienak EH Bildu eta PSE-EE alderdiei lotuta gertatu dira: EH Bildu (0,7 puntuko aldea) eta PSE-EE (0,6 puntukoa).

Edonola ere, emakume gazteek, gizon gazteek eta adin guztietako gazte-taldeek EH Bilduri ematen diote puntuaziorik handiena.

EH Bildu da gazteek lurralde historiko guztietan hoberen puntuatu duten alderdi politikoa. Hala ere, Gipuzkoan lortu du EH Bilduk bere puntuaziorik onena. EAJ-PNV hobeto baloratu dute Bizkaian, eta gauza bera gertatu zaie PSE-EE eta Elkarrekin-Podemos alderdiei. Dena den, azken bi alderdi horiei dagokienez, lurralde historikoen arabera aldea ez dira hain handiak. Azkenik, PP eta Vox alderdiek Araban lortu dituzte bere puntuaziorik onenak; eta Gipuzkoan, txarrena.

8.3. grafikoa

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoei emandako balorazioen bilakaera (0-10)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta

2023an gazteen % 57k adierazi dute inoiz botoa emana dutela; % 38k hauteskunde guztietan bozkatu dutela, adinez nagusi bilakatu zirenetik inkesta egin arte; eta % 19k adierazi dute behin edo batzuetan bozkatu dutela, baina ez ahal izan duten hauteskunde guztietan. Gainerako % 43a honela banatzen da: % 15ek ez dute inoiz botoa eman, aukera izan arren; % 28k ez dute oraindik botoa eman, hauteskunde-egunean 18 urte ez zituztelako, edo espainiar nazionalitatea ez dutelako. Aipatzekoa da datu hori 2023koa dela, eta horretan ez dela kontuan hartzen Eusko Legebiltzarrerako edo Europako Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetan parte hartzea.

8.4. grafikoa

18 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, bozkatzearikiko jarreraren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta

Gazteen jarrera ideologikoari dagokionez, «ezker-eskuin» eskalan —non 0 ezker-muturra eta 10 eskuin-muturra baitira—, 18 eta 29 urte arteko EAEko gazteen batezbestekoa 4,1 da, hau da, ezkerreko zentrokoa. Gazteen jarrera eta 30 urtetik gorako biztanleena (4,3) antzekoak dira.

Euskal nazionalismoa neurtzeko eskalan —0ak esan nahi du ez dela batere abertzalea eta 10ak guztiz abertzalea dela—, 18 eta 29 urte arteko gazteak, batez beste, erdian daude (5,1), eta 30 urtetik gorako biztanleen batezbesteko bera osatu dute.

Aurreko datuak 2023koak dira, eta ez da aldaketa handirik egon azken hamar urteotan.

8.2. Gazteen erdiek baino gehiagok uste dute gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela, eta modu aktiboagoan parte hartu nahi dute gai publikoetan


2024an, gazteen ia bi herenek (% 64,5ek) uste dute gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela. % 20,4k uste dute aldaketa txikiak eginda hobe daitekeela, eta % 12,3k, ordea, zeharo aldatu behar dela uste dute. % 1,6k baino ez dute uste gure gizartea ondo dagoela dagoen bezala.

2012tik 2024ra, gora egin du gure gizarteak aldaketa sakonak behar dituela uste duten gazteen ehunekoak; eta behera egin du, berriz, aldaketa txikiak eginda hobetu daitekeela uste duten gazteen ehunekoak.

Gizartean aldaketa sakonak eskatzen dituzten emakume gazteak gehiago dira gizon gazteak baino (% 71,0 eta % 58,5, hurrenez hurren).

8.5. grafikoa

15-29 urteko gazteek gizartea aldatzeko duten gogoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gazteen erdiek baino apur bat gehiagok (% 53,9k) esan dute modu aktiboagoan parte hartu nahi dutela gai publikoetan. Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahiak gora egin zuen 2020an, aurreko urteekin alderatuta, eta ordutik hona % 50etik gora jarraitzen du. Bestetik, gazteen % 18,1ek uste dute nahiko parte hartzen dutela jada, eta hori da orain arte jaso den baliorik handiena. Aitzitik, gazteen % 18,5ek aitortu du ez lukeela gai publikoetan parte hartu nahi.

8.6. grafikoa

Gai publikoetan parte-hartze aktiboagoa izateko nahiaren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia azaldu duten emakume eta gizon gazteen ehunekoak antzekoak dira (% 53,3 eta % 54,4, hurrenez hurren); baina gizonek emakumeek baino neurri handiagoan aitortu dute ez dutela parte hartu nahi (gizonen % 21,1ek eta emakumeen % 15,6k).

Gizarterako eskatzen den aldaketa-mailak gora egin ahala, areagotu egiten da gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia: gizarteak aldaketa sakonak behar dituela edo zeharo aldatu behar dela uste duten gazteen artean, % 56,3k eta % 56,4k, hurrenez hurren, modu aktiboagoan parte hartu nahi dute; bestetik, gizartea aldaketa txikiak eginez hobetu daitekeela uste dutenen artean, % 48,7k nahi du parte-hartze aktiboagoa izan; eta gizartea dagoen moduan ondo dagoela pentsatzen dutenen artean, parte hartzeko nahia % 41,8ra jaisten da.

8.3. Gazteen % 44,7 elkarte bateko kide da, eta % 13,8k boluntario-lanak egiten ditu

Guztira, 2023an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 44,7 izan da elkarte bateko kide, edozein elkarte mota kontuan hartuta. Ehuneko hori serieko ehunekorik altuenetako bat da. Serieak, orokorrean, egonkor jarraitu du 2016tik.

8.7. grafikoa
15-29 urteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gizonen asoziazionismoa emakumeena baino handiagoa da (gizonen % 47,0 eta emakumeen % 42,3 elkarte bateko kideak dira). Alde hori osatzen da gazteek gehien aukeratzen dituzten elkarteek kirolarekin zerikusia dutelako, eta elkarte horietan ohikoagoa da gizonen parte-hartzea.

Gizartea hobetzeko gazteek modu aktiboan parte har dezaketen beste modu bat boluntariotza da. Boluntariotza definitzeko, gizarte zibiletik modu egituratuan edo ez hain egituratuan sortutako ekimen altruista dela esan daiteke. 2023an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 13,8k borondatezko lanak egiten ditu, eta ehuneko hori 2021ekoa baino handixeagoa da.

8.8. grafikoa
15-29 urteko gazteen boluntariotza-jardueren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2023ko datuen arabera, borondatezko lana ohikoagoa da 15 eta 19 urte artekoen artean (% 17,6); 20 eta 24 urte artekoen artean % 13,5 osatzen du; eta 25 eta 29 urte artekoen artean % 9,9 osatzen du. Ez dago alde handirik borondatezko lanetan inplikaturik dauden emakume eta gizon gazteen artean.

8.4. Unibertsitatea eta EAEko erakunde politikoak dira Euskadiko gazteen artean konfiantzarik handiena sortzen duten erakundeak

Azken urteotan, gero eta maizago hitz egin da politikatik eta erakunde tradizioaletatik urruntzeari buruz. Horren arrazoiak askotarikoak dira, besteak beste, erakundeekiko konfiantzarik eza, ustelkeria-kasuak direla eta; ordezkartzarik eta parte-hartzerik eza; eraginkortasunik eza eta burokrasia; gauzak aldatzeko gaitasunik ez izateko pertzepzioa; herritarrekiko, oro har, eta gazteekiko, bereziki, loturarik eza; erakunde batzuen balioak zaharkituta egotea; gardentasunik eza, eta abar.

2010eko datuekin, hau da, seriearen hasierako datuekin konparatzen badugu, ikusten dugu azken 13 urteotan gero eta konfiantza handiagoa dagoela euskal erakunde politikoetan (Eusko Jaurlaritzan, Legebiltzarrean, aldundietan eta udaletan), Europar Batasunean, sindikatuetan eta justizia-auzitegietan; aitzitik, gobernu kanpoko erakundeetan eta komunikabideetan lehen baino konfiantza txikiagoa dago.

8.1 taula
18-29 urteko gazteen erakundeekiko konfiantzaren bilakaera (%)

	2010	2014	2016	2018	2019	2021	2022	2023
Unibertsitatea					78	85	82	80
Eusko Jaurlaritzak	58	64	75	63	76	83	76	77
Eusko Legebiltzarra	52	52	71	60	72	75	67	74
Aldundiak	58	51	64	59	68	76	70	73
Udalak	57	63	72	66	74	71	73	72
Gobernuz Kanpoko Erakundeak	66	65	65	53	66	65	64	59
Sindikatuak	52	38	44	36	52	64	64	58
Europar Batasuna	47	39	47	48	63	67	64	53
Justizia-auzitegiak	28	26	36	26	32	50	55	52
Enpresak	48	48	49	38	51	62	55	49
Espainiako Gobernua	26	17	20	19	27	29	27	27
Bankuak			20	18	28	26	24	24
Hedabideak	36	37	37	26	42	36	23	23
Diputatuen Kongresua	19	13	17	16	21	23	19	18
Alderdi politikoak	12	12	16	12	19	18	14	15
Eliza katolikoa	12	18	20	15	20	19	14	12
Espainiako erregetza					14	11	11	9

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta

Gazte-talde guztietan konfiantza handiena sortzen duen erakundea unibertsitatea da, 25 urtetik beherako gazteengan izan ezik. Azken horiek unibertsitatean baino konfiantza handiagoa dute Eusko Jaurlaritzan edo herriko udalean.

25 urtetik beherakoek adin horretatik gorakoek baino konfiantza handiagoa dute Eusko Jaurlaritzan, udaletan, gobernuz kanpoko erakundeetan, sindikatuetan, Europar Batasunean, justizia-auzitegietan, enpresetan eta bankuetan, baina konfiantza gutxiago dute unibertsitatean, aldundietan, Espainiako Gobernuan, Diputatuen Kongresuan eta Espainiako monarkian.

Emakume gazteek gizonek baino konfiantza handiagoa dute unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzan, aldundian, udalean, gobernuz kanpoko erakundeetan, Europar Batasunean, Espainiako Gobernuan eta bankuetan, eta gizonek baino konfiantza gutxiago dute alderdi politikoetan eta Eliza Katolikoan.

8.5. Hiru gaztetik batek ulertzen ditu Europar Batasunaren egitura eta zereginak, eta hori Europako gazteen batezbestekoaren azpitik dago

15 eta 30 urte bitarteko euskal gazteek 2022an Europar Batasuna lotzen zuten, nagusiki, edozein estatu kidetara bidaiatzeko, ikasteko eta lan egiteko askatasunarekin (% 73,7k), baita moneta komuna (euroa) izatearekin ere (% 55,7k).

Kopuru handi batek ere hainbat alde positibo antzematen zizkion Europar Batasunari: kultura aniztasuna (% 48,8k), oparotasun ekonomikoa (% 44,4k), babes soziala (% 40,8k), demokrazia (% 34,2k), bakea (% 32,1ek), etorkizuneko belaunaldien bizitza-kalitatea (% 27,6k), eta munduan ahots ozenagoa izatea (% 27,5ek).

Aitzitik, gazte kopuru txikiagoak lotzen du Europar Batasuna alde negatiboekin, hala nola burokraziarekin (% 21,8k), xahubidearekin (% 12,0k) eta langabeziarekin (% 6,3k); gainera, gazteen % 5,8k uste dute Europar Batasunak gure kultura-nortasuna galtzea ekar dezakeela.

8.9. grafikoa

Europar Batasunari esanahi hauetako bakoitza egozten dioten 15-30 urteko gazteen ehunekoa 2022an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Europar Batasunarekin oso edo nahiko lotuta sentitzen diren 15 eta 30 urte bitarteko gazteak erdia baino gutxiago dira (% 42,9). Ehuneko hori Europar Batasuneko 27 estatu kideetako batezbestekoa (% 62) baino hogeita puntu txikiagoa da.


Lotura falta hori egon arren, euskal gazteen % 59,0k interes handia edo handi samarra du Europar Batasunarekin zerikusia duten gaietan; izan ere, % 74,1ek jakin badaki Europako erakundeetan, Europako Parlamentuan eta Europako Batzordean ematen diren erabaki, lege eta politikek pertsonalki eragiten diotela neurri handian edo handi samarrean.

Hala ere, hiru gaztetik batek (% 33,8k) bakarrik esan du oso ondo edo nahiko ondo ulertzen dituela Europar Batasunaren egitura eta funtzionamendua (ehuneko hori, halaber, EBn batez beste erregistratu dena, % 42, baino txikiagoa). Are gutxiago dira (% 18,5) Europar Batasunari eragiten dioten erabaki, lege eta politiketan eragina izan dezaketela uste duten gazteak.

Nolanahi ere, EAEko gazteen laurdena (% 26,9) soilik dago Europar Batasunaren gaur egungo funtzionamenduaren alde; gehiago dira egungo funtzionamenduarekin ados ez daudenak, nahiz eta Europar Batasuna egotearen aldekoak izan.

8.10. grafikoa

15 eta 30 urte bitarteko gazteen banaketa 2022an, Europar Batasunari eta bere funtzionamenduari buruz duten iritzia araberak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Oraingo funtzionamenduaren alde dauden gazteen ehunekoa oso antzekoa da EAEn eta Europar Batasunean (batez beste, % 28).

Ehuneko baxu hori ez da harritzekoa, kontuan hartzen bada 2022an gazteek egiten zuten balorazioa, Europar Batasunak hainbat egoeraren aurrean egiten duen kudeaketari dagokionez, hala nola honako egoera hauetan: Ukrainako gerran (4,4ko balorazioa, 0tik 10era bitarteko eskalan); klima-aldaketaren kontrako borrokan (4,4), gazteen langabezian (3,9), Greziako zor subiranoaren krisian (3,7) edo Siriako errefuxiatuen krisian (3,0).

8.6. Lau gaztetik bat ez da eroso sentitzen bestelako ideia, sinesmen edo balioak dituzten pertsonekin


Bestelako ideia, sinesmen edo balioak dituzten pertsonekin eroso sentitzen ez diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak gora egin zuen 2000tik 2020ra: % 9,7tik % 24,9ra igo zen; eta antzeko balioetan jarraitzen du 2024an (% 25,6).

Igoera handiena emakumeen artean osatu da, eta aldaketarik handiena 2016tik 2020ra gertatu da. Urte tarte horretan, 2017an hain zuzen ere, hasi zen «Me too» mugimendua sare sozialetan,

laneko eremuan normalizatuta dauden emakumeen aurkako sexu-erasoak eta sexu-jazarpena salatzeak. Mugimendu horrek adierazten zuen emakumeen sumindura kolektiboa sexu-indarkeriaren aurrean, eta mugarri izan zen jarrera matxisten kontrako zero tolerantzia.

8.11. grafikoa

Bestelako ideia, sinesmen edo balioak dituzten pertsonekin eroso sentitzen ez diren 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

8.7. Haurdunaldia borondatez eta modu askean etetearen, eutanasiaren eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen aldeko jarrerek ehuneko handiak osatzen jarraitzen dute

Haurdunaldia eteteko eskubidearen alde dauden gazteen kopurua nabarmen igo da 2008tik 2024ra, nahiz eta zertxobait jaitsi den 2020ko balioarekin erkatuta (% 92,1, eta hori izan zen serieko baliorik handiena).

8.12. grafikoa

Abortu aske eta boluntarioaren aldeko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gazte gehienak abortuaren alde daude, emakume zein gizonak izan, eta adin-tarte guztietan. Dena den, emakumeen artean, adostasuna handiagoa da, gizonen ehunekoarekin erkatuta (% 93,7 eta % 85,5, hurrenez hurren). 15 eta 19 gazteen artean, ordea, txikixeagoa da (% 85,1).

8.13. grafikoa

Abortu librearen eta boluntarioaren aldeko 15-29 urteko gazteen ehunekoa 2024an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Bestalde, eutanasiaren alde dauden gazteen ehunekoak gora egin du 2012tik eta 2024an baliorik handiena osatu du. Aurten gazteen % 90,9k adierazi dute eutanasiaren alde daudela.

8.14. grafikoa

Eutanasiaren aldeko 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Eutanasiari dagokionez, emakume gehiagok, baita 25 eta 29 urte arteko gazte gehiagok ere, adierazi dute alde daudela, baina, hala ere, ez dago estatistikoki esanguratsua den alderik.

8.15. grafikoa

Eutanasiaren aldeko 15-29 urteko gazteen ehunekoa 2024an, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2020an gazteen % 97,7 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen alde zeuden. 2024an behera egin du ehuneko horrek, eta % 92,1 da; hala ere, oraindik ere, gazte gehien-gehienak alde daude.

8.16. grafikoa

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen alde dauden 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Berriro ere, emakumeek eta 20 eta 29 urte bitarteko gazteek osatu dituzte sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen aldeko ehunekorik handienak, gainerako taldeekin erkatuta.

8.17. grafikoa

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldeko 15-29 urteko gazteen ehunekoa 2024an, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legeak aukera ematen du jaiotza-inskripzioan hasieran adierazitako sexuari buruzko aipamena aldatzeko. Gazteek gai horri buruz duten iritzia aztertzeko, Gazteen Euskal Behatokiak, 2024an, lege horrek eskaintzen dituen aukeren ezagutzaz eta inguruabar horiekin duten adostasun-mailaz galdetu die Euskadiko gazteei.

8.18. grafikoa

Erregistro Zibilean aldeztutako baldintza formalik bete gabe sexua aldatzeko aukerari buruz 15 eta 29 urte bitarteko gazteek duten ezagutza-maila, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zazpi ezagutzen dute Erregistro Zibilean sexua aldatzeko aukera. Ezagutza hori emakumeen artean baino handiagoa da gizonen artean, eta handixeagoa da 20-24 urtekoen taldean.

Neurri horren aldeko ehunekoei dagokienez, EAEko gazteen erdiak baino gehixeago alde daude (% 57,8), % 27,2 kontra daude, eta % 15,0k nahiago du ez erantzutea. Emakumeen % 64,3 alde daude, eta 20 eta 24 urte artekoek ere gazte guztien ehunkoa gainditu dute (% 62,2).

8.19. grafikoa

Erregistro Zibilean aldez aurretik inolako baldintza formalik bete gabe sexua aldatzeko aukerari buruz 15 eta 29 urte bitarteko gazteek duten jarrera, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

15 eta 19 urte arteko gizonak gizarte-gai horiek gutxiago babesten dituzte: haurdunaldia eteteko eskubidearen aldeko ehunkoa txikiagoa dute, % 78,9; eutanasiaren aldeko ehunkoa % 85,3 da; eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen aldekoa, % 83,2. Gainera, haien artean, erdiak baino gutxixeago (% 47,2) daude sexua Erregistro Zibilean aldatzeko aukeraren alde.

8.8. EAEko gazte gehienek adierazi dute ez direla fededunak edo ateak direla


2024an, gazteen % 43,7k adierazi du ez dela fededuna edo ateoa dela. Talde horri gehitzen badizkiogu erlijio-gaiak ez diela axola edo agnostikoak direla dioten gazteak (% 20,3), ikusten dugu EAEko hiru gaztetik ia bi (% 64,0) ez direla inolako erlijioaren jarraitzaile. Fededun ez diren gazteen ehunekoak ia bikoiztu egiten du 18 urte edo gehiago dituzten biztanleen ehunkoa (% 34,0, 2022an).

Aitzitik, batzen badira beren burua katolikotzat jotzen duten pertsonen ehunkoa (% 4,7); mezetara joan ez arren katolikotzat jotzen dutenena (% 13,7) eta beste erlijio batzuen

fededunena (% 3,2), emaitza % 21,6 da. Horrek agerian uzten du gazteen erlijio-atxikipenak izan duen beherakada nabarmena.

8.20. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa, sentimendu erlijiosoaren arabera, 2024an (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Fededunak ez diren edo erlijioak axola ez dien gazteen ehunekoa bikoiztu egin da 2000. urtean erregistratutakoaren aldean, eta 2020tik aurrera % 60tik gora dago. Beren burua katolikotzat jotzen duten gazteen kasuan, ordea, kontrako joera izan da eta 2022an eta 2024an serieko ehunekorik txikienak osatu dira.

8.21. grafikoa

Euskadiko 15-29 urteko gazteen erlijio-atxikipenaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Garrantzitsua da kontuan izatea erlijioarekiko atxikipen-sentimendurik ez izateak ez duela esan nahi pertsonak erabat ateoak edo agnostikoak direnik. Jarrera espiritual indibidualak har ditzakete, edo erlijio-erakunde tradizionaletatik kanpo lotura- eta esanahi-modu alternatiboak bila ditzakete. Nork bere esanahia eta sinesmenak bilatzeko prozesuaren zati naturala izan daiteke erlijiotik urruntzea.

8.9. Lau gaztetik batek uste du atzerritar gehiegi bizi direla Euskal Autonomia Erkidegoan


2024an, 15 eta 29 urte bitarteko lau gaztetik batek (% 26,3k) uste du EAEn atzerritar gehiegi bizi direla (gogora dezagun EAEn bizi diren atzerritarren ehunekoa 2023ko urtarrilaren 1ean % 9,3 zela; kopuru absolutuetan, 203.661 pertsona).

Gazte gehienek iritziz (% 56,6), EAEn atzerritar dezente daude, gehiegi ez badira ere. Aitzitik, gazteen % 5,1ek uste du Euskal Autonomia Erkidegoan atzerritar gutxi bizi direla. Gainerako % 11,9k ez du horri buruzko iritzirik eman.

Euskadin atzerritarren kopurua gehiegizkoa dela uste duten gazteen ehunekoa igoera nabarmena izan du 2020tik 2024ra, nahiz eta 2020ko datuetan, segur aski, eragina izan duten COVID-19aren pandemiaren ondoriozko mugikortasun-murrizketek eta kalean dauden atzerritarren pertzepzio txikiagoak. Nolanahi ere, 2024ko zifra 2012an erregistratutakotik urrun dago oraindik, baina kontuan izan behar dugu orduan krisi ekonomikoaren erdian geundela.

8.22. grafikoa

EAEn bizi diren atzerritarren kopuruari buruz 15-29 urteko gazteek duten pertzepzioaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Alderatzen badira, batetik, atzerritar gehiegi daudela uste duten gazteen ehunekoa (iritzi horrek atzeraldaldi ekonomikoetan gora egiten du), eta, bestetik, EAEn benetan dauden atzerritarren ehunekoa, ikusiko dugu gazteen artean ere alde handia dagoela atzerritar gehiegi daudelako ustearen eta atzerritarren benetako bolumenaren artean. 2024an lau gaztetik batek uste du atzerritarren ehunekoa (% 9,3) handiegia dela edo pentsatzen du atzerritarren ehunekoa benetakoa baino handiagoa dela. Edonola ere, pertzepzio horiek diskurtso eta jarrera faxistak edo xenofoboak elikatu ditzakete.

8.23. grafikoa

Euskadin bizi diren atzerritarren kopurua gehiegizkoa dela uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren eta Euskadin bizi diren atzerritarren ehunekoaren bilakaera eta alderaketa* (%)



*Eustaten biztanleria-daturak 2023ko urtarrilaren 1ekoa da.


Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

Atzerriko immigrazioari buruz, gazteek egokien deritzoten politikari dagokionez, EAEko gazteak ia berdina banatzen dira 2024an: gazteen % 43,0k uste du onena litzatekeela lan-kontratua dutenek soilik sartzeko aukera izango balute; eta % 39,2ren ustez, onena litzateke etorkinei sarrera ahalik eta gehien erraztea. Gazteen % 1,8 baino ez dago langile immigrantei sarrera debekatzearen alde. Gainerako % 16,1ek ez dakite zer esan, edo ez dute iritzirik eman nahi izan.

Aurreko urteekin erkatuta, atzerriko etorkinei ahalik eta aukera gehien ematearen aldeko gazteen ehunekoa 2020an izugarri handitu zen (eta bat egiten zuen EAEn etorkizun gutxi zeudelako ustearekin, ikusi dugun bezala). 2024an sarrera erraztearen aldeko jarrera berriro jaitsi da, eta 2016ko datua errepikatu da.

8.24. grafikoa

Immigrazio-politikari dagokionez, 15-29 urteko gazteen iritziaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2024an gazteei galdetu zaie, haien ustez etorkinak etortzeak ondorio onuragarriak ala kaltegarriak sortzen dituen EAEko gizartean. Erantzuteko, gazteei eskatu zaie 0 eta 10 puntu arteko balorazioa egitea: 0ak esan nahi du ondorio oso negatiboak sortzen dituela; eta 10ak esan nahi du ondorio oso positiboak sortzen dituela. Gazteek, batez beste, 6,1eko puntuazioa eman dute, hots, ondorio negatiboak baino ondorio positibo gehiago hautematen dituzte.

Emakume gazte gehiago dira immigrazioaren aldekoak, gizon gazteen aldean. Atzerritar gehiegi daudela pentsatzen dutenen ehunekoa txikiagoa da emakumeen artean (% 21,6 horien artean; eta gizonen artean, % 30,7). Horrez gain, emakume gehiago daude etorkinen etorrera ahalik eta gehien erraztearen alde (horien artean, % 46,2; eta gizonen artean, % 32,6). Immigrazioak gizartean dituen onurei dagokienez, emakumeen arteko batezbestekoa gizonena baino askoz ere handiagoa da; horrek esan nahi du emakumeek argiago ikusten dutela immigrazioak ondorio onuragarriak izaten dituela (emakumeen batezbestekoa 6,4 da; eta gizonena, 5,8).

15 eta 19 urte arteko gazteak dira immigrazioaren aldeko ehuneko txikienak osatu dituztenak. Haietatik % 33,5ek uste dute EAEen atzerritar gehiegi daudela; % 53,3ren ustez, lan-kontratua izan ezean, ez litzateke sartzeko erraztasunik eman beharko; eta immigrazioak EAEko gizartean eragiten dituen ondorioei buruzko batez besteko balorazioa, 0-10 eskalan, 5,5 da, hau da, erregistratu direnetik baxuena.

8.10. Gazte gehienek ekologistak direla diote, baina erdiak baino gutxiagok adierazi dute kontsumo-ohitura osasungarriak dituztela

2024an, 15-29 urteko gazteen % 64,2k oso edo nahiko ekologistatzat jotzen du bere burua. Ehuneko hori 2022an erregistratutakoaren antzekoa da (% 66,6).


Hala ere, gazteen kontsumo-ohiturak neurtzean, hamar gaztetik lauk baino ez dituzte ohitura jasangarriak. Jasangarritasuna aztertzeako orduan, gazteen ohituretan eragina duten bi alderdi hartuko ditugu kontuan: kontsumoa eta mugikortasuna. Hau da, aztertuko dugu ea gazteek modu jasangarrian kontsumitzen duten eta mugitzen diren.

Kontsumo jasangarria neurtzeko, bost ohitura hauek hartu dira kontuan: erosketak egiteko norberaren poltsa edo orga eramatea; gutxi ontziratutako edo paketatutako produktuak erosten saiatzea; etxeko zarama hondakin-motaren arabera bereiztea; uraren kontsumoa murrizten saiatzea; eta, azkenik, garraio publikoa edo kolektiboa erabiltzea edo autoa partekatzea.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 76,7k birziklatzen dute, hau da, etxeko zarama hondakin-motaren arabera bereizten dute, eta ehuneko horrek islatzen du ikertutako bost ohituretatik gehien zabaldutakoa dela. Norberaren poltsa edo orga eramatea da kontsumo jasangarriaren arloko bigarren ohiturarik ohikoena EAEko gazteen artean: elkarriketatutako direnen % 75,0k baieztatu dute normalean hala egiten dutela. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 73,7k garraio publiko kolektiboa erabiltzen dute edo autoa partekatzen dute normalean. % 54,7 uraren kontsumoa murrizten saiatzen da. Azkenik, gutxi ontziratutako edo gutxi paketatutako produktuak erosten saiatzea bosgarren postuan dago, eta gazte gehienek ez dute ohitura hori (haietako % 29,9k baino ez du ohitura hori).

8.25. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteek kontsumo jasangarriarekin lotutako bost portaeraren maiztasuna 2023an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Aztertutako ohitura gehienak hedatu egin dira 2012tik 2023ra, baina ez intentsitatea berdinarekin. Badirudi gazte gehienek beren poltsa edo orga eramateko ohitura bereganatu

dutela. Garraio publiko kolektiboaren erabilera ere nabarmen areagotu da, ziur asko, txartelen prezioa aldi baterako jaitsi delako.

8.2 taula

15-29 urteko gazteek kontsumo jasangarriarekin lotutako bost portaeraren maiztasunaren bilakaera (%)

Zure kontsumo portaerei buruz, zein maiztasunarekin...?				
(%)	2012	2016	2021	2023
...banatzen dituzu etxeko zaborrak hondakin-motaren arabera?				
Sarritan	63,7	63,5	82,5	76,7
Batzuetan bakarrik	14,6	14,3	11,5	13,3
Inoiz edo ia inoiz ez	20,5	21,6	6,1	8,9
...zure poltsa edo orga eramaten duzu erosketak egiterakoan?				
Sarritan	41,9	53,8	70,0	75,0
Batzuetan bakarrik	25,2	17,0	19,2	15,7
Inoiz edo ia inoiz ez	30,8	27,1	10,8	7,6
...garraio publiko kolektiboa erabiltzen duzu edo kotxea partekatzen duzu?				
Sarritan	57,2	58,9	65,7	73,7
Batzuetan bakarrik	21,2	17,5	24,8	17,9
Inoiz edo ia inoiz ez	20,2	22,5	9,5	7,6
...uraren kontsumoa murrizten saiatzen zara?				
Sarritan	54,1	60,7	59,0	54,7
Batzuetan bakarrik	24,0	18,2	34,1	34,6
Inoiz edo ia inoiz ez	20,3	20,4	6,9	9,3
...gutxi paketutako produktuak erosten saiatzen zara?				
Sarritan	18,7	23,4	36,2	29,9
Batzuetan bakarrik	28,1	20,7	48,8	44,2
Inoiz edo ia inoiz ez	47,4	52,3	15,0	22,4
Guztira	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


Ikerketa honetan aztertutako bost portaeretatik lau sarritan egiten dituztenen kopurua kontuan hartuta, kontsumo jasangarriaren indizea kalkulatu dugu. Metodologia hori aplikatuta, esan dezakegu EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 40,2k kontsumo jasangarriaren aldeko jardunbideak dituztela normalean.

Gazteen Euskal Behatokiak kalkulatzeko duen kontsumo jasangarriaren indize horren bilakaera oso positiboa izan da 2012. urtetik (% 21,4) 2023. urtera (% 40,2) bitartean.

Kontsumo jasangarriaren indizea handiagoa da emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino, 2021etik 2023ra emakumeen kontsumo jasangarriko ohiturek pixka bat behera egin duten arren. Gizon gazteen kontsumoan ez da halako beherakadarik gertatu.

8.26. grafikoa

Kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Kontsumo jasangarriari buruz hitz egiten dugunean, sarritan ari gara haragiaren kontsumoa mugatzeko beharraz, abeltzaintza industrialak eta makrogranjek ingurumenean duten inpaktua dela eta (ura kutsatzen da; berotegi-efektuko gasak isurtzen dira; pentsuak ekoizteko basoak soiltzen dira..., abereak gaizki artatzeaz gain). 2023an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 6,3k adierazi dute begetarianoak edo beganoak direla Emakumeen artean zabalduxeago dago begetariano edo begano izatea gizonen artean baino (% 7,9 eta % 4,8, hurrenez hurren).


Mugikortasun jasangarriari dagokionez, ikusi dugu bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzen duten gazteen ehunekoa ia bikoiztu egin dela 2008tik 2023ra. Hazkunde hori lotuta egon daiteke udalerrri askotan maileguan utzitako bizikleten (elektrikoak batzuk) parkea handitu izanarekin, baita bidegorrien edo bizikletak erabiltzeko egokitutako erreien luzera handitu izanarekin. 2021ean ehunekorik handiena lortu zen, COVID-19k eragindako pandemiari lotutako mugikortasun-neurrien ondorioz. Orduan bizikletak gehiago erabiltzen ziren, eta askoz ere ohikoagoa zen oinez ibiltzea hirian.

Halaber, nabarmen gora egin du garraio publiko kolektiboa egunero edo ia egunero erabiltzen dutenen ehunekoak. Igoera horren atzean txartelen prezioaren beherapenak egon daitezke, bai eta aparkalekuaren murrizketak handitzea ere, araututako ordainpeko aparkaleku-eremuen hedapenarekin.

Garraio publiko kolektiboaren erabilera gizonen artean baino askoz ere orokortuago dago emakumeen artean, eta hori serie osoan egiaztatu da. 2023an ehunekoetan hamar puntuko aldea dago (emakumeen % 53,2k egunero edo ia egunero erabiltzen du; gizonen artean, % 46,6k). Bizikletaren erabilerari dagokionez, emakumeek baino gehiago erabiltzen dute gizonak. 2023an, gizonen % 13,2k eta emakumeen % 7,7k egunero edo ia egunero erabiltzen dute bizikleta.

8.27. grafikoa

Egunero edo ia egunero garraio publikoan edo bizikletaz mugitzen diren 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

8.11. Gazteen balioen eta jarreraren ondorio sozialak

Gazte gehienek interes txikia dute politikan, eta urrun sentitzen dira alderdi politikoetatik. Hala ere, botoa ematera joaten dira, eta gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko prest daude. Horrez gain, gazte gehienek gizarte-aldaketa sakonak eskatzen dituzte. Hortaz, pentsa daiteke gazteek politikan parte hartzeko dituzten moduak bide tradizionalak bestelako bideetatik bidera daitezkeela.

Emakumeek erreforma gehiago eskatzen dute, eta gai publikoetan parte hartzeko joera handiagoa dute; beraz, potentzial hori baliatu behar da, eta emakume gazteei benetan parte hartzeko aukera eman behar zaie. Emakumeek, gainera, sentsibiltate handiagoa dute pertsona ahulenen aurrean, eta gizonak baino gehiago babesten dituzte gai sozialak, hala nola, abortua, eutanasia, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak, sexua Erregistro Zibilean aldatu ahal izatea, eta immigrazioa. Horrez gain, kontsumo jasangarriagoa egiten dute.

Bestalde, badago 15 eta 19 urte arteko gizonen artean eskuin-muturreko jarrerak areagotzeko arriskua. Abortua, eutanasia, LGTBIAQ+ pertsonen eskubideak eta immigrazioa gutxien onartzen dituztenak haiek dira.

9. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Atal honetan, emakumeek eta gizonek bizitzaren hainbat alderditan izaten dituzten egoera desberdinei, bizipen desberdinei eta pertzepzio desberdinei buruzko datuak jasotzen dira.


9.1. EAEko gazte gehienek, emakumeek zein gizonek, adierazi dute feministak direla

2024an EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 34,9k adierazi dute oso feministak direla. Emakumeen ia erdiek adierazi dute oso feministak direla (% 48,6k); gizonen artean askoz ere gutxiagok (% 21,2k). Nahiko feministak direla diotenak kontuan hartzen baditugu, gazte gehienak, emakumeak zein gizonak, feministak sentitzen dira (% 77,4). Hala ere, gizonen ehunekoa baino handiagoa da emakumeena (emakume gazteen % 85,9 eta gizonen % 69,1).

Emakumeen zein gizonen artean, nork bere burua feministatzat jotzen dutenen ehunekoa handixeagoa da 20 eta 29 urte bitartekoen artean, gazteenen (15-19 urtekoak) artean baino.

9.1. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen autokontsiderazio feminista 2024an, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Beren burua feministatzat jotzen duten gazteen ehunekoak behera egin du 2024an, 2020ko ehunekoen aldean (emakumeen % 90,5; eta gizonen % 76,8)

9.2. Prestakuntza eta esperientzia berberak izanda, lanpostu bat lortzeko, gizonak emakumeek baino aukera gehiago dituztela uste duten emakumeen ehunekoak gora egin du azken urteetan

2023an emakume gazteen erdiek baino gehixeagok (% 55,4k) uste dute hautaketa-prozesu batean, prestakuntza eta eskarmentu bera izan arren, emakumeek baino aukera gehiago izango lituzketela gizonak, kontratua lortzeko, gizonak izateagatik. Bestalde, emakumeen % 2,0k uste du emakumeak aukera gehiago izango lituzkeela lana lortzeko, emakumea izateagatik. Hiru emakumetik batek (% 34,0k) pentsatzen du sexuak ez duela eraginik izango enplegu-emailearen erabakian, eta gainerako % 8,5ek ez daki edo ez du erantzun.

Gizon gehienek, ordea, uste dute sexuak ez duela eraginik izangaia hautatzerakoan (% 56,7k), baina haien artean ere gizon gehiagok uste dute gizonak aukera gehiago dituztela (% 25,5ek), emakume batek kontratua lortuko duela pentsatzen dutenekin erkatuta (horiek % 7,6 osatzen dute).

9.1 taula

15-29 urteko emakumeen eta gizonen pertzepzioaren bilakaera, lana lortzean emakume edo gizon izateak duen eraginari dagokionez (%)

	Emakumeak					Gizonak				
	2008	2012	2016	2020	2023	2008	2012	2016	2020	2023
Gizonak aukera gehiago ditu	23,3	28,1	27,6	33,6	55,4	23,2	19,1	21,2	13,8	25,5
Emakumeak aukera gehiago ditu	9,3	8,9	8,3	5,5	2,0	5,9	8,5	9,7	6,7	7,6
Emakume edo gizon izateak ez luke inolako eraginik	60,3	57,0	58,4	55,3	34,0	63,5	64,4	63,0	72,4	56,7
Ez daki edo ez du erantzuten	7,1	6,0	5,7	5,6	8,5	7,5	8,0	6,1	7,0	10,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Adinak gora egin ahala, gazte gehiagok uste dute gizonak aukera gehiago dituztela lana lortzeko. 25 eta 29 urte arteko emakumeen % 62,2k hori uste du; 15 eta 19 urte arteko emakumeen artean, aldiz, gutxiagok, % 48,6k. Bestalde, gizonen artean, gizonak emakumeek baino aukera gehiago dituztela uste dutenak % 18,9 dira 15 eta 19 urte artekoen artean, eta ehuneko hori % 28,6ra igotzen da 25 eta 29 urte artekoen taldean.

Gainera, 2020an hautaketa-prozesuren batean parte hartu zuten gazteen artean, % 5,7k sentitu zuen ez zuela bidezko tratua jaso, hain zuzen ere bere sexuagatik. Azken alderdi horri dagokionez, hautaketa-prozesuetan parte hartu dutenen artean, gehiago dira emakume izateagatik diskriminatuak sentitu ziren edo emakume izateagatik kontratatu ez zituztela uste zuten emakume gazteak (% 8,3k), alderatuta gizon izateagatik ez zituztela kontratatu uste zuten gizon gazteen ehunekoarekin (% 3,3).


9.3. Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala 175 eurokoa da 2023an

Generoaren ziozko soldata-arrakalak azaleratzen du gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldea, lan bera edo balio bereko lana eginda ere. Soldata-arrakala gai garrantzitsua da lanean genero-berdintasuna eta ekitatea lortzeko borrokan. Diagnostiko honetan gizonen eta emakumeen soldatei buruzko datuak emango ditugu, zer lan egiten duten jakin gabe. Hori dela eta, hainbat faktorek eragina izan dezakete alde horretan, hala nola, soldata-diskriminazio zuzena, okupazioaren arabera segregazioa, lanean gora egiteko aukerarik ez izatea, soldata-negoiazioan aldeak egotea, lanaldi-mota eta abar.

Besteren kontura lan egiten duten 18 eta 34 urte arteko emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala 2023an 175 euro garbikoa da hilean. Igoerak eta beherakadak egon arren, 2012an erregistratutako 312 euroen eta 2022an izandako 143 euroen artekoa izan da arrakala hori aztertutako urteetan.

9.2. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko emakume eta gizon gazteen soldata-arrailaren bilakaera (eurotan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

9.4. Hiru emakume gaztetik bi diskriminatuta sentitu dira egoeraren batean emakume izateagatik

Sexuaren arabera diskriminazioari genero- edo sexu-diskriminazioa ere esaten zaio. Pertsona bati sexuan edo generoan oinarritutako tratu ezberdina edo bidegabea ematean datza, eta hainbat egoeratan eta hainbat arrazoiengatik gerta daiteke.

Hezkuntzaren eremuan, hezkuntza-ibilbideak eskuratzeko aukera desberdinak egon daitezke. Emakumeek eta neskek oztopoak aurkitu ditzakete zenbait ikasketa egiteko, praktika diskriminatzaileak direla eta; esate baterako, estereotipo batzuen ondorioz, emakumeek interes txikiagoa adierazten dute zenbait ikasketa-arlotan.

Lan-eremuan, pertsona bati bere sexuan oinarrituta kontratatzeari, mailaz igotzeari edo soldata justuak ordaintzeari uko egitea aurki dezakegu. Lanaren arloko diskriminazioak genero-estereotipoetan oinarritutako rolak edo zereginak esleitzea ere ekar dezake, hala nola zaintza-lanak emakumeei esleitzea eta lidergo-rolak, aldiz, gizonei esleitzea.


Horrez gain, sexu-jazarpena ere beste arazo bat da. Sexu-jazarpena gertatzen da pertsona horrek bere borondatearen kontrako sexu-jarduerak edo sexu-iruzkin, -keinu edo -portaera desagokiak lanean edo beste inguru batzuetan jasotzen dituenean. Horrek laneko etsai-giro sor dezake, eta pertsona horren lanerako gaitasunari edo lanean gora egiteari eragin diezaieke.

Sexuaren ziozko diskriminazioa gerta daiteke genero-estereotipoek pertsona baten bizitzaren arlo guztietako aukerak edo itxaropenak mugatzen dituztenean, pertsona horren sexuarengatik.

2022an eta 2023an 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen % 60 baino gehiagok diskriminazio-egoera bat bizi dute non diskriminatuta sentitu diren emakume izateagatik. Ehuneko horiek gizonenak ia bikoizten dituzte.

9.3. grafikoa

Sexuagatik diskriminatuta sentitu diren egoeraren bat bizi izan duten 15-29 urteko emakumeen eta gizonen ehunekoa (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


9.5. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko hamar emakume gaztetik zazpik adierazi dute beldur direla herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzen direnean

15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia erdiek (% 45,3) adierazi dute beldur diotela herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzeari. Hala ere, beldurraren pertzepzioa ez da berdina gizon gazteen artean edo emakume gazteen artean; emakumeei dagokienez, beren udalerrian gauez bakarrik ibiltzen direnean beldur direla dioten ehunekoa % 69,7 da; gizonen ehunekoa, berriz, askoz baxuagoa da, % 22,5.

Gainera, 2020tik aurrera kalean gauez bakarrik ibiltzeko beldurra nabarmen areagotu da emakumeen zein gizonen artean, aurreko neurketekin alderatuta.

9.4. grafikoa

Beren herrian edo auzoan gauez bakarrik dabiltzanean beldurra sentitzen dutela dioten 15-29 urteko emakumeen eta gizonen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Sexua eta adina gurutzatzen baditugu, ikusiko dugu talde guztietan emakume gehienek diotela beldur direla gauez bakarrik ibiltzen direnean, eta ehunekoen artean ez dago alde handirik; gizonen kasuan, gutxi dira beldur direnak, baina 20 urtetik gorakoen eta 20 urtetik beherakoen artean hamar puntuko aldea dago.

9.5. grafikoa

2024an beren herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzen direnean beldurra sentitzen dutela dioten 15-29 urteko emakumeen eta gizonen ehunekoa, adin-taldeen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Beldur izateko arrazioen artean, gauez kaletik bakarrik ibiltzeko beldurra duten emakume gazte ia guztiek (% 97,2k) adierazi dute sexu-erasoa jasotzearen beldur direla; gauez kaletik bakarrik ibiltzearen beldur diren bost gizon gaztetik batek (% 20,4k) beldur dio sexu-erasoa jasotzeari. Hala eta guztiz ere, gizonak beldur handiagoa diete lapurretei eta eraso fisikoei.

9.6. grafikoa

Beren herritik edo auzotik gauez bakarrik ibiltzean beldurra duten 15-29 urteko emakumeen eta gizonen ehunekoa 2024an, beldurraren arrazioen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gazte guztiak kontuan hartzen baditugu (ez soilik gauez kalean bakarrik ibiltzeari beldur diotenak), esan daiteke EAEko emakume gazte guztien % 67,7 (hau da, hiru emakumetik bi) gauez beren auzoan edo herrian bakarrik ibili bitartean sexu-eraso bat jasotzearen beldur direla; emakumeen % 43,6 lapurreta jasotzearen beldur dira; eta % 37,5 eraso fisikoa jasotzearen beldur. Gizon gazteen artean, % 19,4 gauez kalean bakarrik ibili bitartean lapurreta jasotzearen beldur da; % 19,3 eraso fisiko baten beldur da; eta % 4,6 sexu-eraso bat jasotzearen beldur da.

9.6. Gazte gehienek uste dute bikotekidearen aurkako tratu txar guztiak oso larriak direla


Jokabide eta jarrera jakin batzuen larritasunaren pertzepzioa neurtzeko, indarkeria egikaritzeko mota hauen larritasuna baloratzeko eskatu zaie gazteei: iraintzea, erabakirik hartzen ez uztea, sare sozialetan kontrolatzea, itxura edota lagunak kontrolatzea, gutxiestea, mehatxatzea, etxetik irtetea debekatzea, sexu-harremanak borondatearen aurka izatera behartzea eta fisikoki erasotzea.

Planteatu diren horietatik, gazteek uste dute honako hauek direla larrienak: fisikoki erasotzea, sexu-harremanak borondatearen aurka izatera behartzea eta etxetik irtetea debekatzea. Gazteen % 90ek baino gehiagok uste dute oso larriak direla.

Gutxiestea da gazteek larritasun gutxien ematen dioten indarkeria-mota, baina, hala ere, gazte gehienek uste dute oso larria dela.

9.7. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziz, 2022an proposatutako tratu txar mota bakoitzaren larritasuna (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gizonekin alderatuta, emakumeek larritasun handiagoa ematen diete zehaztutako tratu txarren mota guztiei. Tratu txar mota larrienak (fisikoki erasotzea, sexu-harremanak borondatearen aurka izatera behartzea eta etxetik irtetea debekatzea) baloratzeko orduan, gizonen eta emakumeen iritzien arteko aldeak ez dira hain handiak, eta % 90etik gorakoak dira tratu txarroko oso larritzat jotzen dituzten emakumeen zein gizonen ehunekoak.

Indarkeria mota sotilenak (kontrola ezartzea, gutxiestea edo erabakiak hartzeko aukera kentzea) balioesteko orduan, ordea, alde handiagoa dago. Tratuok oso larritzat jotzen dituzten emakumeen eta gizonen ehunekoaren arteko aldeak hamar puntutik gorakoak dira.

9.8. grafikoa

Proposatutako tratu txar mota bakoitza 2022an oso larritzat jo duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

9.7. Lau emakumetik ia batek sexu-jazarpena jasan du sare sozialetan


Sare sozialetako sexu-jazarpena, besteak beste, Facebook, Twitter edo Instagram sare sozialetan gertatzen den sexu-izaerako nahi gabeko portaerari dagokio. Jazarpen-mota hori hainbat modutan gerta daiteke: eskatu ez diren sexu-mezuak jasoz; argitalpenetan iruzkin desagokiak eginez; nahi ez diren sexu-irudiak jasoz (adostu gabeko *sexting*-a esaten zaio); sexu-zurrunburuak edo -iruzkin esplizituak zabalduz, biktima umiliatzeko edo lotsatzeko asmoz, besteak beste.

2023an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 15,3k adierazi dute sare sozialetan inoiz sexu-jazarpena jasan dutela. Hala eta guztiz ere, ehuneko orokorretik haratago joan behar dugu, alde handiak baitaude sexu-jazarpena jasan duten emakumeen eta gizonen artean: emakumeen % 23,8k eta gizonen % 7,4k diote sexu-jazarpena bizi izan dutela sare sozialetan.

Emakumeen artean, sare sozialetan sexu-jazarpena jasan dutenen ehuneko handiena 20 eta 24 urte arteko emakumeek osatu dute.

9.9. grafikoa

2023an sare sozialetan noizbait sexu-jazarpena jasan dutela dioten 15-29 urteko gazteen ehunekoa, sexuaren eta emakumeen adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


9.8. Hamabost eta hogeita bederatzi urte bitarteko 1.000 emakumetik 9,8k jarri dute genero-indarkeriari buruzko salaketa bat 2023an

Emakumeen kontrako indarkeriaren tasa orokorra EAEn, 2023an, 9,8 da, 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 emakumeko. Tasa horrek kontuan hartzen du genero-indarkeriagatiko salaketa bat (edo gehiago) jarri duten emakumeen kopurua, adin talde bereko 1.000 emakumeko.

Emakume gazteei dagozkien tasak 30 urte edo gehiagoko emakumeenak baino handiagoak dira, serie osoan.

9.10. grafikoa

Genero-indarkeriagatiko salaketaren bat jarri duten emakumeen tasaren bilakaera, adin-talde handien arabera (adin-talde bereko 1.000 emakumeko tasa)




Iturria: Segurtasun Saila. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza. Azterlan eta Analisisien Dibisioa.

Balio absolutuetan, 2023an, 15 eta 29 urte bitarteko 1.508 emakumek jarri zuten genero-indarkeriagatik salaketaren bat; 30 urtetik gorakoen artean, aldiz, 3.707 emakumek jarri zuten salaketaren bat.

9.11. grafikoa

Genero-indarkeriako gertakarien salaketa jarri duten emakumeen kopuruaren bilakaera, adin-talde handien arabera (absolutuak)



Iturria: Segurtasun Saila. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza. Azterlan eta Analisien Dibisioa.

Bost urtekako taldeen arabera banaketak erakusten digunez, 2023an genero-indarkeriagatik salaketaren bat jarri duten 1.508 emakume horietatik 406 emakume 15 eta 19 urte bitartekoak dira; 20-24 urte bitartekoaren artean 561 izan dira, eta 25-29 urte bitartekoaren artean, 571.

Salatutako egoera matxistaren motari dagokionez, 1.011 emakumek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria salatu dute; 180k familia barruko indarkeria salatu dute, eta 317k, sexu-askatasunaren aurkako delituren bat salatu dute.

9.9. Emakumeen aurkako egoera desorekatuaren ondorioak

EAEko gazteek feminismoaren aldeko jarrera argia eta identifikazio-maila handia dute. Horrek erakusten du genero-berdintasunari buruzko kontzientzia handia dutela, nahiz eta, oraindik ere, gizonen eta emakumeen artean alde nabarmenak dauden. Feminismoaren aldeko jarrera horrek, ordea, behera egin du azken urteotan, batez ere, gizon gazteen artean.

EAEko emakume gazteei kezka oso handia sortzen diete laneko diskriminazioak eta gauez kalean bakarrik ibili bitartean sexu-erasorik jasotzearen beldurrak. Datu horiek erakusten dituzte emakumeek oraindik ere lanaren eta segurtasun pertsonalaren arloetan dituzten oztopoak. Gainera, soldata-arrakalak jarraitu egiten du gizon eta emakume gazteen artean, eta horrek

nabarmentzen du politika eraginkorrak ezarri beharra, soldaten ekitatea eta laneko aukera bidezkoak ziurtatzeko.

Sare sozialetan zein eguneroko bizitzan gertatzen den sexu-jazarpenaren eraginak, bai eta genero-indarkeriagatiko salaketek ere, agerian uzten dute emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako prebentzio-estrategia integralak garatu beharraren garrantzia. Era berean, gizartearen eremu guztietan genero-errespetuaren eta -ekitatearen kultura sustatu beharra dago, erabateko berdintasun eraginkorra lortu nahi badugu.

10. NORBERAREN EGOERARI, GAZTE GUZTIEN EGOERARI ETA EUSKADIKO EGOERARI BURUZKO BALORAZIOAK

Azken atal honek jasotzen ditu gazteen balorazioak, honako hauei buruz: beren egoera pertsonalari buruz, gazteriaren egoera orokorrari buruz, administrazioek gazteen arloan egiten duten lanari buruz, eta, azkenik, EAEko egoerari buruz.


10.1. Gazteek 7,2ko balorazioa ematen diote beren egungo egoera pertsonalari

2023an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek, 0-10 eskala erabiliz, 7,2 puntuko balorazioa eman diote beren egoera pertsonalari. Puntuazio hori eta 2020 eta 2022 artean izandakoak antzekoak dira, baina 2015-2019 aldian jaso zena baino txikixeagoa da. 2019an, zehazki, puntuaziorik altuena jaso zen (7,8).

Gazteak, batez ere, beren familiarekin ageri dira gogobeteta (8,3 puntuko gogobetetasuna adierazi dute). Lagunekiko gogobetetasuna 7,6 da, ikasketekin edo prestakuntza-mailarekin dutena bezalakoa. Gogobetetasun maila txikiena sortarazten duten alderdiak honako hauek dira: harreman sentimentalak edo sexualak (6,6ko puntuazioa jaso dute), lan-egoera edo lan-itxaropenak (6,5), eta erabilgarri duten dirua (6,0).

10.1. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen gogobetetzea beren bizitzako hainbat alderdiri buruz, 2023an (0-10 eskala)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Norberaren poztasun-indizeak kontuan hartzen ditu aurreko alderdi guztiak. Indize horrek puntu bat irabazi du 2022ko emaitzarekin erkatuta, eta 100 puntutik 71 lortu ditu 2023an. Adierazle horren bilakaerak erakusten du norberaren egoerarekiko poztasuna, oso handia izan arren, 75etik beherakoa izan dela 2020tik aurrera.

10.2. grafikoa

15-29 urteko gazteen poztasun-indizearen bilakaera (0-100 eskala)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

10.2. Gazteek gazteriaren egoera orokorra norberarena baino okerrago baloratzen dute eta ezkor daude bilakaerari dagokionez

2023an, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek 10 puntutik 5,8 ematen diote gazte guztien kolektiboaren egoerari. Gazteriaren egoerari emandako balorazioa, norberaren egoerari emandakoa baino okerragoa da.

10.3. grafikoa

15-29 urteko gazteek beren egoera pertsonalaz eta gazteriak, kolektibo gisa, duen egoeraz egiten duten balorazioen bilakaera (0-10 eskala)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gazteak ez daude baikor gazteriaren egoerak, oro har, datozen bost urteetan izango duen bilakaerari dagokionez; % 36,9k berdin jarraituko duela uste dute; eta gehiago dira okertuko dela uste dutenak, hobetuko dela deritzotenak baino (% 38,4 eta % 20,9, hurrenez hurren).

10.4. grafikoa

15 eta 29 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, gazteriaren egoerak datozen bost urteetan izango duen bilakaerari buruz duten iritzia (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

10.3. Lan-merkatuari lotutako arazoek, oraindik ere, pertsona gazteen kezka nagusia izaten jarraitzen dute

18 eta 29 urte arteko gazteen ustez, EAEko arazo nagusiak lan-merkatuari buruzkoak dira, gazte gehienek (% 63k) adierazi dutenaren arabera.

Horren atzetik, etxebizitzari lotutako arazoak, arazo ekonomikoak eta osasunari edo osasungintzari lotutakoak ditugu. Hiru arazo mota horiek gazteen herenek aipatu dituzte (% 30ek eta % 36k artean).

Hirugarren blokean, gazteen % 10ek eta % 17k artean aipatuak, honako arazo hauek daude: egoera politikoa, zerbitzu publikoen eta laguntzen funtzionamendua, delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza, hezkuntza, eta immigrazioa. Gainerako arazoak aipatu dituztenen ehunekoak % 10etik beherakoak dira.

2021ean eta 2022an izandako zifrekin konparatuta, honako gai hauek gehiago aipatu dira arazo gisa 2023an: enplegua, etxebizitza, arazo ekonomikoak eta osasunarekin edo osasun-zerbitzuekin zerikusia dutenak, bai eta zerbitzu publikoen eta laguntzen funtzionamendua ere.

Nabarmentzekoa da 2023an osasuna eta zerbitzu publikoen eta laguntza publikoen funtzionamendua aipatu dituztenen ehunekoak aurreko serie osoan izandakoak baino handiagoak direla.

10.1 taula

Euskadiko arazo nagusien bilakaera 18 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziz (%)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2021	2022	2023
Lan-merkatua	50	65	67	75	75	77	75	74	71	64	66	61	44	53	63
Etxebizitza	61	41	30	21	17	13	13	10	11	12	16	13	12	17	36
Arazo ekonomikoak	20	34	29	31	39	36	27	19	18	16	11	8	14	21	34
Osasungintza eta Osakidetzaren funtzionamendua	3	2	2	2	4	6	9	4	5	5	4	4	9	13	30
Egoera politikoa, politikariak, gaztaka politikoa	22	20	20	23	19	22	20	12	14	12	10	9	14	16	17
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak	3	3	5	5	7	5	8	10	10	8	9	7	8	9	16
Hezkuntza eta ikasketak	3	3	5	5	8	8	11	8	11	10	11	9	8	10	10

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta

Sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera kolektibo guztietan gazteek gehien aipatzen dituzten arazoak laneko merkatuari buruzkoak dira (ehunekoak % 50etik gorakoak dira).

Edonola ere, gizon gazteek baino emakume gehiagok aipatu dituzte lan-merkatuari, osasunari, delinkuentziari eta herritarren segurtasunari lotutako arazoak. Aitzitik, emakumeek baino gizon gehiagok aipatu dituzte immigrazioari eta gizarte-desberdinkerari lotutako arazoak.

18 eta 24 urte arteko gazteekin erkatuta, 25 eta 29 urte bitartekoek neurri handiagoan aipatu dituzte arazo ekonomikoak eta etxebizitzari lotutako arazoak; aitzitik, zerbitzu publikoen eta laguntza publikoen funtzionamenduari eta estaldurari lotutako arazoak gutxiago aipatu dituzte 25-29 urtekoek.

Gipuzkoako gazteak dira laneko arazoak eta arazo ekonomikoak gehien aipatu dituztenak; bestalde, osasunari lotutako arazoak gutxien aipatu dituztenak dira. Arabako gazteek gainerakoek baino gehiago aipatu dituzte zerbitzu publikoen funtzionamenduari eta estaldurari, hezkuntzari, azpiegiturei eta garraioei lotutako arazoak. Aldeak hain handiak ez badira ere, Bizkaiko gazteek gainerakoek baino gehiago aipatu dituzte egoera politikoa, delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza, eta gazteen arazoak, orokorrean.


10.4. Gazteen % 51,8k uste dute gurasoak baino hobeto daudela, gurasoek adin berean zuten egoerarekin alderatuta

2023an, gazteen erdiek (% 51,8k) esan dute egoera hobean daudela, beren aitak edo amak adin berean zuten egoerarekin alderatuta.

Beren gurasoek adin berean zuten egoerarekin alderatuta, egoera hobean daudela adierazi duten gazteen ehunekoa askoz ere txikiagoa da 2023an, 2008ko emaitzekin erkatuta. Izan ere, 2023ko emaitza eta 2013koa antzekoak dira, eta gogoratu behar dugu 2013an serieko ehunekorik txikiena jaso zela.

10.5. grafikoa

Gurasoek adin berean zuten egoerarekin alderatuta, egoera hobean daudela uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Beren egoera gurasoek adin berean zutena baino okerragoa dela uste duten gazteen ehunekoak gora egin du. Gorakada hori azal daiteke egungo gazteen belaunaldiaren aukeretan eta bizikaltatean eragina izan duten faktore sozioekonomiko eta demografiko batzuen ondorioz. Hauek dira faktore horietako batzuk:

- Krisi ekonomikoa eta gazteen langabezia: Euskal Autonomia Erkidegoan eta, orokorrean, mendebaldean krisi ekonomiko sakona bizi da, batez ere, 2008an hasi zen atzeraldiaren ondoren. Krisi horrek gazteen langabezia-tasa handiak eragin ditu, eta gazte askori oztopo ugari ezarri dizkie lanpostu egonkorrak eta soldata egokiak lortzeko.
- Laneko prekaritatea: askotan gazteek lan-baldintza prekarioak dituzte (aldi baterako kontratuak, soldata txikiak eta laneko segurtasunik eza). Egoera prekario horrek eragozten du ekonomikoki independente izatea, baita etorkizuna epe luzera antolatua ahal izatea ere.

- Etxebizitzaren kostua: etxebizitzaren prezioen igoeraren ondorioz (batez ere hiri-eremuetan), gazteentzat gero eta zailagoa da etxebizitza bat lortzea, jabetzako zein alokairuko erregimenean. Horrek frustrazioa eta etsipena sor ditzake, etorkizun ekonomikoari eta etxebizitzaren egonkortasunari dagokienez.
- Gizarte-desberdinkeria eta gora egiteko aukerak: desberdinkeria murrizteko ahaleginak egin arren, hezkuntzaren eta lanaren arloetako aukerak lortzeko arrakala handiak daude gaur egun ere. Gazte askok sentitzen dute gora egiteko aukerak oso mugatuak direla; botere-postuak aurreko belaunaldietako pertsonak betetzen dituztela, eta ez dietela leku egiten gazteei; eta gizarte-desberdinkeria oztopo handia dela egoera ekonomikoa hobetzeko.


Gainera, gazte gehienek uste dute erakundeek ez dituztela aintzat hartzen gazteen iritziak. 15 eta 29 urte bitarteko lau gaztetik batek baino ez du uste erakundeek gazteen iritziak aintzat hartzen dituztela.

Neurketa guztietan, maila handiagoan edo txikiagoan, errepikatu da gazte gehienek uste dutela erakundeek, oro har, ez dituztela gazteen iritziak aintzat hartzen.

Adinak gora egin ahala, areagotu egiten da erakundeekiko eszeptizismoa, gazteen iritziak kontuan hartzeari dagokionez; 2023ko datuen arabera, bere iritziak kontuan hartzen ez direla uste dutenak % 68,1 dira 15-19 urte bitartekoen taldean; % 77,5 dira 20-24 urte bitartekoen artean; eta % 81,7ra iristen dira, 25-29 urte bitartekoen taldean. Horri dagokionez, ez dago alde handirik emakume eta gizon gazteen artean.

10.6. grafikoa

Erakundeek gazteen iritziak kontuan hartzen ez dituztela uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia


10.5. Handitu egin da Eusko Jaurlaritzaren jarduna ona dela uste duten gazteen ehunekoa

2023an, Eusko Jaurlaritzaren jarduna ona dela uste duten gazteen ehunekoek gora egin dute, 2021eko eta 2022ko ehunekoekin erkatuta, zehazki, honako arlo hauek hizpidetzat hartuta: bakea eta bizikidetzat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, euskara, ekonomia, hezkuntza, enplegua, justizia eta etxebizitza. Igoera handiena ekonomiaren arloan metatu da.

Aitzitik, Eusko Jaurlaritzaren jarduna ontzat hartzen dutenen ehunekoak txikiagoak dira osasunaren arloari dagokionez. Turismo, kultura, herritarren segurtasuna, obra publikoak eta ongizate soziala aztertuta, beherakada behatu da, 2022ko ehunekoekin alderatuta, baina 2023ko ehunekoak 2021ekoak baino handiagoak dira.

10.7. grafikoa

Eusko Jaurlaritzak hainbat arlotan egindako lana ontzat jotzen duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta

Gizon gazteek emakume gazteek baino hobeto baloratzen dute Eusko Jaurlaritzaren jarduna honako arlo hauek hizpidetzat hartzen direnean: enplegua (ehuneko 22 puntuko aldea); ekonomia (20 puntuko aldea); etxebizitza (17 puntu); osasungintza (16 puntu); gizarte-ongizatea (15 puntu); emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna (9 puntu); obra publikoak eta azpiegiturak (9 puntu); bakea eta bizikidetzak (8 puntu); hezkuntza (7 puntu); eta euskara (6 puntu).

Eusko Jaurlaritzaren jardura «ona» izan dela uste dutenen artean, bost puntutik gorako aldeei erreparatuta, baina adinaren arabera kasu honetan, ikusten dugu 25-29 urtekoek 18 eta 24 urte bitartekoek baino hobeto irizten diotela Eusko Jaurlaritzak ingurumen-arloan eta euskararen arloan izandako jardunari. Aitzitik, 25 urtetik beherako gazteek 25-29 urtekoek baino hobeto irizten diote Eusko Jaurlaritzak ekonomiaren, obra publikoen, ongizate sozialaren, osasungintzaren, lanaren eta etxebizitzaren arloetan izandako jardunari.


Lurralde historikoaren arabera ere aldeak daude. Araban bizi diren gazteek ondoen baloratzen dute Eusko Jaurlaritzak kulturaren, ingurumenaren, obra publikoen eta gizarte-ongizatearen arloetan egindako lana; aitzitik, hezkuntzan egindakoari balorazio positibo gutxien eman dizkio. Bizkaiko gazteek eman dituzte balorazio onenak Eusko Jaurlaritzak turismoaren, bakearen eta bizikidetzaren, ekonomiaren eta osasungintzaren arloetan egindako lanari buruz. Gipuzkoako gazteek gainerakoek baino hobeto baloratzen dute Eusko Jaurlaritzak herritarren segurtasunaren eta enpleguaren arloetan egindako lana, baina iritzi kritikoagoa dute turismoaren, ingurumenaren, obra publikoen, gizarte-ongizatearen eta, bereziki, etxebizitzaren arloan egindakoari buruz.

10.6. Orainari buruzko balorazioa eta etorkizunarekiko konfiantza berreskuratzen hasi dira

2023an, orainari buruzko balorazioak, 100 puntutik, 65 jaso ditu; horrek 3 puntuko igoera osatzen du, 2022ko emaitzarekin erkatuta. Hobekuntza hori gertatu da adierazlea osatzen duten hiru eremuetan: egoera pertsonalean, gazteriaren egoera orokorrean eta EAEren egoeran.

Gazteenak, hots, 15 eta 19 urte arteko gazteak dira orainari ondoen irizten diotenak, 100 puntutik 68 puntu ematen baitizkiote; 25 eta 29 urte arteko gazteek, ordea, 62 puntu eman dizkiote.


10.8. grafikoa
15-29 urteko gazteen egungo egoeraren balorazio-indizearen bilakaera
(0-100 eskala)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Bestalde, etorkizunarekiko konfiantza-indizean 5 puntuko hobekuntza osatu da, aurreko urtearekin erkatuta; eta, 100 puntutik, 59 puntu lortu ditu. Bost urteko epean egoerak onera egingo duela uste duten gazteen ehunekoa handitu egin da, adierazle horretako hiru alderdietan: egoera pertsonalean, gazteen egoera orokorrean eta EAEko egoeran.

10.9. grafikoa
15-29 urteko gazteen etorkizuneko konfiantza-indizearen bilakaera (0-100 eskala)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

10.7. Orainaren balorazioa eta horrek etorkizunarekiko konfiantzan izaten duen eragina

Gazteek ondo samar irizten diote beren egoera pertsonalaren hainbat arlori. Puntuazioak (0-10 eskalan) 6,0 eta 8,3 puntu artekoak izan dira 2023an. Bestalde, balorazioak ez dira hain onak, oro har, gazteen egoera orokorra ebaluatzen dutenean; edo beren egoera adin berean gurasoek bizi izan zutenarekin erkatzen dutenean. Gainera, gazteek ez dute sentitzen erakundeek zaintzen dituztela.

Esan liteke, termino ekonomikoen ikuspegitik, EAEko gazteek zailtasunak dituztela lan egonkorak eta soldata egokiak lortzeko, eta hori oztopoa dela gazteago emantzipatzeko edo nahi duten elkarbizitza-modalitatea aukeratzeko. Zailtasun horiek eta bizitza-proiektuak garatzeko ezintasunak ondorioak ditu gizartean, demografian, osasun mentalean... oraina epaitzeko modua aldatuz eta etorkizunarekiko konfiantza hautsiz.

Egiaz, gazteek ezartzen dituzten helburuak edota gizarteak esleitzen dizkienak, eta helburu horiek lortzeko dituzten benetako aukerak, ez datoz bat. Horrek anomia sortzen du, eta berekin ekar lezake helburuak bertan behera uztea edo helburuak lortzeko baliabideak aldatzea.